

5/1990 LEGEA, ekainaren 15ekoa, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzkoa.

ZIOEN ADIERAZPENA

I

Demokraziadun gizarte ororen beharra da hiritar guztiek hauteskundeetan parte har dezatela bermatzea, horietan aukeratzen bait dira beren ordezkariak izango direnak.

Euskal Herriko Autonomi Estatutuaren 10.3 atalak bakarreango aginpidea aitortzen dio Autonomi Elkarteari «Eusko Legebiltzarrearekin zerikusirik duten hauteskundeetarako barne-legegintzan». Estatutuan oharretematen den hori eginbideratzea du xede Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunde-Lege honek.

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko 28/1983 Legea indarrean jartzetik hona bost urte igaro, eta Hauteskunde-Jaurpide Nagusiei buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Oinarrizko Legea, hots, ordurarte zeuden hauteskunde-arau guztiak: 20/1977 Erregeren Dekretu-Legea, 39/1978 Legea, 6/1983 Oinarrizko Legea eta 14/1980 Legea indargabetu zituena aldarrikatu izanaren ondorioz, esandako Hauteskunde-Legea eraberritzea aholkagarri egiten zuen arau-zatiketa bat gertatu da azken urteotan. Horretaz gainera, Estaduko Jaurlaritzak 1984.ean aurkeztutako konstituziotasunik ezagatikako jazarpenari buruz Konstituzio-Auzitegiak 1988.eko uztailaren 21ean emandako ebazpena, esandako 28/1983 Legearen zenbait atal baliogutzen zituena, kontutan hartzen badugu, ezinbesteko gertatzen da euskal hauteskunde-arauak oraingo Lege honen bidez egokitzea.

Egoera honek nolabaiteko lege-segurtasunik eza sortarazi edo, gutxienez, hauteskundeetan eskuhartzen duten politika-taldeei eta ihardutze-era ezagun batera jadanik ohituta dauden hautatzaileei zalantzak, argipide-eskeak, kexuak, goradeiak eta zuzenketa-eskeak ekarri diezaizkieke.

Guzti horrek, batetik, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko 28/1983 Legea eraberritu beharra adierazten du, hauteskundeei buruzko arau guztiak argitzeko eta, horrela, egon dagoen lege-segurtasunik ezaren arrisku haundiak galerazteko, erizpide kideko eta berdintsuak ezarriz. Bestetik, eraberritze horretan hauteskunde-eraketa osoaren ihardutze-modua hobetzeko beharrezko diren teknika-hobekuntzak eta zuzenketa sartu behar dira.

Horregatik, Hauteskunde-Jaurpide Nagusiei buruzko 5/1985 Oinarri-Legeak eta esandako Konstituzio-Auzitegiaren ebazpenak diotenaren aurka dauden 28/1983 Legeko atalen ordeztu eta horiek zuzenduz, gaurko arauen egoerari egokitu eta Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak izaera eta eremua, baita hauteskunde horiek hobetzeko behar diren teknika-hobekuntzak ere, kontutan hartzen dituzten hainbat arau sartzen dira, hauteskunde-ihardunbide berdintsuak izateko zenbait aldaketa eta zuzenketa eginez eta, ondorioz, hauteskunde-bidearen eginkortasunerako behar den lege-segurtasunaren ezinbesteko osagai diren konfiantza eta segurtasuna sortaraziz.

Azkenik, Lege honek Hauteskunde-Jaurpide Nagusiei buruzko Oinarrizko Legean oharreteman gabe egon eta hauteskunde-bidearen nolakotasunari hainbat hobekuntza dakarzkieten zenbait gai sartzen ditu.

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Lege honetan sartzen diren eta aurreko euskal Hauteskunde-Legea egituratzen zuten atal gehienei nahiko daragieten aldakuntzen eta teknika-hobekuntzen nolakoa kontutan hartuz, legegintza-modurik egokiena erabili da, idazkeraren argitasun eta erabilgarritasunari begira. Lege berri honek ez du xede atal-moltzoaren zati bat aldatzea, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde-jaurpide osoaren erabateko birrazterpena egitea baino.

II

Zazpi idazpuruak, bost erabaki gehigarrik, bi aldibaterako erabakik, hiru azken erabakik eta indargabetzeko erabaki batek osatzen dute Legearen egitura.

III

Erabaki orokorreari buruzko Lehenengo Idazpurua Legearen eremuaren mugapenaz, hautatzaietasunaz, hautagaitasunaz, hautaezinez eta elkartuezinez ari da.

Hautatzaietasuna ahalik eta modurik zabalenean araupetu da, gara-adinarekin, indarreango Hautatzaile-Erroldean sartuta egotearekin eta botoa emateko eskubideaz gabeturik ez egotearekin kidekatuz.

Hautagai izatea politika-aldetik euskaldun den hautatzaile izateari lotuta doa, Euskal Herriko Autonomi Estatutuaren 7. atalak ohartematen duenez.

Hautaezin-zioek, lehenengo eta behin, aginteen banakuntzaren arauerako irizpidea argi eta garbi dute xede. Alde batetik, Euskal Jaurtze-Agintaritzaren eta Legegintzakoaren arteko banakuntza denez; bestetik, berriz, euskal aginteen eta Estaduko aginteen arteko banakuntzaren aldetik. Bigarrenez, hauteskunde-bidearen gardentasuna eta norberekoikeriarik eza bermatze-xedezko hautaezin-zioak jartzen dira.

Legebiltzarkideen elkartuezinei gagozkiela, hauek Euskal Herriko Autonomi Estatutuaren 26.5 atalaren aginduz hauteskunde-legeek araupetu beharreko elkartuezin-egoerak dakartzaten zioei dagozkie.

IV

Bigarren Idazpuruak Hauteskunde-Eraketa du gai.

Idazpuru horrek, lehenengo eta behin, hauta daitezkeen 25 legebiltzarkideren kopuru bera finkatzen du hauteskunde-barruti bakoitzeko.

Hauteskundeak kondaira-lurralde bakoitzean egingo dira, ordezkotza-heintasunaren arabera irizpideei atxikiz, legebiltzarkide-tokien banakuntzan sartu ahal izateko emandako baliozko botoen % 5ekoa jartzen dela.

Halaber, hautatutako hautagaia hiltzea, honek bere tokia uztea edo ezinduta gelditzea gertatuz gero, aldarrikatutako zerrenda berean hurrengo agertzen denari emango zaio aulkia, zerrenda horretako hurrenkerari jarraiki.

V

Hirugarren Idazpuruak Hauteskunde-Administrarritza araupetzen du.

Hirugarren idazpuru horrek, erabaki nagusiei buruzko Lehenengo Atalburuan, Hauteskunde-Batzorde eta Saitetan egituratzen den hauteskunde-erakuntza zehazten du, Euskal Hauteskunde-Administrarritza hiru moztetako Hauteskunde-Batzordek osatuta geratzen dela: Autonomia-Elkarte osoan aginte-mendea duen Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordea, hauteskunde-barruti bakoitza bere aginte-mendeko duen Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordea, eta aginpidez epailarritza-barrutietara mugatzen den Eskualdeko Hauteskunde-Batzordea.

Halaber, Eusko Jaurlaritzak, bere aginpideen barruan, herritarrek botoa emateko eskubidea erabili eta hauteskundeetan eskuhar dezatena bermatzera laguntzen du, hauteskunde-gaietan, aldi hau zuzentzen duten Hauteskunde-Batzordeei laguntza eginkor eta iraunkorra emateko ihardutze-sail aginteduna Herrizaingo-Saila dela.

Esandako Hirugarren Idazpuruko Bigarren Atalburua Hauteskunde-Batzordeez ari da, beren osatze-modua, aginpideak, erakuntza eta ihardutze-modua araupetzen direla.

Hauteskunde-Batzordeen osatze-moduari gagozkiola, epai-agintaritzako kideei ematen zaie Hauteskunde-Batzordeetako lehendakaritza eta auzimaisuei, epilariei eta legelari edo zuzenbide-lanbidedunei batzordekide izatea; beraz, politika-epilaritzako osatze-modua jartzen da, argi eta garbi.

Alde beronetatik, Legeak Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordearen benetako iraunkortasunezko iharduera ziurtatzen du, Kondaira-Lurraldeko eta Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeen iharduera hauteskundeak izan eta ehun egun igaro arte bermatuz. Bestalde, Hauteskunde-Batzordetako kideen ordezkapen-jaurpidea zehazten da eta Batzorde horietako kideen aldaezintasuna finkatzen.

Hauteskunde-Batzordeek Hauteskunde-Erroldeari buruzkoan dituzten aginpideak, Konstituzio-Auzitegiaren 1988.eko uztailaren 21eko ebazpenaren arabera zehazten dira.

Hirugarren Idazpuruko Hirugarren Atalburua Hauteskunde-Sail eta Mahaiei buruz ari da.

Hauteskunde-Sail, Mahai eta Tegien zenbatekoa eta mugak jarri eta argitaratzeari buruzko hauteskunde-erakuntza, Hauteskunde-Erroldearen Idazguak Euskal Autonomi Elkartearen dituen Ordezkaritzari dagokie. Hauteskunde-Mahaiak, Udaletan, Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeen zaingopean, zozketa-bidez hautatutako Mahaipuru batek eta bi Mahaikidek osatuzkoak izango dira, Batzorde hauei, horrela, alderdikeriari gabekoak izateko berme guztiz Udalei ematen zaien administrarritza-lana kenduz.

VI

Laugarren Idazpuruak, indarreango Jaurlaritzaren Legeari atxikiz, Lehendakariaren Dekretuz egin beharko den Hauteskundeetarako deialdia du gai, deia egitezko Dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hauteskundeak berrogeita hamalaugarren egunetik hirurogeigarrenera bitartean egingo direla finkatuz.

VII

Boskarren Idazpuruak hauteskunde-bideari dagokion guztia araupetzen du, beren Sail eta guztiko bederatzi Atalburutan zehar.

Lehenengo Atalburua hautagaien aurkezpen eta aldarrikapenaz ari da, eta ordezkari nagusia eta hautagai-zerrendakoa, Hauteskunde-Administraritzarekiko harremanetan beronen laguntzaile direnez, araupetzen dira.

Hautagai batzueko hauteskunde-barrutikako heintasunaren arabera erapidea denez gero, hautagaien aurkezpena politika-alderdien, baterakundearen eta hauteskunde-batasun eta bazkunaren esku uzten da, azkeneko bi horiei buruzko berarizko arauak jarritz.

Batasunekiko araupeketak, elkartuta aurkezten diren alderdi edo baterakundeei hautagai-zerrendak berenez aurkeztea debekatu egiten die. Halaber, hauteskundeetara aurkezten

diren politika-taldee, hauteskunde-barruti berean hautagai-zerrenda bat baino gehiago aurkeztea debekatu egiten zaie. Hauteskundeetara aurkeztu direnen arteko aukera-berdintasunaren arauerako oinarri-irizpidea bermatu nahi da horrela, hautagaiei dagozkien herri-laguntzak hautagai-zerrenda bakoitzari ematen zaizkionez gero, debeku hori izan ezean aukera-berdintasuna kaltetan aterako bait litzateke.

Bazkunak, barrutiko Hautatzaile-Erroldean sartutakoen 100eko 1ekoen izenpea eskatuz, arau-petzeak zera du xede: herri-laguntzez baliatuz, bere zuduak aldezteko berenezko bideak izan behar dituzten arren, hautatzaileei bere aukera egin dezaten jaurtze-egitasmo batzuk aurkeztea helburu duen ihardun bat bestetarakotuz herritarrentzat nahaspide gertatu behar ez duten gutxi batzuen nahientzako ozengailu bat aurkitzea xede izan dezaten hautagai-zerrendei bideak istea.

Hautagai-zerrenda baten baino gehiagotan egotea debekatu egiten da eta, horren ariora, hautagai-zerrendak aurkeztekoan hautagai bakoitzaren onarpena egiaztatzez gainera, hautagai-zerrenda baten baino ez daudela adieraztea eskatzen zaie. Halaber, Hautatzaile-Erroldeko zerrendetan sartuta egon gabe, hautagai izateko aukera ematen da, beti ere administrarritza-egoitza Autonomi Elkarteko ezein udalerritan izan beharko duela.

Hauteskunde-bidearen aldi honetan, hautagaiek hautagaitasun-baldintzak betetzen dituztela eta hautagai-zerrendak jarrita dauden araei atxikiz eginda daudela egiaztatzea dute Batzordeek funtsezko egiteko, arau horiek, hautagai bakoitza zerrenda baten baino ez dela agertzen eta zerrendok garbi eta egiaz eginda daudeneko lege-segurtasuna hautatzaileei bermatzera jotzen dutela. Horretxegatik, atzera egitea, hiltzea edo hautaezinen bat agertzea gertatutakoan salbu, zerrendetako izen-hurrenkera ez dago zerrendok behin-betiko aldarrikatu ondoren aldatzerik, ordezkaketa egiteko hurrenkera ordezkoen izenena bera dela. Agindu-bidezko zuzenketez gainera, beste hautagai-zerrenda batzutako ordezkariak egin ditzaketen jazarpenak ere araupetzen dira eta, hori, legezko segurtasuna eta hauteskunde-bidearen argitasuna eta gardentasuna bermatzeko helburu beraz.

Aldarrikapenaren bidezketasunik eza, hautagai-zerrendek berenez dituzten akatsak eta hautagaiei banaka dagozkienak elkarrengandik bereiziz araupetzen da, hautagaiek aurkeztekoan izandako akatsek nahitaez hautagai-zerrenda osoari zertan eraginik ez dutela eritzi eta, noiz nola, ondorio ezberdinak ematen zaizkiela.

Hautagai-zerrendak aldarrikatuta, Administrarritza-Auzipidetarako Auzitegian egin beharko den hautagai eta hautagai-zerrenden aldarrikapenaren aurkako jazarpena araupetzen da.

Hauteskunde-amarruak edo lege-aldetikako gehiegikeriak galerazteko xedez halaber, behin hautagai-zerrendak aldarrikatuz gero, beren hautagai-zerrenda osoa hauteskundeetatik ken dezaten politika-alderdi edo, hala badagokio, hautagaiei Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordeek jarri ahal izango dizkieten zigorrak araupetzen dira.

Hauteskunde-ekintzaldiari buruzko arauak Legearen esandako Boskarren Idazpuruko Bigarren Atalburuan ematen dira.

Lehenengo Sailaren erabaki orokorrek hauteskunde-ekintzaldia hamabost egunekoa izango dela finkatzen eta Eusko Jaurlaritzaren erakunde-mailako zabalkundea araupetzen dute.

Bigarren Atalburu horretako Bigarren Sailean hauteskunde-zabalkundearen ondorioetarako aurre-ekintzaldia araupetzen da, horrela, hauteskunde-auzien iturburu izan litezkeen ulertze-moduen zio diren lege-hutsuneak galeraziz eta hauteskunde-zabalkunderik egiterik izango ez dutenak finkatuz. Azkenik, hautagai-zerrendek, hauteskunde-ekintzaldiak dirauen bitartean, egunkarietan eta

norbanako-alorreko mezubideetan iragarkiak akuratzeko eskubidea dutela esaten da, hauteskunde-zabalkunderako iragarkiak norbanako-alorreko TB-irratetxeetan akuratzerik izango ez dela.

Hirugarren Saila hautagai-zerrendak hauteskunde-ekintzaldian herritegi eta lekuneez doan baliatzeaz ari da, hautagai-zerrenda guztientzako, Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeen bitartez, zuzentasun eta aukera-berdintasunaren araberrako irizpideei atxikiz, tegi eta lekune horiek izendatzeko modu ezberdina ezarriz. Bestalde, politika-taldeen erantzukizuna, egindako hauspen edo kalteengatikakoa, zehazten da, eta bai idatzi-irudizko iragarkiak baimendutako lekuetatik kanpo jartzeagatikako zigorra eta hauteskundeak bukatu ondoren hauteskunde-iragarkiak kendu beharra ere.

Herri-mailako mezubideetan doango iragarraldiez baliatzeko eskubidea ere araupetzen da Laugarren Sailean, iragarraldi horiek politika-alderdi bakoitzak Eusko Legebiltzarrerako aurreko hauteskundeetan ateratako botoen guztizko zenbatekoaren heinean emanaz. Era berean, doango iragarraldien banaketa-saltoa Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordeari egiteko, Irrati eta TB Batzordea ere araupetzen da.

Halaber, aginpidea aitortzen zaio Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordeari Irrati eta TB-ko herri-mailako mezubideetan doango hauteskunde-iragarraldiak banatzeko, eta hauteskunde-iragarkien doango denboraldia banatzeko neurri-taula ere finkatzen da, haiek iragartzeko unea eta hurrenkera zehazteko arauekin batera.

Boskarren Sailean zuzenketarako eskubidea jasotzen da.

Azkenik, Seigarren Sailean iritzi-itaunketak eta ikerketak argitaratzeko jaurpidea araupetzen da, hauteskunde-eguna baino hogeit ordu lehenagotik hauteskundeei buruzko iritzi-itaunketen eta ikerketen emaitzak zabaltzeko debekua azpimarratzen dela.

Legearren Boskarren Idazpuruaren gainerako Atalburuek, Hauteskundetegia irekitzen denetik erabateko boto-kontaketa eta hautatutako legebiltzarkideen aldarrikapena egin arteko aldi berezien bilbakuntza egiten dute.

VIII

Legearren Seigarren Idazpuruak agiripaperak eta hauteskunde-jazarpenak aurkezteko eta egiteko modua araupetzen du, administrazio-bideei dagozkienetarako bide erraz eta azkar ebaztekoa jarriz.

IX

Zazpigarren Idazpuruak hauteskunde-eskuraketak, gastuak eta dirulaguntzak araupetzen ditu.

Zazpigarren Idazpuruako Lehenengo Atalburuak hauteskunde-kontaduritzaz arduratuko den hauteskunde-administraria jartzen du.

Bigarren Atalburua hauteskunde-kontuei eta kontaduritzaz zehatzari dagokie.

Hirugarren Atalburuan araupetzen dira hauteskunde-eskuraketak eta ekarketa-iturburuak, Eusko Jaurlaritzak politika-alderdien hauteskunde-gastuetarako herri-laguntzen pentzutango aurrerapena emateko aukera ohartarazten dela.

Laugarren Atalburuak mugatu egiten ditu hauteskunde-gastuak, hautagai-zerrendak aurkezten dituzteneko barrutietako legezko biztanle-kopuruaren eta hamazazpi pezetan arteko biderketa

eginda ateratzen dena hauteskunde-barruti bakoitzeko mugatzat jarriz, kopuru hau barrutiko hogeitabost miloi pezetako kopuruz gehitu daitekeela.

Boskarren Atalburuan hauteskunde-kontaduritzaren zaingoa, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak eskuhartuz, Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordearen eta Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordeen bitartez egingo dela araupetzen da.

Hauteskunde-gastutarako herri-dirulaguntzak finkatzeko arauak Seigarren Atalburuan zehazten dira.

Azkenik, Zazpigarren Atalburua hauteskunde-eskuraketa eta gastuei buruzko atalburuetan oharrematen dena hausteagatik ezarriko diren zigorrez ari da.

X

Legearren Lehenengo Azken Erabakia, hauteskunde-jaurpide orokorrari buruz indarrean dagoen araupidetza, eta berariz, Lege honetan oharrematen ez den guztietan erabili beharreko izango den Gorte Nagusietarako Diputatuen hauteskundeetarako oharremandakoetara joarazten duen txatal moduan eratzen da.

I. IDAZPURUA

ERABAKI OROKORRAK

1. atala.– Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak araupetzea da Lege honen xedea.
2. atala.– 1.– Legez euskaldun izanik, botua emateko eskubidearen jabe diren guztiak izango dira hautatzaile.
 - 2.– Botua eman ahal izateko, Hautatzaile-Eroldan izena emanda egotea ezinbestekoa izango da.
3. atala.– 1.– Botoa emateko eskubiderik gabekoak:
 - a) Sendetsitako auzi-epaiz, zigorrak dirauen artean botoa emateko eskubidea kentzeko zigor nagusia edo osagarria jarri zaienak.
 - b) Sendetsitako auzi-epaiz gaitasungabeko aldarrikatuak; epai horrek beti ere botoa emateko gaieztasuna berariz adierazi beharko du.
 - c) Epailari-baimenaz sikiatria-eritegiratuak, barnealdiak dirauen artean eta Epailariaren baime-nak botoa emateko gaieztasuna berariz adierazten baldin badu.
- 2.– Atal honetan oharremandako ondorioetarako, gaitasungabetze edo eritegiratzeaz arduratzen diren Epailariak eta Epaitegiak berarizko erabakiak eman beharko dituzte botoa emateko gaieztasunari buruz. Gaieztasun horretaz jabetuz gero, Herri-Eroldari eman beharko diote horren berri, honek beharrezko idaztoharra egin dezan.
4. atala.– 1.– Autonomi Estatutoaren 7. atalean jartzen diren baldintzak betez, hautagai izan eta Lege honetan esaten diren hautaezin-zioen pean ez dauden herritarrak izango dira hautagai.
 - 2.– Azaroaren 27ko 2917/1981 Errege-Dekretuak araupetzen duen Biztanle-Erroldean sartzen diren Espainiako Erregeren familiko kideak, ez eta hauen ezkontideak ere, ez dira hautagai izango.

3.– Hautaezin zio izango da ondorengo ihardunetan aritzea:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko alor publikoan:

1) Administrazio orokorrari dagokionez, sailburuordeak, idazkari nagusiak, zuzendariak eta horiei parekatutakoak.

2) Administrazio instituzionalari eta behin betiko sektore publikoko erakunde enparauei dagokienez, zeinak zehaztuta baitaude Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onesten duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuko 7. artikuluan, presidenteak, zuzendari nagusiak, kudeatzaileak eta izendapen askeko beste kargu oro, horiei parekatu dakizkiekeen funtzio exekutiboak dituen. Alabaina, Eusko Legebiltzarreko kideak parte hartu ahal izango dute erakundeetako, ente publikoetako eta partaidetza publiko zuzena edo zeharrekoa duten sozietateetako zuzendaritza organo kolegiatuetan edo administrazio kontseiluetan, beren izendapena Eusko Legebiltzarrari dagokionean.

3) Arartekoa eta Arartekoaren ondokoa; Herri Kontuen Euskal Epaitegiko presidentea eta kideak; Arbitraje Batzordeko presidentea eta kideak.

4) Euskal Irrati Telebista erakunde publikoko zuzendari nagusia, erakunde hori osatzen duten sozietate publikoetako zuzendariak eta organikoki sozietate horietan kokatzen diren komunikabi-deetako zuzendariak.

b) Estatuko sektore publikoan:

1) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko burua edo kideak, epaileak, magistratuak, zerbitzu aktiboan dagoen fiskala, eta Estatuko fiskal nagusia.

2) Administrazio zentralari dagokionez, Gobernuko presidentea, ministroak eta Estatu-idazkariak, bai eta izendapen askeko beste kargu oro; Gobernuaren Euskadiko ordezkaria eta ordezkariordea, eta bestelako lurralde-eskumeneko antzeko agintariak; zuzenbide publikoko erakundeei, erakunde autonomoei, zuzenbide pribatuko erakunde publikoei eta erakunde publiko estatalei edo zuzeneko edo zeharkako partaidetza estatala dutenei dagokienez, presidenteak, zuzendari nagusiak, idazkari nagusiak eta izendapen askeko beste kargu oro horiei parekatu dakizkiekeen funtzio exekutiboak dituen. Atzerriko estatu baten aurrean edo nazioarteko erakunde baten aurrean egoiliar gisa akreditatutako misio-buruak. Espainiako Bankuko gobernadorea eta gobernadoreordea; Kreditu Ofizialeko Institutuko eta gainerako kreditu-erakunde ofizialetako presidenteak eta zuzendariak. Hautesle Erroldaren Bulegoko zuzendaria eta Segurtasun Nuklearreko Kontseilu Nagusiko presidenteak, kontseilariak eta idazkari nagusia.

3) Estatuz azpiko lurralde-eremuei dagokienez, ministerio bakoitzetik maila goreneko kargua betetzen dutenak; lurralde-eskumen mugatuko erakunde autonomoei dagokienez, presidenteak, zuzendariak eta horiekin parekatutako karguak, bai eta lurralde-eremu horietan Gobernuaren ordezkari direnak; RTVE korporazioaren lurralde-ordezkariak; Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileen organo periferikoetako presidenteak eta zuzendariak; Gobernuaren ordezkarietako eta ordezkariordetzetako idazkari nagusiak; Hautesle Erroldaren Bulegoko probintzia-ordezkariak. Horiek guztiak hautaezin izango dira beren jurisdikzioko lurralde-eremua osorik edo zati batean hartzen duten hauteskunde-barrutietatik.

4) Konstituzio Auzitegiko burua edo magistratuak, Estatu Kontseiluko edo Kontu Auzitegiko burua edo kontseilariak, Konstituzioaren 131.2 artikuluan zehazten den kontseiluko burua.

5) Herri Defendatzailea eta haren ondokoak.

c) Beste Autonomi Elkartearen herri-alarrean:

– Beste Autonomi Elkarteetako Biltzarretako Kide edo Biltzar horiek izendatu beharreko Autonomi Erakundeetako kide.

– Beste Autonomi Elkartearen Jaurtze-Batzarretako Kide, bai eta Batzar horietako aukerango izendapenezko karguak ere.

d) Europako Elkartearen herri-alarrean:

– Batzordeko Lehendakari, Batzordekide, Idazkari Nagusi edo Zuzendari Nagusi.

– Kontseiluko Lehendakari, kide, Idazkari Nagusi edo Zuzendari Nagusi.

– Zuzentza-Epaitegiko Lehendakari, Epaialari, Legelari Nagusi edo Idazkari Nagusi.

– Europako Batzordeko, Kontseiluko edo Legebiltzarreko aholku eta laguntzako ihardutze-sailletako goren karguak.

e) Lurralde historikoen eta toki-administrazioen arlo publikoan:

1) Lurralde historikoetako Administrazio publikoari dagokionez, zuzendari nagusiak edo haiekin parekatutako karguak. Eta erakunde autonomo foralei, enpresa-entitate publiko foralei, zuzenbide pribatuko ente publiko foralei, merkataritza-sozietate foralei eta sozietate publiko foralei dagokionez, presidenteak, zuzendari nagusiak, kudeatzaileak edo haiekin parekatutako beste kargu oro.

2) Erakunde autonomo lokalei, kapital publikoko merkataritza-sozietate lokalei eta enpresa-entitate publiko lokalei edo haiek partaidetza nagusia daukatenei dagokienez, presidenteak, zuzendari nagusiak, kudeatzaileak edo haiekin parekatutako beste kargu oro.

3) Dena den, hautagarri izango dira diputatu nagusi, foru-diputatu, alkate eta zinegotzi izanik, kargu horregatik, berenez, 1. eta 2. apartatuetan aipatutako erakunde, ente, entitate edo sozietateetako kide direnak, horrela espresuki aurreikusita egoteagatik antolakundeetako estatutuetan.

f) Hauteskunde-administrazioeko edozein organotako kide izatea, eta baita udaletako idazkari izatea eta eskualdeko hauteskunde-batzordeetako ordezkari izatea.

g) Era berean, Estaduko Segurantzza-Sail eta Indarretan, Ertzaintzan, Foru edo Udal-Ertzaingoetan ari direnak, bai eta iharduneango gudugizon profesional eta osagarritzakoak ere hautaezintza izango dira.

4.– Artikulu honen 3. zenbakiko a), b) eta e) letretan aipatutako erakunde autonomoen, zuzenbide pribatuko erakunde publikoen edo sozietateen kapital sozialean administrazio publiko batek baino gehiagok parte hartzen duen kasuan, akzio gehien edo parte-hartze handiena daukan administrazioari dagokiona izango da antolakunde horien presidente, zuzendari nagusi, idazkari nagusi eta kudeatzaileei eta horiekin parekatutako beste kargu orori aplikatu beharreko hautaezintasun-araubidea. Berdinketarik badago, hautagai-zerrendaren lurralde-ordezkaritza daukanak erabakiko du zein hautaezintasun-araubide aplikatu behar den.

5.– Artikulu honen 3. zenbakian aipatutako kargu edo funtzio bat betetzen ari direlarik hautagai gisa aurkeztuak direnek, modu fede-emailan egiaztatu beharko dute dagokien hauteskunde-batzordearen aurrean uko egin diotela edo utzi egin dutela hautaezintasuna eragiten duen kargua edo funtzioa.

Hautaezintasun-kasuetan karguari edo egitekoari uko egitea edo hura uztea, besteak beste, honela jakinarazi ahalgo zaio dagokion hauteskunde-batzordeari: dena delako organismoak zentzu horretan egindako ziurtagiria aurkeztuz, edo organismo horretan aurkeztutako idazkiaren kopia emanaz.

6.– Hautagai-zerrenda bateko kide izanik hautaezintzat jotako kargu edo funtzio batera iristen direnek, dagokion hauteskunde-batzordeari jakinaraziko diote egoera hori, eta hark deklaratuko du aurkeztutako zerrendatik kentzea hautagaia.

7.– Azkenik, hautaezinak izango dira:

a) Askatasunaz gabetzeko zigorrera epai irmoz kondenatuak, zigorrak irauten duen bitartean.

b) Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 6.2.b artikuluan ezarritako delituengatik eta baldintzetan epai bidez kondenatuak, nahiz eta epaia irmoa ez izan.

5. atala.– 1.– Hautaezin-zio guztiak bidebatez elkartuezin-zio izango dira.

2.– Gainera, ondorengo ihardun edo karguetan aritzea elkartuezin-zio izango da:

a) Autonomia Erkidegoaren sektore publikoan:

1) Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko, Lan Harremanen Kontseiluko, Kooperatiben Goren Kontseiluko, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluko eta antzeko izaerako organo aholku-emaileetako lehendakaria, idazkari nagusia, kideak edo beste edozein kargudun, salbu eta legebiltzarkide izanik Legebiltzarrak eginkizun horiek betetzeko izendatutakoak.

2) Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren zerbitzura edo administrazio horretako edozein organoren edo erakunderen zerbitzura daudenak, zerbitzu horiek emateko araubidea edozein delarik, salbu eta zuzendaritza-, kudeaketa- eta administrazio-eginkizun hutsak burutzen ez dituzten irakasleak, osasun-langileak eta ikerlariak.

b) Estatuko sektore publikoan:

– Kongresuko diputatua.

c) Europar Batasuneko sektore publikoan:

– Europar Parlamentuko diputatua.

6. atala.– Eusko Legebiltzarreko kideek norbanako-alorreko lanetan aritu ahal izango dute, honako hauetan salbu:

a) Autonomi Elkarteko iraskunde-mailako Herri-Administrazioaren zein nagusiko eraentza, aldezpena, zuzendaritza edo aholkularitza-ihardunak, Administrazioaren horrek erabaki beharreko diren, herri-zerbitzuren bati zuzenean eragin edo herri-laguntzak edo bermeak lortzera jo dezaten galetan. Doakienek aitortzen zaien eskubide batez baliatuz zuzenean egin ditzaten norbere-alorreko ihardunak, ez eta arau orokor batean jarritakoa betetzetik datozkien laguntzak edo bermeak ere ez dira arau honen erabiltze-eremuan sartzen.

b) Autonomi Elkartearen diruz ordain daitezten herri-lan, zerbitzu edo horniduren akura-tzaile edo zordunkide-ihardunak, edo ihardun horietan ari diren baltzu edo enpresen zuzendaritza, ordezkari-tza edo urgazlaritza-eginkizunak atxikita daramatzaten karguak.

c) Legebiltzarkide hautatua izan ondoren eta hori den bitartean, berenez edo baltzuan, Autonomi Elkarteko Herri-Administraritzaren aldeko urgazpen-zerbitzuak edo bestelakorik emateko hitzarmenak egitea.

d) Hautatua izan eta gero, Autonomi Elkarteko herri-alorreko izaikiekin hitzarmenak, zerbitzu edo hornidurak izan ditzaten enpresa edo baltzuetan 100eko 10etik gorako partaidetza izatea, ondare-bidez bada salbu.

e) Funtsean dirubidezko xedea izan eta agirian aurrezki eta maileguetara joarazi dezaten enpresa edo baltzuetako Arduratze-Batzordeburu, Batzordekide, Arduralari, Zuzendari Nagusi, Eraenlari edo baliokideko karguetan ihardutzea.

7. atala.– Nolanahi ere, Eusko Legebiltzarkideek ez dute edozein erakunde-mailatako herri-Diruegitamuen pentzutango lansari batetik gora jasotzerik izango, ez eta elkartuezinako ihardunei dagozkien ordainsariak aukeratzetik ere, bateragarriak direnengatik bakoitzean dagozkien bide-sari eta kalte-ordainen kaltetan gabe.

8. atala.– Legebiltzarkideek Lege honetan zehazten direnetako elkartuezin-zio izan daitezkeen ihardun guztien adierazpena egin beharko dute, eta bai diru-eskuraketak edo ondare-abantailak ematen dizkieten beste nolanhiko ihardunena eta beren ogasunena ere. Adierazpen hori Legebiltzarrean aurkeztu beharko da, bai legebiltzarkidetasuna jasotzekoan, bai eta beren egoera aldatzekoan ere.

Ihardunen eta ogasunen adierazpen horiek Zuduen Errolda batean sartuko dira. Errolda horrek Legebiltzarreko lehendakaria izango du zaindari eta Legebiltzarrak jar ditzan barne-arauak jaurpide.

II. IDAZPURUA

HAUTESKUNDE-ERAKETA

9. atala.– Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan, kondaira-lurraldea izango da hauteskunde-barruti.

10. atala.– Hauteskunde-barruti bakoitzeko hogeitabost legebiltzarkide hautatuko dira.

11. atala.– 1.– Legebiltzar-tokien banakuntzan sartu ahal izateko, dagokion hauteskunde-barrutian izandako baliozko boto guztien 100etik 3koa gutxienez atera beharko da.

2.– Hautagai-zerrendek ateratakoak eta boto zuriak kontatuko dira baliozko bototzat.

12. atala.– 1.– Hauteskunde-barruti bakoitzean alderdi edo hautagai-zerrenda bakoitzari legebiltzar-tokiak ematea, ondorengo arauak erabiliz egingo da:

a) Hauteskunde-barruti bakoitzean aurkeztu daitezkeen hautagai-zerrendak itxitakoak eta aldaezinekoak izango dira.

b) Botoen kontaketa egin ondoren, zerrendak botorik gehien ateratakotik hasitako hurrenkeran jarriko dira.

c) Zerrenda bakoitzak ateratako baliozko boto guztien biren, hiruren, etabarren arteko banaketa egingo da.

d) Legebiltzar-tokiak, hori egin eta banakin haundienak eman ditzaten zerrendei emango zaizkie, haundienetik txikienerainoko goitik beherako hurrenkeraz. Toki bat ematerakoan

bi hautagai-zerrendek edo gehiagok ematen dituzten banakinak berdinak izatea gertatuz gero, ebazpena hamarrenak aterata egingo da, legebiltzar-tokia hamarren gehien izan ditzan hautagai-zerrendari emanaz.

e) Aurreko zatian esandako araua erabiliz gero berdintasunak oraindik irautea gertatuz gero, legebiltzar-tokia orohar boto gehiago ateratako zerrendari emango zaio.

f) d) letran esandako araua erabiliz banakinak eta botoen guztizkoak berdinak izatea gertatuz gero, lehenengo legebiltzar-tokia zotz eginda emango da, eta ondorengoak txandakatuz.

g) Zerrenda bakoitzari dagozkion legebiltzar-tokien zenbatekoak zehaztu ondoren hautagaiei ematea, zerrendan izan dezaten hurrenkerari hertsiki atxikiz egingo da.

2.– Hautatutako legebiltzarkide aldarrikatutako bat hiltzea, ezinduta gelditzea edo bere tokia uztea gertatuz gero, aldarrikatutako hautagai-zerrenda berean hurrengo egon dadin hautagaiari emango zaio legebiltzar-tokia.

3.– Ordezaketak legegintza-aldi osoak diraueno egin ahal izango dira.

III. IDAZPURUA

HAUTESKUNDE-ADMINISTRARITZA

I. ATALBURUA

ERABAKI NAGUSIAK

13. atala.– 1.– Hauteskunde-administraritzak hauteskunde-bidearen gardentasuna eta bereizkeriarik eza eta herri-kargutara iristeko aukera-berdintasuna Lege honek jartzen dituen modu eta neurritan bermatzea izango du helburu, Epaitegiei dagozkien aginpideen kaltetan gabe.

2.– Hauteskunde-Batzorde Nagusiak bere dituen agintepideen kaltetan gabe, euskal hauteskunde-Administraritzza osatzen duten ihardutze-sailei egokituko zaizkie egiteko horiek.

3.– Honako hauek osatuko dute euskal hauteskunde-Administraritzza: Autonomi Elkarteko, Kon-daira-Lurraldeko eta Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeek eta bai hauteskunde-mahaiek ere.

14. atala.– 1.– Egituraz, Hauteskunde-Batzordeek eta Hauteskunde-Sailek osatuko dute hauteskunde-erakuntza.

2.– Hauteskunde-Batzordeek beren tegietan egingo dituzte euren bilerak, eta, haien ezean, Batzordeetako Idazkariak beren karguetan ari daitezenekoetan.

15. atala.– Herri-agintari guztiak, beren aginte-eremuaren barruan, Hauteskunde-Administra-zioak bere egitekoak behar bezala bete ditzan beren laguntza ematera behartuta egongo dira.

16. atala.– 1.– Eusko Jaurlaritzak eta Autonomi Elkarteko Administraritzak, bere aginpideen barruan, herritarrek botoa emateko eskubidea erabiltzea eta hauteskundeetan eskuhartzea bermatzen lagunduko dute.

2.– Barne-Saila izango da hauteskunde-gaietarako Autonomi Elkarteko Administrazioak ihardutze-sail aginteduna eta, etengabe, hauteskunde-bideari laguntza emateko honako lan hauek egingo ditu:

a) Hauteskundeak teknikaren aldetik behar bezala egingo direla bermatzeko Hauteskunde-Batzordeei aholkuak ematea.

b) Hauteskunde-Batzordeek beren egitekoa betetzeko behar ditzaten lanari eta gauzako eskuarteak euren esku jartzea.

c) Hauteskunde-Batzordeetako kideen eta hauen zerbitzupeko lanarien bidesari eta sariztapenen saloak Jauriaritza-Batzarrari aurkeztea, bai eta Hauteskunde-Mahaietako Buru eta Kideei, hala izanez gero, dagozkien bidesarienak ere.

d) Hauteskunde-bidea Lege honetan jarritakoaren arauera egiteko beharrezko izan daitezten teknikazko ekintza guztiak egitarautzea, eraentzea eta betetzea.

e) Lege hau edo honen araudiak garatzeko araupide guztiak gertatzerakoan eskuhartzea eta bere iritzia ematea.

f) Lege honek eman diezaizkion beste eginkizun guztiak.

3.– Aurreko idaztien gai diren egitekoak Lege honetan Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordearentzat oharmandako jaurpideen eta Hauteskunde-Administrazioari dagozkion egiteko eta aginpideen kaltetan gabekoak izango dira.

17. atala.– 1.– Hauteskunde-Batzordeetako Lehendakaritza, Kidegoa eta Idazkaritza, eta bai Hauteskunde-Mahaietako kide izatea ere, nahitaezkoa izango da.

2.– Hauteskunde-Batzorde bateko kide izatea beste bateko izatearekin bateraezina izango da.

3.– Hori gertatuz gero, bete beharreko egitekoa goragoko mailakoan egiteratuko da, eta biak maila berekoak izatea gertatuz gero, aukeratu dadin horretan.

4.– Hauteskunde-Batzordeetako kideek ez dute artekari nahiz ahaldun-ihardunetarako izendatuak izaterik izango.

II. ATALBURUA

HAUTESKUNDE-BATZORDEAK

LEHENENGO SAILA

BATZORDEEN OSATZE-MODUA

18. atala.– 1.– Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordea ihardutze-sail iraunkorra izango da eta horrela osatuko:

a) Euskal Herriko Zuzentzako Goren-Epaitegiko Lehendakaria.

b) Zuzentzako Goren-Epaitegiko Jaurtze-Sailak zozketa-bidez izendatutako bost Batzordekide Auzimaisuk.

c) Autonomia Erkidegoan bizi diren katedradun, Zuzenbide, Zientzia Politiko edo Soziologiako irakasle titular –lanean dihardutenak–, edo aitortutako itzaleko legelari direnen artetik aukeratutako bost batzordekide, Eusko Legebiltzarrak izendatuta, Legebiltzarrean ordezkariak duten alderdi politikoek, federazioek, koalizioek edo hautesle-taldeek proposatuta.

2.– Aurreko zenbakian esaten diren hautaketak Eusko Legebiltzarraren eratze-bilkura egin ondorengo larogeita hamar egunen barruan egin beharko dira. 1.c) idazatian oharmandako lagunen saloak epe horretan egiten ez badira, Legebiltzarreko Mahaiak Taldeburu-Batzordeari entzun ondoren egingo ditu hautaketak, Legebiltzarrean egon dadin ordezkari-kopuruaren heinean.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeko lehendakariak hauteskunde-batzordeak dituen eginkizunetan jardungo du bakarrik, hauteskundearen deialdia egiten denetik hautatutakoak aldarrikatu artean, eta hala, egokitzen bada, baita sortzen diren auzibideez emandako epaiak betetzen diren arte ere; horien artean sartzen da hauteskundearen erregimen orokorrean aurreikusitako babes-errekurtsoa, hauteskundeak direla-eta halakorik aurkezten bada.

4.– Aukeraturiko Lehendakari eta Batzordekideak Eusko Jaurlaritzaren Dekretuz izendatuko dira, eta bere manu-aldian jarraituko dute Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzorde berria, hurrengo Legegintza-aldiaren hasieran, bere tokiaz jabetu arte, beti ere, Batzordeko Lehendakariak hauteskunde-ihardunak bukatutzat jotzen baldin baditu.

5.– Hauteskundetarako deia eginezko Dekretua argitaratu ondorengo hiru eguneko epearen barruan, hauteskunde-aldian Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordea nola osatuko den berriz argitaratu beharko da Euskal Herriko Agintaritza-Aldizkarian.

19. atala.– 1.– Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordeko Lehendakariak, Epaitegi Goreneko Lehendakariari dagokio.

2.– Lehendakariordetza karreraren aintzinakoena izan dadin auzimaisuak izango du, eta horretan berdintasuna gertatuz gero, zaharrenak.

3.– Eusko Legebiltzarreko Legelari Nagusia izango da Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordeko Idazkari.

20. atala.– 1.– Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordeak Eusko Legebiltzarrean izango du bere egoitza.

2.– Eusko Legebiltzarrak beharrezko baliabide guztiak eskuratuko dizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeari, batzordeak bere egitekoak egoki burutu ditzan.

3.– Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordeko kideen eta hauen zerbitzuko lanarien bidesari eta ordainsariak, Eusko Legebiltzarreko Mahaiaren saloz, Eusko Jaurlaritzak finkatuko ditu.

4.– Legebiltzarreko letratuek, baita bertako informatika-zerbitzuak ere, behar den aholkularitza juridiko eta teknikoak burutuko dituzte, Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeari agindutako eginkizunak betetzeko.

21. atala.– 1.– Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordea honela osatuko da:

a) Dagokion Probintzia-Auzitegiko Auzimaisu izan eta Epai-Agintaritzaren Kontseilu Nagusiak zozketa-bidez hautatutako Hiru Batzordekide. Dagokion Auzitegian aski Auzimaisu ez egonez gero, probintziako hiriburuko norbere-mailako aginte-sailetako buruak izendatuko dira.

b) Estatutko Hauteskunde Batzordeak izendatutako bi batzordekide, Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak proposatuta, lurralde historikoan bizi diren katedradun, Zuzenbide,

Zientzia Politiko edo Soziologiako irakasle titularren, edo aitortutako itzaleko legelari direnen artetik aukeratuta. Batzordekide horiek hautagaiak zeintzuk diren aldarrikatu eta gero izendatuko dituzte. Horretarako, barrutian aurkeztutako hautagai-zerrenden lurralde-ordezkariek batzordekide izateko kargu horiek beteko dituzten pertsonak zeintzuk izan beharko duten proposatuko dute denek batera. Proposamen hori ez bada egiten hauteskunde-kanpaina hasi baino lehen, Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak proposatuko du izendapena.

2.– Atal honetako 1.a) idazatian aipatzen diren Batzordekideek euren artetik aukeratuko dute Batzordeko Lehendakaria.

3.– Lurralde historikoetako hauteskunde-batzordeetako lehendakariak dagokien hauteskunde-batzordeak dituen eginkizunetan jardungo dute bakarrik, hauteskundearen deialdia egiten denetik hautatutakoak aukeratu artean, eta, hala egokitzen bada, baita sortzen diren auzibideez emandako epaiak betetzen diren arte ere; horien artean sartzen da hauteskundearen erregimen orokorrean aurreikusitako babes-errekurtsoa, hauteskundeak direla-eta halakorik aurkezten bada kasuan kasuko barrutian. Beraz, halakorik gertatzen bada, lege honetako 23.2 atalean aurreikusitako epea luzatu egingo da.

4.– Kondaira-Lurraldeko Batzordeko Idazkaria bera izango da dagokion Auzitegiko Idazkari, eta bat baino gehiago egonez gero, zaharrena.

22. atala.– 1.– Eskualdeko Hauteskunde-Batzordea honela osatuko da:

a) Lehenengo Auzialditarako edo Argipide-Epailari izan eta Euskal Herriko Epaitegi Goreneko Jaurtze-Sailak zozketa-bidez hautatutako hiru Batzordekideak. Epai-barrutiren baten aski Epailari ez egotea gertatuz gero, zozketa-bidez, epai-barruti horretako Udal Epailariak izendatuko dira.

b) Lurralde historikoko hauteskunde-batzordeak izendatutako bi batzordekide, barruti judizialean bizi diren Zuzenbide, Zientzia Politiko edo Soziologiako lizentziatuen artetik aukeratuta. Batzordekide horiek hautagaiak zeintzuk diren aldarrikatu eta gero izendatuko dituzte. Horretarako, barrutian aurkeztutako hautagaizerrenden lurralde-ordezkariek batzordekide izateko kargu horiek beteko dituzten pertsonak zeintzuk izan beharko duten proposatuko dute denek batera. Proposamen hori ez bada egiten hauteskunde-kanpaina hasi baino lehen, Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak proposatuko du izendapena.

2.– Atal honen 1.a) idazatian aipatzen diren Batzordekideek Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeko Lehendakaria euren artetik aukeratuko dute.

3.– Dagokion Lehen-Auzialditarako Epaitegiko Idazkaria izango da Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeko Idazkari eta, bat baino gehiago egonez gero, Epaitegi Dekanokoa.

4.– Udaletako Idazkariak Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeetako Ordezkarik izango dira eta horiekiko menpetasun hertsian ihardungo dute.

23. atala.– 1.– Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordeek kondaira-lurraldeetako hiriburuetan izango dute beren egoitza, eta Eskualdeko epai-barrutietako herriburuetan.

2.– Hauteskundeak egin eta ehun egunen buruan bukatuko da Kondaira-Lurraldeko eta Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeen manualdia.

3.– Euren manualdiak dirauen bitartean hauteskunde berrietarako deia egitea gertatuz gero, Batzordeen aginpidea azken hauteskundeak egin eta ehun egun burutu arte luzatzen dela ulertuko da.

24. atala.– 1.– Autonomi Elkarteko Administaritzak, Lege honen 16. ataleko 1. zatian ohar-temandakoetarako, Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordearen bilkuretara joango den Ordezkaria aurkeratuko du. Ordezkari honek Administaritzak Kondaira-Lurraldeetako Hauteskunde-Batzordeetan izango dituen ordezkariak izandatuko ditu, eta hauei ere Batzorde horien bilkura guztietarako egin beharko zaie dei. Kasu guztietan, hizpidea bai baina ez dute boto-eskubiderik izango.

2.– Halaber, Euskal Herriko Hauteskunde-Erroldeko Idazguaren ordezkari batek eskuhartuko du Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordean, hizpidea bai baina boto-eskubiderik gabe.

25. atala.– 1.– Hauteskunde-Batzordeetako Idazkariek bilkuretan hizpidea izango dute, baina botoa emateko eskubiderik ez.

2.– Idazkariei, bateango ihardutze-erakundeei buruzkoetan Administaritza-Bideari buruzko Legeak izendatzen dizkien egitekoak egokituko zaizkie. Batipat, Batzordearen agiriak gorde eta zaindu beharko dituzte, baita Batzordea deuseztatu ondoren ere, agiri horiek Batzordeak bere egoitza dueneko tegietan gordeta geratzen direla.

26. atala.– Lege honen 27, 28 eta 31.2 ataletan ohartematen diren kasuetan, eta bai arrazoizkoak izan eta Lehendakariak onartutako utzipenezkoetan ere, ondorengo araei atxikiz egingo da Hauteskunde-Batzordeetako kideen ordezkaketa:

a) Lehendakariordeak ordezkatu du Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordeko Lehendakaria; kasu honetan epailaritzatikako batzordekide bat izendatu beharko da, Epaitegi Goreneko Lehendakari berri bat izendatzea gertatzen bada salbu, orduan, 19.1 atalak dioena egingo bait da.

b) Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordeko Batzordekideak eta gainerako Hauteskunde-Batzordeetako Lehendakariak eta Batzordekideak hautatuak izateko modu beretan ordezkatu dira.

c) Antxinatasun-irizpideei jarraiki ordezkatu du Eusko Legebiltzarreko beste Legelari batek Eusko Legebiltzarreko Legelari Nagusia.

d) Kondaira-Lurraldeko eta Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeetako idazkariak antxinatasunaren arabera ordezkatu dira.

27. atala.– 1.– Hauteskunde-Batzordeetako kideak aldaezinak izango dira. Hauteskunde-hogen edo legehauspenen zioz soil-soilik kendu ahal izango dira, batzordekideen erabateko gehien-goaren erabakiz, Goren-Batzordeak beharrezko zehaztapidetza hasiarazi ondoren, dagokion auzibidearen kaltetan gabe.

2.– Batzordeak berak, hori osatzen duten kideen erabateko gehien-goak hartutako erabakiaren indarrez hasiarazitako zehaztapidetza bidez baino ezin izango dira kargutik kendu Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordekideak, dagokion epaibidaren kaltetan gabe.

28. atala.– Hauteskunde-aldiak dirauen bitartean, Lege honen 26. atalean ohartematen diren Hauteskunde-Batzordeetako kideen ordezkaketak egin, heriotza, tasuna galtzea, lan-tokiz aldatzea edo Batzordeko izateko eragozpena, debekua edo elkartuezina dakarren beste edozer gertatutako egunaren hurrengo lau egunetan egingo dira. Hauteskunde-aldiaz kanpo, lehen aipatutako zioetakoren batek hartutako Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordeko kideen ordezkaketa, dagokion Batzordeko Lehendakariak hori jakin eta hamabost eguneko gehieneko epearen barruan egingo da.

BIGARREN SAILA

BATZORDEEN AGINPIDEAK

29. atala.– Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordearen eginkizuna izango da:

- a) Hauteskundeetan zehar askatasun publikoak gauzatzen direla bermatzea.
- b) Autonomia Erkidegoko erakundeen eta Estatuan Autonomia Erkidegoko eremura mugatuta dauden erakundeen baitako komunikabide publikoetan tartekak dohainik erabiltzeko eskubidea ezartzea eta bermatzea, eta tarte horiek banatzea hauteskundearen prozesuan zehar.
- c) Lurralde historikoetako hauteskunde-batzordeek egindako argibide-eskariez erabakitzea (behartze-indarrekoa izanik) eta bere eskumenekoak diren arloei buruzko jarraibideak ematea (derrigorrez betetzekoak izango dira).
- d) Lurralde historikoetako hauteskunde-batzordeek hartutako erabakiak ezeztatzea, bere kabuz edozein unetan, edo interesatuak hala eskatuta lege honen 134. atalean aurreikusitako epeen barruan, erabaki horiek ez badatoz bat Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak hauteskundeari buruzko legeriatik ateratako interpretazioaz.
- e) Bateratzea lurralde historikoko eta eskualdeko hauteskunde-batzordeen interpretazio-irizpideak hauteskunde-arauak aplikatzeko orduan.
- f) Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak proposatuta, hainbat eredu onartzea: eratze-agiriak, zenbaketen egiaztagiriak eta bilkura-agiriak, bai mahaietakoak nahiz lurralde historikoko hauteskunde-batzordeenak. Hautetsiak izendatzeko agiria ere onartuko du. Eredu horiek agiriak kopiak berehala egin ahal izatea ahalbidetu beharko dute, autokopiatu egiten diren dokumentuen bidez edo antzeko beste jardunbide batzuen bidez.
- g) Hauteskundeetako mahaikideentzako argibideen eskuliburua aztertzea.
- h) Arau hauek esaten denaz bat edo eskumena ematen dien beste edozein xedapenetan esandakoaz bat adierazitako kexu, erreklamazio edo errekurtsioez erabakitzea.
- i) Hauteskundeetako eragiketetan modu ofizialean parte hartzen duten pertsona guztien zigor-jurisdikzioa izatea.
- j) Sortzen diren arau-hausteak zuzentzea, baldin eta hori egiteko lana epaitegien esku utzi ez bada, eta egoki irizitako isunak jartzea, 2.700 eurora arte, salbu eta lege honen 87.7, 132. eta 132. sexies artikuluetan ezarritako kasuetan.
- k) Lege honen 12.2 atalak dioenaren arabera, hauteskundeak egin eta 100 egun igaro ondoren, ezintasunagatik, uko egiteagatik edo heriotzagatik bakanteren bat izaten bada, eusko legebiltzar-kideei izendapen-agiriak ematea.

l) Legeak edo hauteskundearen arloko beste edozein arauk emandako gainerako eginkizunak.

30. atala.– 1.– Lurralde historikoko eta eskualdeko hauteskunde-batzordeek, beren lurralde-eremuan, ondoren aipatzen diren eskumenak izango dituzte:

- a) Hauteskundeetan zehar askatasun publikoak gauzatuko direla bermatzea.
- b) Arau hauek esaten denaz bat edo eskumena ematen dien beste edozein xedapenetan esandakoaz bat adierazitako kexu, erreklamazio edo errekurtsioez erabakitzea.

c) Hauteskundeetako eragiketetan modu ofizialean parte hartzen duten pertsona guztien zigor-jurisdikzioa izatea.

d) Sortzen diren arau-haustea zuzentzea, baldin eta hori egiteko lana epaitegien esku utzi ez bada, eta egoki iritzitako isunak jartzea; isunok 1.200 eurora artekoak izango dira, lurralde historikoko hauteskunde-batzordeen kasuan, eta 600 eurora artekoak eskualdeko hauteskunde-batzordeen kasuan. Hauteskunde-batzorde horiek gaiaren larritasunagatik beren eskumenekoak baino zehapen handiagoa behar duten jokabideen berri izaten badute, hierarkikoki gorago dagoen hauteskunde-batzordeari jakinarazi ahal izango diote, salbu eta lege honen 66, 87.7, 132. eta 132. sexies artikuluetan ezarritako kasuetan.

Adierazitako isunak ordaindu ezean, dagokion hauteskunde-batzordeak zorpekoaren egiaztagiria igorriko dio dagokion foru-aldundiaren organo eskudunari isuna premiamendu-bidetik ordainarazteko.

e) Legean berriaz aipatzen diren gainerako eskumen guztiak.

2.– Gainera, lurralde historikoetako hauteskundebatzordeek, Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak duen irizpide nagusia kontuan izanda, beste aukera hauek ere izango dituzte:

a) Derrigorrez betetzeko jarraibideak ematea eskualdeetako hauteskunde-batzordeei, hauteskundeekin zerikusia duen edozein arlotan.

b) Eskualdeetako hauteskunde-batzordeek eskatutako argibide guztiez erabakitzea; erabakia behartze-indarrekoa izango da.

c) Eskualdeetako hauteskunde-batzordeek hartutako erabakiak indarrrik gabe uztea beren kabuz edozein unetan, edo interesatuak hala eskatuta lege honen 134. atalean aurreikusitako epeen barruan, lurralde historikoko hauteskunde-batzordeak egindako interpretazioaz ez baldin badatoz bat erabaki horiek.

d) Eskualdeetako hauteskunde-batzordeek testuak ulertzeko izango dituzten irizpideak bateratzea hauteskundeei buruzko edozein arlotan.

3.– Eskualdeko hauteskunde-batzordeak bermatu beharko du hauteskunde-mahai bakoitzean badaudela botoa emateko beharrezko tresna eta osagaiak.

HIRUGARREN SAILA

ERAKUNTZA ETA IHARDUNAK

31. atala.– 1.– Kondaira-Lurraldeko eta Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeak, hasieran, hauteskundeetarako deia egin ondorengo hirugarren egunean epailaritzatikako kideez eratuko dira.

2.– Batzorde hauetako kide izatekoetakoren batek hauteskundeetara aurkezteko asmoa badu, hasierako erakuntzan jakinarazi beharko dio dagokion Idazkariari, horren ordezkaketa egin dadin, eta hori gehienez lau eguneko epearen barruan egingo da.

3.– Aurreko zenbakian esaten diren orkezkaketak behar izanez gero egin ondoren, Lehendakaria hautatuko da. Biharamonean, Kondaira-Lurraldeko eta Eskualdeko Batzordeetako Lehendakariak, dagokien Kondaira-Lurraldeko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dute Batzordearen erakuntza eta osatze-modua ezagutzera emateko erabakia, eta batzordekide bakoitza hor zergatik dagoen zehaztu beharko da.

4.– Idazkariak egingo dute Batzorde hauen eratze-bilkuretarako deia. Horretarako, Epai-Agintaritzako Kontseilu Nagusiak eta, hala badagokio, Auzitegiko Lehendakariak, dagokion Batzordeko kideen zerrenda jakinaraziko dio haietako bakoitzari.

32. atala.– Euskal Hauteskunde-Administraritzaren ihardutze-sailen erakuntzarako eta ihardunerako jaurpideak Lege honetan oharmandakoak izango dira, eta, horien ezean, Administraritzza-Bideari buruzko Legean bateango ihardutze-sailentzat oharmandakoak.

33. atala.– 1.– Aginduz edo bi Batzordekideek eskatuta, Lehendakariak egingo dute Hauteskunde-Batzordeen bilkuretarako deia. Lehendakariak arrazoizko zioenategatik deiak egiterik izango ez balu, Idazkariak ordezkaturako du aginpide horretan.

2.– Ezein bilkura baliozkoa izan dadin, Kondaira-Lurraldeko eta Eskualdeko Batzordeetako hiru kide gutxienez bertan izatea nahi eta nahiezkoa izango da. Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordea bada, sei kidek izan beharko dute bertan.

3.– Dei guztiak, eskuraketa eta deiaren gai den bilkuraren eguna, gai-zerrenda eta gainerako gorabeheren berri jaso delako segurtasuna izateko moduko ezein bidetatik egingo dira. Behar bezala dei egin zaien Batzordekideek nahitaez agertu beharko dute bilkuretara, arrazoirik eta zuri-biderik garaiz adierazi gabe agertzen ez badira erantzukizunak eskatuko zaizkiela.

4.– Aurreko zenbakietan esandakoa dena dela, kide guztiak bertan egon eta bilkura egitea ahobatez onartzen badute, Batzordea ezein arazo aztertze deia egindakotzat eta balioz eratu-takotzat joko da.

5.– Erabakiak bertan daudenen boto-gehiengoz hartuko dira, Lehendakariaren botoa ebazte-indarrekoa dela.

34. atala.– 1.– Hautatzaileek, bere egoitzari dagokion Eskualde-Batzordeari egin beharko dizkiote bere argipide-eskeak.

2.– Hauteskunde-barruti bati baino gehiagori doazkiekeen arazo orokorrak izan daitezenean, politika-alderdi, batasun edo baterakunde eta hautatzaile-bazkunek Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordeari aurkeztu ahal izango dizkiote bere argipide-eskeak. Gainerakoetan, dagokien Kondaira-Lurraldeko Batzordeari edo Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeari egingo dizkiote argipide-eskeak, baldin eta argipide-eskegilearen aginte-eremua Batzorde horren agintepekoa bada.

3.– Herri-Agintari eta Erakundeek, iritzi-eskearen aginte-eremua bere agintepean izan dezan Batzordeari artez egin ahal izango dizkiote bere argipide-eskeak.

35. atala.– 1.– Argipide-eskeak idatziz egongo dira eta horiek hartu ditzan Batzordeak ebatziko ditu, bere iritzi garrantzitsua delako edo orokortasun-irizpidez erabakitzeari komenigarri deritzalako Goragoko mailako Batzorde bati bidaltzea erabaki dezanean salbu.

2.– Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordeak, irizpide-batasuna lortzeko, ebatzi ditzan eta Kondaira-Lurraldeetako Batzordeei egin dakizkien aholku-eskeen eremuan eragina izan dezaketen gai buruzkoak izan daitezten aholku-eske guztiak Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordeei jakinarazi beharko dizkie.

3.– Aholku-eskearen presak Hauteskunde-Batzordeari bilkurarako deia egiteko astirik eman ez, eta lehendik ere Batzorde horretxan edo Goragoko Baten horretazko kideko erabakiak egon daitezenean, Lehendakariak erantzukizuna bere gain hartuz, behin-behingo erantzuna eman ahal izango du, hori Batzordeak egin dezan lehenengo bilkuran sendestearen edo aldatzearen kaltetan gabe.

36. atala.– 1.– Egin zaizkien eta ebatzi ditzaten aholku-eskeen orokortasunak hori komenigarri egin dezanetan, Hauteskunde-Batzordeek, bere Lehendakariaren aginduz hartutako erabaki horiek edo aholku-eskeen edukia iragarri egin beharko dituzte. Nolanahi ere, Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordearenak izan eta Kondaira-Lurraldeetakoei jakinarazi zaizkienak beti argitaratu egingo dira.

2.– Argitalpena, kasu guztietan, Euskal Herriko Agintaritzan Aldizkarian egingo da, eta Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordeen edo Eskualdekoen erabakiak direneta, baita dagokion Kondaira-Lurraldeko Aldizkari Ofizialean ere.

3.– Nolanahi ere, Autonomia Erkidegoko Hauteskunde-batzordearen akordioak, euskaraz zein gaztelaniaz idatzita, web orri batean sartuko dira, ondorio hauetarako gaituko dena.

III. ATALBURUA

HAUTESKUNDE-SAILAK ETA MAHAIK

LEHENENGO SAILA

HAUTESKUNDE-SAILAK

37. atala.– 1.– Hauteskunde-barruti bakoitzean hautatzaileak, botoa emateko, Hauteskunde-Sailka eratuko dira.

2.– Sail bakoitzak, gehienez, bi mila hautatzaile eta, gutxienez, bostehun hautatzaile izango ditu. Udal bakoitzean Hauteskunde-Sail bat egongo da gutxienez.

3.– Ez da udalerrri ezberdinetako aldeak hartzen dituen Sailik izango.

4.– Sail bateko hautatzaileak alfabetoaren arabera hurrenkeran egongo dira hautatzaile-zerrendetan.

38. atala.– 1.– Hautatzaile-Erroldaren Idazguko Ordazkaritzek, Udalei entzun ondoren, Hauteskunde-Sailen zenbatekoa eta mugak, horien Tegien eta dagozkien Mahaien zerrenda, deia egin ondorengo seigarren egunean, dagokion Kondaira-Lurraldeko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dute.

2.– Hautatzaileek, hurrengo sei egunen barruan, egindako mugapenaren aurkako zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordearen aurrean, eta honek horiei buruzko erabaki finkoa hartuko du bost egunen barruan hartuko du. Esandako erabakia Kondaira-Lurraldeko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da berrogeita zortzi orduko epearen barruan.

3.– Hauteskundeetarako atal, mahai eta lekuen behin betiko zerrenda, euskaraz eta gaztelaniaz, Hauteskundearen Araubide Orokorri buruzko Lege Organikoko 24.4 artikuluan aurreikusitakoa jarraituz argitaratuko da.

39. atala.– Udalek, Hauteskunde-Sail eta Mahai guztiei dagozkien tegiak non dauden behar bezala erakusteko iragarkiak jarri beharko dituzte.

BIGARREN SAILA

HAUTESKUNDE-MAHAIK

40. atala.– Boto-emanketetan buru izatea eta horiek antolatzea, boto-kontaketa egitea eta boto-emanketaren egunean Hauteskunde-Legea bete dadinaz arduratzea izango dira Hauteskunde-Mahaien egitekoak.

41. atala.– 1.– Hauteskunde-Sail bakoitzean, Lehendakari batek eta bi Mahaikidek osatutako Hauteskunde-Mahai bana izango da.

2.– Hala ere, Sail bateko hautatzaileen zenbatekoagatik edo biztanlegoa barreiatu dagoelako aholkagarri gertatuz gero, Hautatzaile-Erroldako Idazguaren Ordazkaritzak, dagokion Udalaren saloz, Mahai gehiago eratu eta Saileko hautatzailegoa horien artean banatu ahal izango du. Lehenengo kasukoan, Saileko hautatzailegoaren banaketa Mahaien artean alfabetoaren hurrenkeran egingo da; Mahai hauek, ahal bada, tegi baten bertan gela bereizietan jarri beharko dira. Barreiatutako biztanlegoarekikoan, hautatzailearen egoitzatik dagokion Mahairako alderik txikienari begira egingo da banaketa. Mahai bakoitzari atxikitako hautatzaileen zenbatekoa ez da inolaz ere berrehunetik beherakoa izango.

42. atala.– 1.– Hauteskunde-Mahaietako Lehendakari eta Mahaikide-karguak nahitaezkoak izango dira.

2.– Ezingo dute Hauteskunde-Mahaietako izan:

- a) Hauteskunde-Batzordeetako kide izan daitezenez.
- b) Hauteskundeetara hautagai gisa aurkeztu daitezenez.
- c) Hauteskunde-bidezko edo aukerango izendapenezko herri-kargudunek.
- d) Bere herri eta politika-eskubideak erabat indarrean izan ez ditzatenek.

3.– Hauteskunde-mahaietan titular edo ordezkoko gisa parte hartzerik ez dutela adierazteko aukera izango dute, aurretiaz justifikazio dokumentatua edo, hala behar duenean, medikuaren egiaztagiria aurkezturik, ondorengoek:

- a) Gaixorik edo ospitalean diren pertsonak.
- b) Hauteskunde-barrutitik kanpora bizi direnak.
- c) Itsasoan direnak.
- d) Lege honetan ezarritakoaren arabera hautaezinak direnak.
- e) Haurdunaldian seigarren hilabetetik aurrera eginda dauden emakumeak eta amatasun-atse-denaren aldia daudenak.
- f) Bederatzi hilabetera arte haurra edoskitzen ari direnak.
- g) Hirurogeita bost urte dituztenak edo hortik gorakoak.
- h) Beste edozein, ezina zurrizko arrazoiren bat badu eta agiri bidez frogatzen badu.

4.–Aurrekoidazatietan aipatutakoren bat Mahaikide hautatzen badute, dagokion Eskualde-Batzordeko Lehendakariari jakinaraziko dio, ordezkoa jarri dezan.

43. atala.– 1.– Udalei egokituko zaie Mahaiak eratzea, Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeen ikuskaritzapean.

2.– Mahai bakoitzeko lehendakaria eta kideak zozketa publiko bidez aukeratzen dira kasuan kasuko mahaiko hautesle-zerrendan ageri diren guztien artetik, baina irakurtzen eta idazten jakin eta hirurogeita hamar urte baino gutxiago dutenak izan beharko dute. Hirurogeita bost urtetik gorakoek uko egin ahal izango diote karguari zazpi eguneko epean. Mahaiko lehendakariak Batxilergoko titulua edo Lanbide Heziketako Bigarren Mailako titulua izan beharko du gutxienez, edo halakorik ezean Eskola Ziurtagiria edo horren baliokidea.

3.– Modu berean egingo da Mahaiko kide bakoitzarentzako bi ordezkoen izendapena.

4.– Lehen esandako zozketak deia egin ondorengo hogeita boskarren eta hogeita bederatzigarren egunen artean egingo dira.

44. atala.– 1.– Izendapena egin eta hurrengo hiru egun igaro baino lehen, horren berri eman beharko zaie interesdunei. Jakinarazpenarekin batera, mahaietako kideei jarraibide-liburu bat emango zaie beren eginkizunei buruz euskaraz eta gaztelaniaz. Hauteskunde-mahaietako lehendakari eta bokal izendatu dituztenek zazpi eguneko epea izango dute eskualdeko hauteskunde-batzordean adierazteko zergatik ezin duten kargua onartu, arrazoia justifikatua eta dokumentatua izan beharko delarik. Batzordeak gaiari buruzko erabakia hartzeko bost eguneko epea izango du, eta ezingo da errekurtsorik jarri erabakitakoaren aurka. Dena delako pertsona ordezkatu beharra dagoela erabakitzen badu, horren berri emango dio lehen ordezkoari. Eskualdeetako Hauteskunde-batzordeek, labur bada ere, azaldu egin beharko dute zergatik ez dituzten onartu dena delako pertsonak mahaiko kide ez izateko emandako arrazoiak.

2.– Gero, hautatutakoren bati bere kargua betetzera joan ezina gertatuko balitzaio, Eskualde-Batzordeari, dagokion iharduna baino hirurogeita hamabi ordu lehenago gutxienez jakinaraziko beharko dio, beharrezko zuziztagiriak atxikiz. Ezina epe horretaz gero gertatuko balitz, Batzordeari gaztigua bertan-behera egin beharko zaio eta, beti ere, Mahaia eratzeko ordua baino lehenago. Kasu hauetan, Batzordeak, denborarik egonez gero, egoeraren berri emango dio dagokion ordezkoari eta, beharrezko balitz, beste bat izendatuko du.

3.– Lege honen 122.2 atalak dioenaren ondorioetarako, Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeek, dagozkien Epailariei, Hauteskunde-Mahaietako berenezko kide eta ordezkoen nortasun-xehapenak boto-emanketako eguna baino lehen emango dizkiete.

45. atala.– Hauteskunde-Mahaipuru edo Mahaikidetarako izendatutako inoren konturako langileek eta herrilariak, boto-emanketako eguna, lan-egun bada, egun horretako lanaldirako ordaindutako baimena izateko eskubidea izango dute. Dena dela, biharamonean lan-eguna bost orduz gutxitzeko eskubidea izango dute.

IV. IDAZPURUA

HAUTESKUNDEETARAKO DEIA

46. atala.– 1.– Lehendakariak emango du deia egiteko Dekretua, indarreango Jaurlaritza-Legean agintzen denaren arabera.

2.– Eusko Legebiltzarra garaiz-aurretik deusezteari buruz indarreango Jaurlaritza-Legean berariz oharretematen direnetan salbu, hauteskundeetarako deia egitezko Dekretua Eusko Legebiltzarren manu-aldia bukatu aurretiazko hogeita boskarren egunean egingo da, aldi hori egin ziren balio bereko hauteskunde-egunetik lau urtera izango dela ulertzen dela, eta hurrengo egunean argitaratuko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

3.– Dekretuan zehaztuko da bozketa noiz izango den; hain zuzen ere, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, berrogeita hamalaurerren egunean izan beharko da.

4.– Argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean hauteskundeetarako deialdiaren dekretua.

47. atala.– 1.– Hauteskunde-mahai bakar batean edo batzuetan baliogabetzea eragiteko moduko irregulartasunak izan eta berriz zatikako hauteskundeak egiteko, hauteskunde-mahai edo sekzio bateko edo batzuetako hauteskundeak baliorik gabekotzat jota egon beharko dira epai irmoaren bidez. Dena den, hauteskunde-mahai, sekzio bakar edo sekzioren batzuetan bozketa baliorik gabekotzat jotzeak ez du eragingo mahai horietan berriz hauteskundeak egitea, gune horietako emaitzek ez badute eragiten kasuan kasuko barrutiko ordezkarien banaketa aldatzea.

2.– Zatikako hauteskunde deialdia dekretu bidez egingo da, eta hala erabaki beharko du Jaurlaritzaren Batzarrak epai irmoaren berri izan eta hurrengo egiten duen lehenengo bileran. Zatikako hauteskundeak epai irmoa eman den egunetik hasi eta hiru hilabete baino lehen burutu beharko dira, eta botoa emateko ekintza hutsera mugatu ahal izango dira.

V. IDAZPURUA

HAUTESKUNDE-BIDEA

I. ATALBURUA

HAUTAGAIEN AURKEZPENA ETA ALDARRIKAPENA

LEHENENGO SAILA

HAUTESKUNDE-ADMINISTRARITZAREN AURREKO ORDEZKARIAK

48. atala.– 1.– Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetara aurkeztu nahi duten alderdi, baterakunde, batasun eta bazkunek Hauteskunde-Administraritzaren aurrean beren izenean ihardutzeko ordezkariak hautatuko dituzte.

2.– Ordezkariorokorre aurkezten diren alderdi, baterakunde eta batasunen izenean ihardungo dute Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordearen aurrean. Hautatzaile-bazkun sutzatzaileak bazkun horien ordezkari orokor izango dira, eta berorien izenean ihardungo dute Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordearen aurrean.

3.– Hautagai-zerrenden lurralde-ordezkariek zerrenda horietako hautagaien ordezkari izango dira eta, hautagai-zerrendaren izenean, Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordearen oharpen guztiei men egin eta somatu daitezten akats edo oker guztiak zuzentzeko bere laguntza emateko eskubidea eta egin beharra izango dute, eta hautagaiak, hautagai-zerrenda onartze hutsarengatik,

hauteskunde-gaietako auzibideetan iharduteko esku ematen ematen diete. Ordezkarien erabakiek hautagai-zerrenda behartu egingo dute lege-aldetik.

4.– Alderdi eta baterakunde bakoitzak ordezkari orokor bana eta ordezeko beste bana hautatuko dituzte, idatziz, Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordearen aurrean, hauteskundeetarako deia egin eta zortzi egunen barruan. Batasunek dei hori egin ondorengo hamar egunen barruan egingo dute. Idatzi horretan hautatutakoen onarpena adierazi beharko da. Ordezkoak ordezkari orokorra kanpoan izatea, hiltzea edo ezinduta gelditzea gertatuz gero baino ezin izango du jokatu.

5.– Ordezkari orokor bakoitzak, idatziz, deia egin eta hamar egunen barruan, Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordearen aurrean, bere alderdi, baterakunde eta bazkunak hauteskunde-barruti bakoitzean aurkez ditzan hautagai-zerrendetako lurralde-ordezkariek eta dagozkien ordezekoak hautatuko ditu. Idatzian hautatutakoen onarpena adierazi beharko da. Ordezkoek lurralde-ordezkariek kanpoan izatea, hiltzea edo ezinduta gelditzea gertatuz gero baino ezin izango dute jokatu. Ordezkari hauek eta hauen ordezekoek hautagai-zerrenda aurkezten deneko barrutian izan beharko dute beren egoitza.

6.– Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordeak bi eguneko epearen barruan jakinaraziko dizkie Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordeei hauen barrutiko hautagai-zerrendetako lurralde-ordezkarien izenak.

7.– Hautatzaile-bazkunen suztatzaileek hautagai-zerrendak Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordeen aurrean aurkezteko unean bertan hautatuko dituzte beren zerrenden lurralde-ordezkariek eta hauen ordezekoak. Hautaketa horiek orduan bertan onartu beharko dira.

8.– Hautagai-zerrendetako lurralde-ordezkariek, boto-emanketako eguna baino zazpi lehenago artekoan, idatziz, eskudun bat eta bi ordezeko gehienez izendatu ahal izango dituzte, Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeen aurrean. Idatzian izendaturiko eskudunen eta ordezekoen onarpena adierazi beharko da. Eskudunek hautagai-zerrendako lurralde-ordezkariek dituen ahalmenak eurak izango dituzte dagokien Eskualdeko Hauteskunde-Batzordearen aurrean.

BIGARREN SAILA

HAUTAGAI-ZERRENDEN AURKEZPENA

49. atala.– 1.– Honako hauek eskuhartu ahal izango dute Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan, hautagaien edo hautagai-zerrenden aurkezpena egin ondoren:

a) Politika-alderdiei buruzko legeetan horretarako oharmandako Erroldean izena emandako politika-alderdi eta baterakundeek.

b) Aurreko idatzian aipatutako alderdi eta baterakundeek hauteskundeetarako egindako batasunek.

c) Hauteskunde-barruti bateko hautatzaileen bazkunek.

2.– Hauteskundeetara batera aurkezteko batasun-itunea egin dezaten alderdi eta baterakundeek Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordeari jakinarazi beharko diote, deia egin eta hamar egunen barruan. Jakinarazpen horretan batasunaren izena, jaurpide izango dituen arauak eta horren zuzendaritza edo koordinazioko ihardutze-saileko buru direnak adierazi beharko dira. Batasunak hautagai-zerrendak Kondaira-Lurralde baten baino gehiagotan aurkezten baditu, jakinarazpen hori Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordeari adierazi beharko zaio.

50. atala.– 1.– Hautagai-zerrenden lurralde-ordezkariek edo hautatzaile-bazkunen suztatzailerik beren hautagai-zerrendak, deia egitezko Dekretua Euskal Herriko Agintaritza-Aldizkarian argitaratu eta hamaboskarren eta hogeigarren egunen arteko aldian, bi egunok barne, aurkeztuko dizkiote Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordeari.

2.– Aurkezpen-idazkian honako hauek zehaztuko dira:

a) Hauteskunde-egiteraldian ezin aldatuko diren izena, izenlaburrak eta ezaugarri-ikurra. Ez dira onartuko:

– legez eraturiko beste alderdienekiko edo ohiz erabili dutenekiko nahaspide izan daitezkeen;

– Euskal Herriaren, kondaira-lurraldeen, udalen edo horietako erakunde nahiz sailletako harmarria, ikurrina, irudiak eta bestelako ikurrak izan ditzaten edo horiek bezalako izen, izenlabur edo ezaugarriak.

b) Hautagaien eta ordezkoen izen-abizenak, eta, hala egokituz gero, goitizena edo ezizena, helbide zehatza, baita zerrenda bakoitzean kokapen-ordena ere. Hauteskundeetarako federazioak edo koalizioak izan daitezenean, hautagaiaren izenaren ondoren zein alderdi edo federaziotakoa den berariaz zehaztu ahal izango da, alderdi edo federazio hori barruti berean zerrenda propioarekin aurkezten ez bada. Hautagaien izenekin batera independente egoera jaso daiteke.

c) Kondaira-Lurraldeko hiriburuan bizi den hautagai-zerrendako lurralde-ordezkariekin izen-abizenak. Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordeek ordezkariarekin izango dituzte harreman guztiak, ez beste inorekin.

d) Hautagai-zerrendan sartzea onartzen delako egiaztapen-agiria, hautagai eta ordezko bakoitzak izenpetuta, eta baita Autonomi Elkarte osoan zerrenda batean baino ez dagoelako adierazpena, eta hautagai izateko baldintza guztiak betetzen dituelakoarena ere. Adierazpenak Estatuko Nortasun-Txartelaren aldakia eramango du berebaitan.

e) Hautagaia Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Hautatzaile-Erroldean sartuta dagoelako egiaztagiria. Esandako Erroldeko zerrendetan ez agertzea gertatuz gero, Autonomi Elkarteko ezin Udalerritan administrazio-egoitza duelako egiaztagiria eraman beharko da. Eta Autonomi Estatutuaren 7. atalaren 2. idazatiak hartzen dituenentzat, legezko euskalduntasuna ematen duten gainontzeko baldintzak betetzen dituztelako adierazpena.

3.– Politika-alderdiek, baterakundeek eta batasunek aurkeztu ditzaten zerrendek euren lurralde-ordezkariek izenpetuta egon beharko dute. Hautatzaile-bazkunak izan daitezenean, horien suztatzailerik izenpetuta.

4.– Alderdi politikoez, federazioez, koalizioez edo hautesleen elkarteek aurkezten dituzten hautagai-zerrendetan, % 50, gutxienez, emakumeak izango dira. Proporzio hori hautagai-zerrenda osoan eta sei izeneko tarte bakoitzean mantenduko da. Lurralde historikoko hauteskunde batzorde eskudunek, inola ere, artikulua honetan hautagaien nahiz ordezkoen kasuan ezartzen dena betetzen duten hautagai-zerrendak baino ez dituzte onartuko.

5.– Aurreko paragrafoan adierazitakoari dagokionez, hautagai-zerrendek jarraipen bat osatzen dute, eta ordezkoek, berriz, zerrendako 25 zenbakiko titularrarekin, gehienez, sei izeneko zati berri bat, zerrenda bakoitzak dituen ordezko-kopuruaren arabera; zati horri ere % 50eko kuota aplikatu behar zaio, aurreko zatiei bezala.

51. atala.– 1.– Ezein hautagaik edo ordezkarik ezingo du zerrenda bakar batean baizik egon edo hauteskunde-barruti bakar batetik baizik aurkeztu.

2.– Ezein politika-alderdi, baterakunde, hauteskunde-batasun edo bazkunek ezingo du hauteskunde-barruti berean hautagai-zerrenda bat baino aurkeztu.

3.– Baterakundeen edo batasunen batean sartutako ezein taldek ezingo du bera osakide deneko baterakundeak edo batasunak hautagai-zerrenda bat aurkeztutako hauteskunde-barrutian bere berenezko hautagai-zerrendarik aurkeztu.

52. atala.– Zerrendek bete behar diren legebiltzar-toki hainbat hautagai izan beharko dituzte eta, gainera, hiru ordezeko, gutxienez eta bost gehienez. Ez da baldintza hori bete ez dezan zerrendarik onartuko.

53. atala.– 1.– Hautatzaile-bazkunak hauteskunde-barruti bakar baterako eratuko dira. Hauteskunde-ekintzaldian beste hauteskunde-barruti batzuetako beste hautatzaile-bazkunekin ihardun ahal izango dute batean, beste inorekin ez.

2.– Hauteskunde-bazkun bat sortarazteko, dagokion hauteskunde-barrutiko hautatzaile-erroldean sartutako ehuneko batekoen izenpeak gutxienez beharko dira. Hautatzaile bakoitzak ezingo dio laguntza hori hauteskunde-bazkun bakar bati baino eman.

3.– Legez eskatzen den izenpe-zenbatekoa eta izenpetzaileen nortasuna herri-sendesle baten aurrean izenpetutako onespren-idazki baten bidez egiaztatuko da Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordearen aurrean.

4.– Hautatzaile-bazkunek ezingo dituzte politika-alderdiek nahiz baterakundeek bere dituzten ikur eta ezaugarriak erabili.

54. atala.– 1.– Bigarren Sail honetako agiripaper guztiak jatorrizko agirietan aurkeztuko dira.

2.– Lurralde historikoko hauteskunde-batzordeek agiri guztien kopia bat egin eta Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordera bidaliko dute. Agiri horien jatorrizkoa lurralde historikoko hauteskunde-batzordeen zaintzapean geratuko da.

55. atala.– 1.– Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordeko Idazkaritzak, aurkezpena egin deneko eguna eta ordua erasota izan ditzan biderapen-agiria egin, eta hartu duelako egiaztagiria emango du.

2.– Idazkariak, hautagai-zerrenda bakoitzari aurkezte-hurrenkeraz dagokion zenbakarrena jarriko dio. Zenbakarren horri argitalpen ofizial guztietan eta Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzorde bakoitzeko agiri-sortan eutsiko zaio.

HIRUGARREN SAILA

HAUTAGAI-ZERRENDEN IRAGARPENA

56. atala.– 1.– Hautagai-zerrendak aurkezteko epea bukatu eta biharamonean, Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordeko Lehendakariak horiek Euskal Herriko Agintaritza-Aldizkarian argitaratu daitezela aginduko du eta, epe beraren barruan, agirisortaren kopia bat, Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordeari bidaliko dio.

2.– Hauteskunde-barruti guztietako hautagai-zerrendak, hautagai zerrendok aurkezteko epearen azken egunaren ondorengo bigarren egunean iragarriko dira. Egun horretantxe argitaratuko dira Euskal Herriko Agintaritza-Aldizkarian.

3.– Hautagai-zerrendak aurkezteko epea bukatu dadin egunaren biharamonean, hautagai-zerrenda guztiekiko agirisorta Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordeek ihardun diharduten tegietan egongo da, hauteskundeetara aurkezten diren hautagai-zerrenden lurralde-ordezkariek ezagutu, eta hala egokituz gero, jazarri dakizkion.

LAUGARREN SAILA

HUTSEN ZUZENKETA ETA JAZARPENAK

57. atala.– 1.– Hautagai-zerrendak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo lau eguneko epearen barruan, Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordea bilduko da, hauteskunde-barruti batetik baino gehiagotatik aurkezten den hautagairik ez dagoela egiaztatzeko eta, hala behar izanez gero, Lege honen 59. atalean oharrematen denaren arabera, doakionari gorabehera horren berri emateko.

2.– Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordeak hautagai-zerrendak aurkezteko epea bukatu dadin egunaren biharamonean bilduko dira, aurkeztutako agiri-sorta aztertzeko. Soma-tutako arauzkontrakotasunak hautagai-zerrendaren lurralde-ordezkaritari adieraziko zaizkio, hautagai-zerrendak argitaratzen hasi eta bi eguneko epearen barruan. Ordezkariek bi eguneko epea izango du gora jo edo hutsak zuzentzeko.

58. atala.– 1.– Hauteskundeetara aurkezten diren hautagai-zerrenden lurralde-ordezkariek hautagai-zerrendei jazarri ahal izango zaizkie, Euskal Herriko Agintaritza-Aldizkarian argitaratu eta bi eguneko epearen barruan.

2.– Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordeak, epe horren barruan, jazarpena egin zaion hautagai-zerrendaren ordezkaritari jakinaraziko dio, bidezko deritzan aldepena egin dezan. Jazarpena egin zaion hautagai-zerrendaren lurralde-ordezkariek bi eguneko epea izango du zuzenketak egiteko.

59. atala.– 1.– Hautagaien bat edo ordezkoen bat barruti batzutatako zerrendetan agertzea gertatuz gero, Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordeak, agindu-bidez edo doakionen batek eskatuta, zerrendetako bat aukeratu dezaneko eskea egingo dio hautagaiari. Barruti bateko zerrenda batean baino gehiagotan agertzea gertatuz gero, modu berean ihardungo du dagokion Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordeak.

2.– Behin-betiko aldarrikapena baino lehenago aukera hori egin ez badu, ordezko gisa agertu dadineko zerrendatik edo zerrendetatik kendu egingo da. Zerrenda baten baino gehiagotan hautagai gisa agertzen bada, zerrenda guztietatik kenduko da.

BOSKARREN SAILA

HAUTAGAIEN ALDARRIKAPENA

60. atala.– Hauteskundeetarako deia argitaratu eta hurrengo hogeita zazpigarren egunean, Kondaira-Lurraldetako Hauteskunde-Batzordeek hautagaien aldarrikapena egingo dute.

61. atala.– 1.– Ondoren esaten diren zertzeladako bat gerta dadinean, Hauteskunde-Batzordeek ez dute hautagai-zerrenden aldarrikapenik egingo:

a) Epez kanpo aurkeztu daitezenean.

b) Beharrezkoa den hautagai-zenbatekorik ez dutenean.

c) Idazpuru honen Bigarren Sailean jarritako baldintzetakoren bat betetzen ez denean.

2.– Zuzendu gabe utzitako akatsak hautagaiei baino ez dagozkienengan, horiek kendu eta zerrendaren aldarrikapena egingo du, hori eginez gero aurreko zatiko b) idazatian esandakoa gertatzen bada salbu, orduan ez bait du hautagai-zerrendaren aldarrikapenik egingo.

62. atala.– Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordeak aldarrikatutako hautagai-zerrendak biharamonean argitaratuko dira Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

63. atala.– 1.– Zerrendak behin-betiko aldarrikatu ondoren ez da horietan inolako hurrenkera-aldakuntzarik onartuko. Aldakuntza, baliozkoa izan dadin, hautagai-zerrenda izenpetzen duenari jakinarazi beharko zaio.

2.– Hautagaiek, hauteskunde-ekintzaldiaren hasiera artekoan, hautagai-zerrendan egotetik atzera egin ahal izango dute. Atzera egite hori Euskal Herriko Agintaritza-Aldizkarian argitaratuko da.

64. atala.– 1.– Atzera egitezko idazkia Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordeari bidaliko zaio.

2.– Atzera egiten duenak berenez aurkeztu beharko du, atzera egitezko idazkiarekin batera hautagai-zerrendaren lurralde-ordezkariari sinistertzeko indarrez jakin-arazi zaiolako egiaztagiria eramanez edo, hala badagokio, hautagai-zerrendaren lurralde-ordezkaria lagun daramala.

3.– Atzera egitezko idazkia Batzordeko Idazkariari eskuratuko zaio.

65. atala.– 1.– Honako hauetan egingo da ordezkaketa:

a) Hil izanagatik.

b) Atzera egin izanagatik.

c) Aldarrikapenetik boto-egunerarteko aldian hautaezina gertatu izanagatik.

d) Hautagai bat kentzea darion akats bat zuzendu izanagatik.

2.– Ordezkaketa egin dadinetan, zerrendan geratutako toki hutsa, zerrendako hurrengo hautagaiak edo ordezkoak beteko du.

66. artikulua.– Lurralde historikoetako hauteskunde-batzordeek 2.700 euro arteko isuna jarriko diete alderdi, federazio, koalizio eta hautesle-elkarteei, eta hala badagokio hautagaiei, baldin eta hautagai-zerrendak aldarrikatu ondoren zerrenda osoa hauteskundeetatik kentzen badute.

SEIGARREN SAILA

HAUTAGAIEN ETA HAUTAGAI-ZERRENDEN ALDARRIKAPENAREN AURKAKO JAZARPENAK

67. atala.– 1.– Aldarrikapena egitetik aurrera, bazter geratutako ezein hautagaik eta aldarrikatutako edo aldarrikapena ukatu zaien hautagai-zerrenden lurralde-ordezkariak bi eguneko epea izango dute Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordeen aldarrikatze-erabakien aurkako jazarpena Administrazio-Auzipidetarako Auzitegiaren aurrean egiteko. Jazarpena aurkeztekoan bertan aurkeztu beharko dituzte, bidezko egiaztapideekin batera, bidezko eritzitako aldezenak.

2.– Aurreko idazatian oharrematen den jazarpena egiteko aldia aldarrikatutako hautagaiak argitara daitezenez hasiko da kontatzen, bazter utzi denaren edo direnen ordezkariari arauzko jakinarazpena egitearen kaltetan gabe.

3.– Epai-erabakia jazarpena egin ondorengo bi egunen barruan eman beharko da eta sendo eta gora jo-ezinekoa izango, Konstituzio-Auzitegiaren aurreko babes-ihardupidearen kaltetan gabe. Azken honetarako, atal honetan araupetzen den jazarpenaz betetakotzat joko da Konstituzio-Auzitegiari buruzko Oinarrizko Legearen 44.1.1) atalean jarritako baldintza.

4.– Babes-eskea bi eguneko epearen barruan egin beharko da, eta Konstituzio-Auzitegiak hurrengo hiru egunen barruan eman beharko du horri buruzko erabakia.

II. ATALBURUA

HAUTESKUNDE-EKINTZALDIA

LEHENENGO SAILA

ERABAKI OROKORRAK

68. atala.– 1.– Botua erakarri-asmoz egindako legepeko ekintza guztiek osatzen dute hauteskunde-ekintzaldia. Hautagaiak, alderdiek, baterakundeak, batasunek edo hautatzaile-bazkunek egin ahal izango dituzte ekintza horiek.

2.– Hauteskunde-ekintzaldiak hamabost egun iraungo du eta hauteskunde-egunaren bezperako gauerdigauerdian bukatu beharko du.

3.– Hauteskunde-prozesuan, Eusko Jaurlaritzak kanpaina instituzional bat egin ahal izango du, herritarrei hauek jakinarazteko: hauteskundeak noiz eta non izango diren, nortzuk diren hautesleak, nola bozkatzen den eta posta bidez bozkatzeko zer egin behar; hori egitean ez du, inoiz ere, hautesleen boto-aukeran eragin beharko. Kanpaina instituzional hori iragartzeko, Autonomia Erkidegoarenak diren hedabide publikoetako doako tarreak baliatuko ditu Gobernuak, eta baita Estatuarenak izanik ere, Autonomia Erkidegora mugatzen diren hedabide publikoetako doako tarreak. Kanpaina horretan bermatuko da bi hizkuntza ofizialak erabiltzea.

4.– Aurreko idazatian agindutakoa salbu utzirik, 1. idazatian esandako lege-nortasunduez besteko inork ez du hauteskundeetarako deia egiteko egunetik aurrera hauteskunde-ekintzaldirik egiterik izango, Konstituzioko 20. atalean esaten denaren kaltetan gabe.

68 bis artikulua.– 1.– Hauteskundearen deialdia egiten denetik hauteskundeak benetan izan arteko denbora-tartean, aginte publikoak eta Euskadiko Publizitate eta Komunikazio Institutuzionalari buruzko abenduaren 23ko 6/2010 Legearen 2. artikuluan aipatzen diren erakundeak ezin izango dute publizitate-kanpainarik edo komunikazio instituzionalik egin edo horien berri hedatu; salbuespen bakarra izango dira lege honen 68.3 artikuluan izango dira, eta interes publikoa babesteko edo zerbitzu publikoak behar bezala aritzeko ezinbestekoak direnak. Era berean, debekaturik egongo da aginte publikoak antolatutako edo finantzatutako edozein jarduera edo ekitaldi, baldin eta horietan legegintzaldian egindakoen edo lortutakoen aipamenean bat egiten bada, edo horietan erabiltzen diren irudiak, adierazpenak edo logotipoak hauteskundeetan parte hartuko duen alderdien batek erabiltzen dituenak edo antzekoak baldin badira.

2.– Era berean, denbora-tarte horretan ezin izango da obra edo zerbitzu publikorik edo horien proiekturik inauguratzeko ekitaldirik egin edo horren berri eman, eta aurkezpen edo erakusketarik ere ezin izango da egin; dena den, posible izango da obra edo zerbitzu horiek aldi horretan lanean hastera.

3.– Artikulu honetan aurreikusitako debekuak hausten badira, hauteskunde Administrazioak isuna jarri ahal izango du; Autonomia Erkidegoko hauteskunde Batzordeak jartzen badu 2.700 eurokoa izango da isun hori, eta lurralde historiko hauteskunde-batzordea bada, berriz, 1.200 eurokoa.

BIGARREN SAILA

HAUTESKUNDE-ZABALKUNDEA

69. atala.– Ertzaintzako, Miñoien Saileko, Udaltzaingoetako, Estatuko Gudarosteetako edo Segurantzza-Sail eta Indarretako iharduneango kide guztiei, eta bai iharduneango Epailari, Auzimaisu eta Salatariei eta Hauteskunde-Batzordetakoiei ere, debekatu egiten zaie hauteskunde-zabalkunderik edo hauteskunde-ekintzaldiko beste ezein ihardun egitea.

70. atala.– 1.– Hauteskunde-zabalkundea ez da inolako administraritzartapean egongo, ez eta Hauteskunde-Batzordeenean ere.

2.– Iritzi edo adierazpen-mailako hogenei darizkiekeen lege-hauspenak gaitasundun Epailaritzapekoak izango dira, ez beste inorenak.

71. artikulua.– 1.– Ezin izango da hauteskunde-propagandarik zabaldu, ezta hauteskunde-kanpainako ekitaldirik egin ere, kanpaina legez amaitu eta gero. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoak eskaintzen dituen baliabideak dohainik eskuratzeko aukera, soil-soilik, hauteskunde-kanpainak dirauen aldian egongo da. Aurreko muga horiek ezartzen diren arren, alderdiek, koalizioek eta federazioek egin ahal izango dituzte Konstituzioan, bereziki haren 20. artikuluan, aitortzen zaizkien funtzioak betetzeko jarduerak.

2.– Hala eta guztiz ere, hauteskundeetara deitzen denetik hauteskunde-kanpaina legez hasi arte, debekatuta egongo da hauteskunde-publizitate edo –propaganda egitea kartelen, euskarri komertzialen edo prentsa– edo irrati-iragarkien bidez edo bestelako bitarteko digitalen bidez, eta jarduketara horiek ezin justifika daitezke alderdi, koalizio edo federazioen ohiko jarduerak egitearekin.

3.– Beraz, aipatu den aldian, alderdi politikoek eta hautagaiek ezin izango dute kontratatu, ez zuzenean ez hirugarren baten bitartez, hauteskundeetako publizitatea edo propaganda jartzeko espazio, euskarri edo lekurik, direla leku publikoak (lorategiak, plazak, parkeak eta abar), direla euskarri komertzialak (hesiak, informazioa aurkezteko hiri-altzariak («mupiak»), publizitate-objektu argidunak («opiak»), kabinak, garraibideak edo parekoak). Ezin da iragarkirik ipini prentsan edo aldizkarietan, irratan, Interneteko publizitate-euskarrietan («banners»), telebistako kate komertzialetan edo bestelako bitarteko digitaletan.

4.– Halaber, propaganda egiteko asmoz, aurreko 2. apartatuan adierazitako epean ezin izango da banatu hautagaien izena edo argazkia edo alderdi politikoaren izena edo siglak adierazten dituen materialik, hala nola giltzatak, boligrafoak, metxeroak, pinak edo antzeko objektuak, eta ezin izango da jarri etxe pribatuen kanpoko aldean hautagaien argazkirik edo alderdi politiko baten izena, siglak edo sinboloak dituen kartelik.

5.– Hauteskunde-deialdia egiten den unean aurretiaz zabalduko hauteskunde-propagandarik egonez gero, berehala kendu beharko da propaganda hori, eta betiere, Hauteskunde Administrazioaren ondorioetarako, propagandan aipatzen den hautagaia edo alderdi politikoa izango da erantzule.

6.– Bigarren apartatuan aipatutako hauteskunde-prozesuan zehar, hauteskundeetara aurkezten diren hautagai-zerrendetako kideak eta antolakunde politikoen ordezkariak ez dira aurreko zenbakietan jasotako debekuetan eroriko, baldin eta botoa espresuki eskatzen ez bada, besteak beste kasu hauetan:

- a) Informazioa ematea posta bidezko botoaren izapideei buruz.
- b) Hautagai-zerrendak edo hauteskunde-programa aurkeztera zuzendutako mitinak edo ekitaldiak egitea edo haietan parte hartzea. Hartarako, antolakunde politikoei eta hautagaiei edozein hedabideren bidez eman ahal izango dute ekitaldi horien berri.
- c) Hauteskundeetara aurkezten diren antolakunde politikoetako hautagaiek eta ordezkariak elkarrizketa eta eztabaidetan parte hartzea titulartasun publiko edo pribatuko hedabideetan; artikulak edo informazioak zabaltzea beren kideei eta hauteskunde-programari buruz.
- d) Hautagaiak edo hauteskunde-programa ezagutarazte aldera liburuxka, gutun edo panfletoak egitea eta banatzea, edo euskarri informatiboak banatzea.
- e) Ibilgailu partikularrak erabiltzea hautagaien argazkiekin edo antolakunde politikoen izen, sigla edo sinboloekin, hautagaiak ezagutarazte aldera edo hautagaiak edo hauteskunde programa aurkezteko ekitaldi publikoen berri emate aldera, baldin eta inolako kontraturik egiten ez bada hartarako.
- f) Hautagaien argazkiak erakustea edo antolakunde politikoaren izen, sigla edo sinboloak erakustea antolakundearen egoitza edo lokalak dauden tokietako kanpoko aldean.
- g) Posta elektronikoak edo sms mezuek bidaltzea, edo irratifrekuentzia bidez edukiak banatzea, hautagaiak edo hauteskunde-programa ezagutzera emateko, baldin eta hirugarren batekin inolako kontraturik egiten ez bada hartarako.
- h) Web-orriak edo webguneak sortzea edo erabiltzea antolakunde politikoen edo hautagaien testuak edo artikulak biltzeko (blogak), edo sare sozialetan parte hartzea, baldin eta inolako kontratazio komertzialik egiten ez bada hartarako.

7.– Hautagai-zerrenda, alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle-elkarteetako kideek ezin izango dute, bozketa egunean eta bezperan, botoa lortzera zuzendutako inolako agerpen edo adierazpen publikorik egin hedabide sozialetan.

(...)

HIRUGARREN SAILA

HERRI-TEGI ETA TOKIEZ BALIATZEA

73. atala.– 1.– Udalek, beti, honako hauen zerrendak gertu eta unean-uneangotuta eukiko dituzte:

- a) Hauteskunde-ekintzetarako egokituko diren agintaritzaren tegien eta herri-baliapidetarako zabalduko diren zerrenda bat. Horretarako, tegi horien jaurgoa izan dezaten ihardutze-erakundeekin

utzi ditzateneko arartekotzak egingo dituzte, horietaz baliatzeko egunen eta orduen egutegi bat zehaztuz.

b) Doango irudi-idatzizko zabalkundea egiteko gordetako tokien zerrenda, esaterako, zutoinak, kaleargiak, gelatxoak eta gainerako herri-jabetzapeko tokiak.

2.– Debekatu egiten da ezein pintada egitea aurreko lerroaldeko b) letran aipatzen diren toki eta guneen kanpoaldean.

Era berean, honelakorik ere ez da jartzerik izango:

- Banderatxo, xingola eta antzeko elementurik.
- Eranskailurik, bide-seinale edo hiri-seinaleztapenerako beste elementuetan.
- Beste inolako propaganda grafikorik, panel, baranda, murru, lorategi eta abarretan, ez eta kartelik ere, Udalak horretarako jarritako lekuetatik kanpo.

– Lurrean ezarritako tripode edo antzekorik.

– Ez eta ere bandera edo pankartarik.

Azkenik, debekatuta dago, orobat, orriak jaurtitzea.

74. atala.– 1.– Hauteskundeetarako ekintzetan jendaurrean ihardutzeak batzar-eskubideari buruzko legeetan jarritakoa izango du araupide. Jaurtze-agintaritzari gai honetan aitortzen zaizkion ahalmenak Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordeek bereganatutzat ulertuko dira.

2.– Nolanahi ere, jaurtze-agintaritzak herri-bakeari buruzko aginpideei eutsiko die, eta alde honetatik, Batzordeek eurei jakinarazi dakizkien bilkuren berri eman beharko diote.

75. atala.– 1.– Ordaindu gabeko irudi bidezko propaganda egiteko gordetako lekuetatik kanpora –lege honetako 73.1.b) atalean aipatzen dira leku horiek–, alderdi politiko, hauteskundeetarako federazio, koalizio eta taldeek baimena eskuratu duten merkataritza-guneetan baino ezin izango dute kartelik nahiz beste propaganda-modurik jarri.

2.– Publizitate mota horretan, hautagai-zerrenden gastua ezingo da izan lege honen 147.2 artikuluan aurreikusitako gastu-mugaren ehuneko 20 baino gehiagokoa.

3.– 73. atalean agindutakoetarako, udalek, hauteskundeetarako deia egin eta hurrengo zazpi egunen barruan, iragarkiak dohainik jartzeko erabilgarri dauden tokiak zeintzuk diren jakinaraziko diote kasuan kasuko eskualdeko hauteskunde-batzordeari.

4.– Batzorde horrek zuzentasunez banatuko ditu esandako tokiak, hautagai-zerrenda guztiek toki erabilgarri bakoitzean azalera berdina eta antzeko baliagarritasuna izateko moduan banatu ere.

5.– Hautagaiak zeintzuk diren adierazi ondorengo bigarren egunean, batzordeak hautagai-zerrenda bakoitzaren lurralde-ordezkaritari edo haren eskudunari bakoitzaren iragarkietarako gordetako tokiak zeintzuk diren adierazi beharko dio.

76. atala.– 1.– 74. atalean agindutakoetarako, Udalek, deia egin ondorengo hamar egunen barruan, hauteskunde-ekintzak doan egiteko gordetzen diren toki ofizialak eta herri-tokien berri emango diote Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeari, eta honek, berriz, Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordeari jakinaraziko dio.

2.– Toki horien zerrendan, toki bakoitza erabil daitekeeneko egunak eta orduak adierazi eta horiek deia egin ondorengo hamabost eguneko epearen barruan, Kondaira-Lurraldeko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira. Hortik aurrera, hautagai-zerrenden ordezkariak edo hauenn eskudunek esandako tegiez eta tokiez baliatzeko eskea egin ahal izango dute Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeen aurrean.

3.– Hautagaien aldarrikapena egin ondorengo laugarren egunean, Eskualdeko Batzordeek tegi eta toki erabilgarrien izandako eskeen banaketa egingo dute, eta, eskari berbera batek baino gehiagok egitea gertatuz gero, aukera-berdintasunaren irizpideari jarraituz eta, osagarri gisa, barruti berean, Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan botorik gehien ateratako alderdi, baterakunde edo batasunen lehentasunen arabera. Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeek ematen zaizkion tegiak eta tokiak jakinaraziko dizkiote hautagai-zerrenda bakoitzaren lurralde-ordezkariori edo honen eskudunari.

77. atala.– Hautagai-zerrenda batekoek Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeak banakuntzari buruz hartutako erabakiak modu larrian edo behin eta berriz haustea gertatuz gero, hauspenaren ondorengo berrogeita zortzi orduen barruan horri buruz hartutako erabakiz, hautagai-zerrenda hori tegien eta irudi-idatzizko irarkiak jartzeko doango tokien banakuntza egitean kanpo utzi ahal izango da. Kanpo uzte hori, izan daitezkeen herri eta administrazio-alorreko erantzun-beharren kaltetan gabekoa izango da.

78. atala.– 1.– Politika-alderdi, baterakunde eta batasunek izan ditzaketen administraritza-alorreko erantzukizunen kaltetan gabe, irudi-idatzizko ezein iragarketa-moetek eraikintzetan egindako kalteegatikako herrilege-alorreko erantzun-beharra izango dute.

2.– Hautatzaile-bazkunen izenpetzaileek bateango erantzukizuna izango dute.

79. artikulua.– Baimenik gabeko tokietan hautagai-zerrendek edozein motatako propaganda grafikoak jartzeagatik edo idazketak egiteagatik, udalak 6.000 eurorainoko zigorrak jarri ahal izango ditu, horretarako abiarazitako espedientearen bitartez eta doakionari entzun ondoren.

80. atala.– 1.– Politika-alderdi, baterakunde, batasun edo hautatzaile-bazkunek, hauteskundeak egin eta hurrengo hamabost egunen barruan idatzi-irudizko iragarkiak jarri zituzteneko tokietatik kendu egin beharko dituzte.

2.– Politika-talde berezien idatzi-irudizko iragarkiak elkargainduz jarri daitezenean, horiek kentzea jarri dituztenetako azkenekoari dagokio.

3.– Aurreko zatietan oharmandakoa betetzen ez bada, Udalek egingo dute idatzi-irudizko iragarkien garbiketa. Garbiketa horren zioz gertatu eta hauteskundetarako herri-laguntzaren hartzekodun izan daitezten hautagai-zerrenda arau-hausleei leporagarri izan dakizkien gastuak Eusko Jaurlaritzako Ekonomi eta Herriogasun-Sailari bidali ahal izango zaizkio; honek, gastuen diru-zenbatekoa dagokien diru-laguntzetatik kenduko du gero Udalei itzultzeko. Politika-talde arau-hausleek diru-laguntzarik iritsi ez badute, Udalek dagokien diru-zenbatekoagatikako tiramena egingo dute. Horri erantzuten ez bazaio Epaitegien aurrean eskatu ahal izango da hertsipen-bidez.

LAUGARREN ATALA

HAUTESKUNDE-KANPAINAN HEDABIDEAK ERABILTZEA

81. artikulua.– 1.– Hauteskunde-kanpaina, hautagai-zerrendek publizitatea kontratatu ahal izango dute aldirako prentsan eta titulartasun pribatuko irrati-emisoreetan. Publizitate horretan

gastatutakoak ezingo du gainditu lege honetako 147.2 artikuluan alderdi politiko, federazio, koalizio eta hautesle-elkarteetarako aurreikusitako gastu-mugaren ehuneko 20.

2.– Hauteskunde-publizitate horretarako ezarritako tarifek ezingo dituzte gainditu publizitate komertzialerako indarrean dauden tarifak, eta ezingo da egon bereizkeriarik hautagai-zerrenden artean hauteskunde-publizitateko tarte horien sarrera, tarifa eta kokapenei dagokienez. Tarteotan berariaz adierazi beharko da hauteskunde-publizitatea dela.

3.– Ezingo dira hauteskunde-publizitateko tarteak kontratatu titulartasun publikoko hedabideetan ez eta titulartasun pribatuko telebista-emisoreetan ere.

4.– Hauteskunde-kanpainan, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetara aurkezten diren alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle-elkarreek eskubidea edukiko dute doako tarteak erabiltzeko Autonomia Erkidegoaren menpeko hedabide publikoetan eta beren jarduna Erkidegora mugatuta duten Estatuko titulartasunekoetan.

5.– Tarte horien banaketa egingo da alderdi, federazio, koalizio eta elkarte bakoitzak Eusko Legebiltzarrerako aurreko hauteskundeetan lortutako boto-kopuru osoaren arabera.

6.– Eusko Jaurlaritzaren menpeko hedabide publikoetan politika orokorrari buruzko eztabaida bat egingo da, gutxienez, hizkuntza ofizialetako bakoitzean, eta hartan parte hartuko dute Eusko Legebiltzarrerako aurreko hauteskundeetan ordezkariak lortu duten antolakunde politiko guztietako hautagaiak.

Halaber, hedabide horietan elkarrizketa bat egingo zaie, hizkuntza ofizialetako bakoitzean, gorago aipatutako antolakundeek izendatutako hautagaiari.

82. atala.– 1.– Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordea izango da, mezubideen jabea dena dela, horietatik egin daitezkeen hauteskunde-zabaldundeko doango emanaldien banakuntza egiteko gaitasunaren jabe den agintaritzak bakarra. Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordearen esanetara, esandako emanaldien banakuntza-saltoa egiteko, Irrati-Telebistako lantaldea izango da.

2.– Lantalde hori Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordeak hautagaien zerrendak aldarrikatu ondorengo hirurogeita hamabi orduren barruan izendatuko du eta osatu, deiaren gai diren hauteskundeetan eskuhartzen duten eta bukatzen den legegintzaldian Eusko Legebiltzarra eratzeari ordezkari zuten alderdi, bazkun, elkarte edo baterakundeetako bakoitzeko ordezkari banak osatuko dute. Ordezkari horiek, Eusko Legebiltzarraren aurreko legegintzaldi-hasierako osakeraren arauera, heineko indarreko botoa emango dute.

3.– Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordeak, aurreko idazatian esandakoari jarraiki hautatutako ordezkarien artetik, Lantaldeko Lehendakaria ere hautatuko du.

83. atala.– 1.– Herri-jabetzapeko irrati eta telebista bakoitzeko, eta hauek izan ditzaten saio-eremu ezberdinetako doango hauteskunde-zabalkunderako aldiak honako taula honen arauera egingo dira:

a) Eusko Legebiltzarrerako izandako azken hauteskundeetan eskuhartu ez edo ordezkariarik lortu ez zuten alderdi, baterakunde, bazkun eta batasunentzat eta, ordezkariarik lortu arren, Autonomi Elkartean emandako baliozko botoen guztizkoaren ehuneko 5ekoa lortu ez zutenentzat, hamar minutu.

b) Eusko Legebiltzarrerako izandako azken hauteskundeetan ordezkariarik lortu bai, baina a) idazatian esandako botoen guztizkoaren ehuneko 5ekotik 20 bitartekoa lortu zuten alderdi, baterakunde, hauteskunde-bazkun eta batasunentzat, hogeita minutu.

c) Eusko Legebiltzarrerako izandako azken hauteskundeetan ordezkorik lortu bai, eta a) idazatian esandako botoen guztizkoaren ehuneko 20koa gutxienez lortu zuten alderdi, baterakunde, hauteskunde-bazkun eta batasunentzat, hogeita hamar minutu.

2.– Aurreko idazatian esandako herri-jabetzapeko mezubideetan doango hauteskunde-zabalkundea egiteko tarreak izateko eskubidea hautagai-zerrendak Euskal Herriko Autonomi Elkarteko hiru hauteskunde-barrutietan aurkez ditzaten alderdi, baterakunde, hauteskunde-bazkun eta batasunek izango dute.

3.– Bere hautagai-zerrendak hauteskunde-barruti baten edo bitan besterik aurkeztu ez ditzaten alderdi, baterakunde, bazkun eta batasunek atal honetako lehenengo idazatian ezarritako taularen arabera, aurkezpena egiten dutenekotik gora gabeko lur edo irratsaio-eremuko dituzten irrati eta herri-mailako telebistetan doango hauteskunde-zabalkunderako eskubidea izango dute. Aurreko hauteskundeetan lortutako botoak kontatzeko, kasu honetan, hauteskunde-barruti bakoitzari egingo zaio arreta.

4.– Atal honetako lehenengo lerroaldian esandako baliozko botoen guztizkoaren ehunekoen kontaketa egiteko, Eusko Legebiltzarrerako lehenago izandako hauteskundeetan bazkun edo baterakundeetako partaide izandako alderdi bat hauteskundeetara aurkez dadinean, bazkun edo baterakunde horretako alderdi bakoitzak bukatzen den legegintzaldian Eusko Legebiltzarra eratzean izan zituen legebiltzarkideen kopuruaren heinean egingo da boto-banaketa.

84. atala.– Hauteskunde-ekintzaldiari hasiera eman baino lehen, Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordeak hauteskundeetara aurkezten diren politika-alderdi, baterakunde, bazkun eta batasunek hauteskunde-zabalkundearen emanalditarako izango dituzten uneak eta hurrenkera zehaztuko ditu, beti ere, Eusko Legebiltzarrerako izandako aurreko hauteskundeetan boto gehien lortu zituztenen nahiak kontutan izanik.

85. artikulua.– 1.– Titulartasun publikoko hedabideen zuzendaritzak berdintasun, proportzionaltasun eta neutraltasun informatiboa eta aniztasun politiko eta sozialaren errespetua bermatuko du hedabide horien saio informatibo guztietan, horrek eragozten ez duelarik askatasun informatiboari zor zaion errespetua. Nolanahi ere, Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordearen aurrean helegitea aurkeztu daiteke adierazitako hauteskunde-garaian hedabide horien administrazio-organoei hartutako erabakien aurka.

2.– Hauteskunde-garaian, emisore pribatuek errespetatu egin beharko dituzte aniztasun- eta berdintasun-printzipioak. Era berean, garai horretan telebista pribatuek errespetatu egin beharko dituzte informazioko proportzionaltasun eta neutraltasunaren printzipioak ere hauteskunde-eztabaida eta elkarrizketetan, eta orobat hauteskunde-kanpainari buruzko informazioan, hauteskunde-batzorde eskudunak hartarako egiten dituen instrukzioei jarraituz.

BOSKARREN SAILA

ZUZENKETAK EGITEKO ESKUBIDEA

86. atala.– Hauteskundeetara aurkeztutako alderdi, baterakunde, bazkun eta batasunetako hautagai edo agintariei buruzko gertaerarik edozein mezubidetatik zabaldu eta horiek hauei zehaztasunik gabeko edo horien zabalkundea kaltegarri izan dakiekeela eritziko balie, zuzenketarako eskubideaz baliatu ahal izango dute, martxoaren 26ko 2/1984 Oinarri-legean ezartzen denaren arauera, honako berarizkotasun hauek izanez:

a) Zuzenketa egin nahi zaioneko albistea argitaratu ondorengo hiru egunetan zuzenketa argitaratzeko biderik ematen ez duen aldizkotasunez ateratzen den argitalbidez emango balitz,

mezubideko zuzendariak, eskualde bereko eta antzeko zabalkundea izanezko beste mezubide baten, bere pentzutan argitaratu arazi beharko du.

b) Esandako Oinarri-Legearen 5. ataleko 2. idazatian araupetzen den hitzezko epaia, eskea egiten den egunaren hurrengo lauen barruan izango da.

SEIGARREN SAILA

HAUTESKUNDE-ITAUNKETAK

87. atala.— Eusko Legebiltzarreko hauteskundetarako deia egiten den egunetik hauteskunde-eguna bitartean, hauteskunde-itaunketak argitaratzeko honako jaurpidea ezarriko da:

1.— Ikerketa-ekintzaldiak nahiz itaunketak egiten dituzten guztiek, horien argitalpen guztietan ere azaldu beharko dituzten eta ondoren ematen diren zehaztasunak lan horiekin batera emateko ardura izango dute:

a) Ikerketa-ekintzaldia egin duen herri nahiz norbanako-alorreko antolatzaile edo erakundearen edo norbanakoaren izena eta egoitza, baita lan hori egiteko agindua eman duenarena ere.

b) Ikerketa-ekintzaldiaren teknika-aldetikako ezaugarriak; hauen artean nahitaez honako alderdi hauek azaldu beharko dute: usiketa-modua, usiketaren maila, horren okerrerako tartea, ordez-kotza-maila, itaunketak egin zaizkien aukeratzeko erabilitako bidea eta bertatik bertako lana noiz egin zen.

c) Galdegaitan erabilitako gai guztiak eta horietako bakoitzari erantzunik eman ez diotenen kopurua.

2.— Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordea argitaratutako ikerketa-ekintzaldietako xehetasun eta adierazpenetan gezurrik, xehetasun-gordeketarik edo nahita egindako aldaketarik gabeak izateaz arduratuko da, baita aurreko lerroaldian esandako berezitasunak behar bezala betetzeaz eta atal honetako 7. idazatian ezarritako debekuari men egiteaz ere, Hauteskunde-Batzorde Nagusiaren agintepideen kaltetan gabe.

3.— Aurreko idazatian ohartemandakoari jarraiki, Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordeak, argitaratutako ikerketa-ekintzaldi edo itaunketa egin duenari, beharrezkotzat jo ditzan egiaztaketak egin ahal izateko, egoki eritzitako osagarrizko teknikazko argipideak eskatu ahal izango dizkio.

Argipide hauetan ez da, indarrean dauden legeen arauera, enpresak berak nahiz honen bezeroak erabiltzekoak diren gaiei buruzko xehetasunak hartzerik izango.

4.— Lege honetako aginduak zapalduz, ikerketa-ekintzaldirik argitaratu edo horren zabalkunde-rik egin duten mezubideak Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordeak eskatutako zuzenketak, horien nondikakoa eta zuzenketaren zergatia iragarritz, zuzenketaren gai den albisteak izan zuen irratsaio nahiz teleaio edo argitalpeneko orri berean hiru egunen barruan argitaratzera eta horien zabalkunde egitera behartuta egongo dira.

5.— Aldatu nahi den ikerketa-ekintzaldi edo itaunketa, bere aldizkotasunagatik, zuzenketa jasotzetik hiru egunen barruan egiteko bide ematen ez duen argitalpenean egina izango balitz, mezubide horretako zuzendariak, gorabehera hori aditzera eman ez eta esandako aldiaren barruan, zuzenketa, eskualde bereko eta antzeko salmenta-kopurua izanezko beste mezubide baten, bere pentzutan argitaratu beharko du.

6.– Batzordearen itaunketei eta ikerketa-ekintzaldiei buruzko erabakiak doakienei jakitera eman eta argitaratu egingo dira. Hauteskunde-Batzorde Nagusiaren aurrean jazarri ahal izango dira erabaki horiek, Lege honen 134. atalean oharmandako moduan.

Hauteskunde-Batzorde Nagusiaren erabakiak Administrarritza-Auzipidetako Aginte-mendearen aurrean jazarri ahal izango dira, hori Araupetzeko Legean oharmentan denez eta aldeazurre birrabiatze-eskea nahitaez egin beharrik gabe.

7.– Bozketa egunaren aurreko bost egunetan debekatuta egongo da edozein komunikabidek, digitalek barne, hauteskundeei buruzko zundaketarik argitaratzea, horiek ezagutzera ematea eta erreproduzitzea.

Bozketa egunean ere, arratsaldeko zortziak baino lehenago debekatuta egongo da edozein komunikabidek hauteskundeei buruzko zundaketarik nahiz behin-behingo emaitzarik argitaratzea, horiek ezagutzera ematea eta erreproduzitzea.

Aurreko bi kasuetan aurreikusitakoa betetzen ez bada, hauteskunde-batzordeak 3.000 eta 30.000 euro bitarteko diru-zehapena ezarriko du.

8.– Hauteskundeen deialdia egiten denetik bozketa egin baino bost egun lehenagora arteko epean, administrazio publikoen baitako erakunderen batek boto-asmoari buruzko inkestaren bat edo hauteskundeetarako sondeoren bat egiten badu, azterketa horien emaitzen berri hauteskundeetan parte hartuko duten erakunde politikoei eman beharko zaie eskabidea egiten dutenetik berrogeita zortzi ordu igaro baino lehen. Horretarako, inkesta edo sondeoa egin duen erakundeak dena delako azterketa egin dela jakinarazi beharko dio Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeari, azken horrek azterketen berri eman diezaien hautagai-zerrenden ordezkari orokorrei. Horrela, ordezkari horiek inkesta edo sondeoa eskatu ahal izango dituzte.

III. ATALBURUA

BOTO-TXARTELAK ETA ESKUTITZ-AZALAK

88. atala.– 1.– Jaurlaritzak Dekretoz zehaztuko ditu boto-txartelen eta eskutitz-azalen eredu ofiziala eta horiek izan beharko dituzten ezaugarriak, baita Lege honetan oharmandako atabaka, tegi eta gainontzeko agirienak ere. Boto-txartel, eskutitz-azal eta gainontzeko hauteskunde-agirien irarketako, gertaketako eta eskuraketako baldintzak Dekretoz zehaztuko dira.

2.– Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordeek onartuko dute, Lege honetan ezarritako irizpideen eta aurreko idatzian oharmandako Dekretoan zehaztu daitezkeen arauera, beren hauteskunde-barrutirako boto-txartelen eredu ofiziala.

89. atala.– 1.– Kondaira-Lurraldeetako Hauteskunde-Batzordeek egingo dute Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan eskuhartzen duten politika-taldeek gertatutako boto-txartel eta eskutitz-azalak aurreko atalean esandako Dekretoan zehaztutako eredu ofizialari atxikizkoak direlako egiaztapena.

2.– Hauteskunde-ekintzaldiak dirauen artean, politika-alderdi, baterakunde, hauteskunde-bazkun eta batasunek botoa emateko eskubidez baliatuzko baliozkoak izango diren boto-txartel eta eskutitz-azalak irarri eta hautatzaileen artean banatu ahal izango dituzte. Boto-txartel horiek, boto-emanketako egunean, ez da, ezergatik, Hauteskunde-Idazguetan eskaintzerik izango.

90. atala.– 1.– Eusko Jaurlaritzak Herrizaingo-Sailaren bidez egingo ditu boto-txartel, eskutitz-azal eta hauteskundeei buruzko gainontzeko agiritan nahiko aukerak izateko bermapideak,

gero Hauteskunde-Mahaietara Lege honetako 88. atalean oharmandako Dekretoan finka dadin unean eta baldintzatan bidaltzeko, haiek Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeei eskuratzea bermatuz.

2.– Boto-txartelen gertaketari hautagai-zerrenden aldarrikapena egin bezain azkar ekingo zaio. Gertatutako lehenengo boto-txartelak Atzerrian bizi direnek emateko postazko bototarako izango dira.

3.– Lege honetako 67. atalean ezarritakoaren arauera, hautagai-zerrenden aldarrikapenaren aurkako jazarpenik egin baldin bada, horrek hartzen dituen boto-txartelen gertakuntza, jazarpena egin zaieneko hauteskunde-barrutian, jazarpen horiei buruzko erabakia eman arte atzeratuko da.

91. atala.– 1.– Boto-txartel, eskutitz-azal eta hauteskundeei buruzko gainontzeko agirietako idazkiak Autonomi Elkartean ofizial diren bi hizkuntzetan irarriko dira.

2.– Boto-txartelek honako xehapen hauek izan beharko dituzte berebaitan:

a) Hautagai-zerrendaren izena, izenlaburrak eta ikurra.

b) Hautagaien izenak, hautagai-zerrendan jarritako hurrenkeraren arauera, ordezkoenak jarri gabe.

IV. ATALBURUA

ARTEKARIAK ETA AHALDUNAK

92. atala.– 1.– Hautagai-zerrenda bakoitzaren lurralde-ordezkariak edo dagokion Eskualdeko Hauteskunde-Batzordean horren izeneko direnek, Hauteskunde-Mahai bakoitzeko, bertan egonik, boto-emanketa jarrita dauden arauari atxikiz egiten dela egiaztatuko duten bi Artekari izendatu ahal izango dituzte.

2.– Edozein pertsona izan daiteke artekari, adinez nagusi bada eta eskubide zibil eta politikoen jabe bada erabat, nahiz eta lege honetako 2. artikularen arabera hautesle ez izan. Hautesle ez bada, ez du boto-eskubiderik izango hauteskunde horretan.

Artekaria hautesle bada bere eginkizuna beteko duen mahaiari dagokion hauteskunde-barrutian, mahai horretan eman ahal izango du botoa.

3.– Izendapena orri hondodunetan egin, eta izendatze-eguna eta izenpea daramatzaten izendapen-agiriak emanaz egingo da.

4.– Artekariak izendatzea boto-emanketako egunaren aurreko herena arte egin ahal izango dira.

5.– Artekari bakoitzari buruzko taloi-orriek lau zati izan beharko dituzte: bat, jatorrizkoa, ordezkariak edo honen eskudunak gorde dezan; bigarrena artekariari emango zaio, egiaztatutako erabil dezan eta hirugarrena dagokion eskualdeko hauteskunde-batzordeari bidaliko zaio, artekariari dagokion hauteskunde-mahaiari eskuratu diezaion; eta laugarrena ere Hauteskunde-batzorde horri bidaliko zaio, soilik eta artekaria hautesle baldin bada artekari gisa diharduen barrutian, batzordeak bidali diezaion artekariak bozketa emateko eskubidea duen mahaiari, hautesle-zerrendatik kendua izan dadin.

6.– Ordezkariak edo honen izenekoak, hautagai-zerrendak aldarrikatzeko aldiaren bigarren egunetik hasi eta boto-egunaren aurreko berrogeita zortzi orduak artean, Artekarien izendapen-agiriak Eskualdeko Hauteskunde-Batzordean aurkeztuko ditu.

7.– Artekaria bere eginkizunak beteko dituen hauteskunde-barrutian hautesle dela egiaztatu ahal izateko, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak dagokion Lurralde Historikoko hautesle-zerrendaren kopia bat edukiko du bere esku, erabiltzeko modukoa.

8.– Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeak Hauteskunde-Mahaiei orri hondodunaren hirugarren edo laugarren zatiak igorri, hauek boto-emanketako egunean eratzen direnean euren esku izateko moduan igorriko dizkie.

9.– Horiek boto-egunean Mahaian sartzeko, Lehendakariak eta Mahaikideek horiek dakarten izendapen-agiria Mahaiak daukan orri hondodunarekin bat datorrela egiaztatu beharko dute. Ezezkoan, edo orri hondodunik ez izatea gertatuz gero, tokia eman ahal izango zaie, baina gorabehera hori Mahaiaren Agirian erasota utziz.

10.– Artekaria izendapen-agiriarekin agertzen bada Hauteskunde Mahaira, mahaiburuak mahaiko kide izaten utziko dio, nahiz eta Mahaiak, artean, Hauteskunde Batzordetik taloi-orriarik jaso izan ez. Horrelakoetan, eginkizunak beteko dituen hauteskunde-barrutian hautesle izan arren, artekariak ezingo du botorik eman izendapen-agiria aurkeztu duen mahai horretan.

Artekaria izendapen-agiririk gabe agertzen bada, Mahaiak, ordurako taloi-orria jasota badu, haren nortasuna egiaztatu eta Mahaiko kide izaten utziko dio. Horrelakoetan, artekaria bere eginkizunak beteko dituen hauteskunde-barrutian hautesle bada, izendapenagiria aurkeztu duen Mahai horretan botoa emateko eskubidea izango du.

11.– Artekaria zortzi eta erdiak jo eta gero agertzen bada Mahaira, ordurako haren eratze-agiria eginda dagoela, mahaiburuak ez dio Mahaian kide izaten utziko, eta bere eginkizunak beteko dituen hauteskunde-barrutian hautesle izan beharko du Mahai horretan botoa eman ahal izateko.

93. atala.– 1.– Artekariak hauteskunde-mahaiko eztabaidetan hizpidea bai baina boto-eskubiderik gabe eskuhartuko dute, boto-emanketa eta boto-kontakteta ondo egin daitezeneko laguntza emanaz, Lehendakariarekin eta Mahaikideekin batean hauteskunde-bideak Legeak dioenez egin daitezenera arreta eginez.

2.– Legearen arauera, Artekariak honako hauek egin ahal izango dituzte:

a) Mahaiaren Erakuntza eta Boto-kontaktetako Agiriaren, Bilkurako Orotariko Agiriaren edo horietako jakineko zati baten egiaztagiria eskatu. Hautagai-zerrenda bakoitzeko ez da egiaztagiri bana besterik emango.

b) Hautatzailearen nortasunari buruzko jazarpena: hau agerian egin beharko dute.

c) Nahi badute, boto-emaillearen izena eta zenbagarrena idatzi.

d) Boto-emanketa egitean, Lehendakariak irakurritako boto-txartela ikusteko eskatu.

e) Mahaiak ebatzi beharko lukeen edo bere ustez gaizki ebatzi den ezin hauteskunde-egintza edo egiketari buruz bidezko eritzitako gaitzespenak eta zuzenketa-eskeak, bere gaitzespen eta zuzenketa-eskea Bilkurako Orotariko Agirian erasota utzi-arazteko eskubidez.

3.– Artekari direla egiaztatu dezaten inoren konturako langileek eta herri-lanariak, boto-emanketako eguna lan-egun bada, egun horretako lanaldirako ordaindutako baimena izateko eskubidea izango dute. Dena dela, biharamonean lanaldia bost orduz gutxitzeko eskubidea izango dute.

94. atala.– 1.– Hauteskudetara aurkeztu daitezkeen politika-talde guztiek, boto-emanketako egun bera artekoan, hautagai-zerrendako lurralde ordezkariaren bidez eta horretarako egindako

esku-ematez, hauteskunde-egintza eta egiketetan hautagai-zerrendaren ordezkari izan daitezen Ahaldunak izendatu ahal izango dituzte.

2.– Edozein izan daiteke ahalordedun, adinez nagusi bada eta eskubide zibil eta politikoen jabe bada erabat.

3.– Ahalordetzea notario-agirian egingo da, edo, bestela, hauetako baten aurrean, ahalordeak bere eginkizunak beteko dituen lekuaren arabera: bere eginkizunak hauteskunde-barruti baten baino gehiagotan bete behar baditu, Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeko idazkariaren aurrean; Eskualdeko Hauteskunde Batzorde bat baino gehiagotako sekzioetan bete behar baditu, Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeko idazkariaren aurrean, eta Eskualdeko Hauteskunde Batzorde bakar bateko sekzioetan bete behar baditu, Eskualdeko Hauteskunde Batzorde horretako idazkariaren aurrean. Dena delako Hauteskunde Batzordeak izendapen-agiria egingo du ezarritako eredu ofizialaren arabera.

4.– Ahaldunek Artekarien eskubideak eurak izango dituzte. Lehendakariak nortasun-agiria eta egiaztagiriak erakusteko eskea egin ahal izango die. Bere botoa Hautatzaile-Zerrendango erasopenaren arauera dagokien Sail edo Mahaian eman beharko dute.

5.– Ahaldun direla egiazta dezaten inoren konturako langileek eta herri-lanariak, boto-emaneketa egunean ordaindutako baimena izateko eskubidea izango dute.

95. atala.– Artekari eta Ahaldunek ordezkatzeko duten politika-erakundearen izen, ikur eta izen-laburrak izanezko gehienez 10 x 10 zmkko ikur-buru edo itsaskiak erabili ahal izango dituzte, baita Artekaria-Interventor edo, hala badagokio, Ahalduna-Apoderado hitza ere, ezagupidetarako xede hutsez.

Hauteskunde-egunean debekatuta egongo da pertsona horiek erabiltzea aurreko lerrokadan aipatutako esamolde, sinbolo edo ikurritzez bestelakorik, eta bereziki hauteskunde-propaganda izan daitekeenik.

96. atala.– Boto-emanaldiak dirauen bitartean, hauteskunde-mahai bakoitzean, hautagai-zerrenda bakoitzeko artekari edo ahaldun-lanetan, ez dute hiru lagunek baino gehiagok aritzerik izango.

V. ATALBURUA

HAUTESKUNDE-MAHAIEN ERAKETA

97. atala.– 1.– Lehendakaria, bi Mahaikideak, horietako bakoitzaren ordezkioak eta Artekariak goizeko zortzietan bilduko dira Mahaia egon dedineko tegian.

2.– Lehendakari bat eta bi Mahaikide bertan egon ezik ez da Mahaia eratzerik izango.

98. atala.– 1.– Izendatutakoak, hala behar izanez gero, hurrengoez ordezkaturako dira, horien hurrenkeraren arauera.

2.– Lehendakaria azalduko ez balitz, lehenengo ordezkariak hartuko du bere tokia. Hau ere azalduko ez balitz, honen bigarren ordezkariak hartuko du haren tokia, eta hau ere azalduko ez balitz, lehenengo Mahaikideak edo bigarrenak, hurrenkera honi jarraiki hartuko du Lehendakari-tza. Azaldu ez diren Mahaikideen edo Lehendakari-tzaz jabetzen direnen ordezkotzan hauen ordezkioak jarriko dira.

3.– Mahaia eratzea ezinezko egiten duten huts-egiteak gertatuz gero, Artekariak edo bertan dauden norbanakoek, berehala, Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeari jakinaraziko diote, eta horrek ordezkari bat izendatuko du. Hau hauteskunde-sailera joango da, bertan daudenen artetik Mahaiko kide berriak izendatzeko. Dena dela, Batzordeak, gertatutakoaren berri, Herri-Salataritzari emango dio eta, hori, Mahaiko kideen edo azaldu ez ziren hauen ordezkoen agiango zigor-erantzukizuna argi uzteko.

4.– Aurreko zatian esandakoa dena dela, boto-emanketari hasiera emateko legez jarritako ordua baino beste bi geroago, Mahaiak osatzerik izango ez balitz, atal honetako hirugarren zatian izendatutako ordezkariak gora-behera honen berri Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeari emango dio eta honek, Mahai horretan boto-emanketa berriak hurrengo bi egunen barruan izateko deia egingo du. Deiaaren aldaki bat boto-emanketako aretoko atean berehala jarriko da eta Mahai berriko kideak agindu-bidez izendatuko ditu.

5.– Hauteskunde-mahaietako presidenteak eta kideek ezin izango dute esamolde, sinbolo, enblema edo ikurrizik eraman, zuzenean edo zeharka hauteskunde-propaganda izan daitekeenik.

99. atala.– 1.– Hauteskunde-Mahai bakoitzean atabaka bat izango da.

2.– Hauteskunde-Mahai bakoitza dagoeneko areto berean hormaren kontrako tegitxo bat izan beharko du, hautatzailea bakarrik egon ahal izateko bide.

3.– Era berean, tegitxoan, hautagai-zerrenda bakoitzeko aski eskutitz-azal eta boto-txartel egongo dira.

4.– Mahaia eratzeko orduan nahiz geroagoko edozein unetan, hauteskundearetoan osagai hauetakoren bat ez izatea gertatuz gero, Mahaiko Lehendakariak orduantxe jakinaraziko dio Eskualdeko Batzordeari, eta honek beharrezko zuzkiketa egingo du.

100. atala.– 1.– Lehendakariak, boto-emanketarako ordua baino lehen, horrek berak, Mahaikideek eta egiaztatutako izendapen-agiriaren jabe izan daitezten Artekariak izenpetutako eratze-agiria egingo du.

2.– Agiri horrek honako hauek izan beharko ditu nahitaez berebaitan:

- a) Lehendakariaren eta Mahaikideen izenak eta nortasun-egiaztapenak.
- b) Bertan dauden Artekariak, eta zein hautagai-zerrendaren izenekoak diren.
- c) Beste gorabehera batzuk.

3.– Lehendakariak, nahitaez, hautagai-zerrenda bakoitzeko, agiriaren egiaztagiri bana emango die eskatu dezaten Artekari edo Ahaldunei.

4.– Lehendakariak eman beharreko egiaztagiria eskuratu ez edo ematea atzeratzen badu, doakien edo doakion ordezkariak edo ordezkariak bere jazarpena egin ahal izango dute edo du, aldaki batekingo idazkiaren bidez. Aldaki bat hauteskunde-zehaztapidetzari eratzikiko zaio, eta bestea ordezkariak Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordeari bidaliko dio.

VI. ATALBURUA

BOTO-EMANKETA

101. atala.– 1.– Botoak ematea izendatutako eguneko goizeko bederatzietatik arratsaldeko zorziak arte egingo da, etenik gabe.

2.– Boto-emanketek dirauten artean, Lehendakariak eta Mahaikideek, aldi baterako eta bidezko arrazoiegatik, Hauteskunde-Mahaitik alde egin ahal izango dute, baina Mahaian beti ere horko bi kidek bertan izan beharko dute.

3.– Hauteskunde-Mahaiko Lehendakariak, hautagai-zerrendaren bateko boto-txartelik ez dagoenaz ohartu eta huts hori dagokion hauteskunde-zerrendako ahaldun edo artekariak emandako boto-txartelez osatzerik izango ez balu, boto-emanketa moztu egin beharko du. Horrelakorik gertatuz gero, hartutako erabakiaren berri Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeari emango dio, hau beharrezko diren boto-txartelak ekartzeaz arduratu dadin. Ondoren boto-emanketari berriro ekingo zaio eta boto-emanketako eten-aldia ordubetetik gorakoa izan bada baino ez da luzatuko; horrelakoan, Lehendakariak Mahaiari entzun ondoren emango du boto-emanketako aldia zenbat luzatuko deneko erabakia.

102. atala.– 1.– Boto-emanketak ezingo du besterik ezinean baino hasi ez edo eten.

Ez hastea edo etetzea, beti, Mahaiko Lehendakariaren zio eta guztiko idazkiz erabakiko da eta horrek, berehala, idazkiaren aldaki bat Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordeari bidaliko dio; horrek, agertzen diren zioak egiaztatu eta, bidezko bada, hartutako erabakiei dagozkien erantzun-beharrak eskatu beharko ditu eta, hala badagokio, Epailaritzari erru-adierazpena egingo dio.

2.– Boto-emanketa etetzea gertatuz gero, sartutako boto-txartelak ezabatu egingo dira.

3.– Kondaira-Lurraldeko Batzordeak ondorengo bigarren egunean boto-emanketa berria egiteko deia egin, eta lehengo gorabeherak berriro ez daitezenerako aurreiazko neurriak hartuko ditu.

103. artikulua.– Bozketa hasiko da, behin mahaia eratu ondoren, lehendakariak ozenki esanez «bozketa hasten da» edo «empieza la votación».

104. atala.– 1.– Botoa isilpekoa izango da.

2.– Boto-emaileak, nahi izanez gero, tegitxora joan, aukeratutako hautagai-zerrendaren boto-txartela hartu, eskutitz-azalean sartu eta botoa emango du.

3.– Hautesleek ez badakite irakurtzen edo ezintasun fisikoagatik ezin badute boto-papera aukeratu edo ezin badiote mahaiko lehendakariari eman, bere konfiantzazko pertsona batez baliatu ahal izango dira. Hala ere, hautesle itsuek edo ikusmen-ezintasuna dutenek bozkatze aldera Diputatuen Kongresuko eta Senatuko hauteskundeetarako aurreikusita dagoen prozedura aplikatuko du Eusko Jaurlaritzak, botoaren sekretua bermatuz pertsonalki eta erraztasunez bozkatu ahal izan dezaten.

105. atala.– 1.– Botoa emateko eskubidea dagoela egiaztatzeko, erroldako egiaztatutako zerrendetan agertu edo erroldako berariazko egiaztagiria behar izango da, eta bi kasu horietan, gainera, hautesleak nor den erakutsi beharko du Nortasun Agiri Nazionalaren bidez, pasaportearen bidez edo jabearen argazkia duen gidatzeko baimenaren bidez.

2.– Hautesleek behin bakarrik eman ahal izango dute botoa. Dagokien Sekzioan emango dute botoa, eta dagokien Mahaian. Salbuespen bakarra artekariena izango da, beren eginkizunak beteko

dituzten Mahaiaren hauteskunde-barrutian hautesle direnean. Hala badira, behar den moduan izendapen-agiria aurkezturik, Mahai horretan bakarrik eman ahal izango dute botoa.

3.– Atal honetako 1. lerroaldean aipatzen diren erroldako egiaztatutako zerrendetan, botoa emateko egunean adinez nagusiak diren hautesleak baino ez dira agertuko.

4.– Halaber, Saileko Erroldekoak izateko eskubidea dagokion epailaritza-epaia erakutsiz egiazta dezatenek ere, botoa eman ahal izango dute.

106. atala.– 1.– Hautatzaileak Mahaira, bere izen-deiturak esanez, banan-banan hurbilduko dira. Mahaikideek eta Artekariak hautatzaile-erroldearen legeztatutako aldakia aztertu ahal izango dute, boto-emailearen izena eta nortasun-xehapenak bertan agertzen diren ikusteko; nortasuna Erresumako Nortasun-Txartela edo Lege honetako 105.1 atalean oharmandako agiritakoren bat erakutsiz egiaztatuko da.

2.– Bere izena euskal idazkeraren arauera idatzita egotearen ondorioz edo beste edozein zio-gatik, hautatzailearen egiaztapen-bideraketan hautatzaile-erroldean eta dagokion Erresumako Nortasun-Txartelean agertzen diren izen-deituren artean ezin ezberdintasun dagoela ikusiko balitz, Mahaiak segurtatu beharko du haren nortasuna.

3.– Artekari, Ahaldun edo beste hautatzailearen batek jarki, hautatzailearen nortasunari buruzko jazarpen edo zalantzarik sor dadinean, Mahaiak gehiengoz hartuko du erabakia. Erabakia hartzeko, egiaztagiria eta une horretan bertan egon daitezen hautatzaileek egin ditzaten adierazpenak izango dira kontutan eta, hautagai-zerrendaren bateko ordezkariak eskatuz gero, horri guztiorri buruzko agiri bat egingo da. Nolanahi ere, dagokion Epaitegiari erru-adierazpena egin dakiola aginduko da, inoren izenaz jabetu denari edo berea gezurrez ukatu duenari bere erantzun-beharra eskatu dakion.

4.– Artekariak edo ahaldunek erreklamazioaren bat egiten baldin badute bozketako edozein ekin-tza dela-eta, eta horrek hautesleek botoa emateko duten eskubide aktiboa ez gauzatzea eragiten baldin badu, mahaiak gehiengoaren bidez erabakiko du, bai eta bilkura-aktan jasoarazi ere erabakitakoa, horren zioa eta zein izan den erreklamazioaren arrazoia.

107. atala.– 1.– Hautesleak, bere eskuz, mahaiko lehendakariari botoaren gutun-azala emango dio. Ondoren, honek, uneoro gutun-azala denek ikusteko moduan dela, ozenki esango ditu hauteslearen izen-abizenak, eta 'botoa ematen du' esanez, hautesleari emango dio hautestontzian sar dezan.

2.– Eskutitz-azala atabakan sartu ondoren Mahaikideek eta, hala badagokio, nahi dezaten Artekariak, bakoitzak bere zenbaki eta guztiko zerrendan, botoa ematen dutenen izen-deiturak botoa ematen duten hurrenkeran erasoko dituzte, Hautatzaile-Erroldeko zerrendan duten zenbakia adieraziz.

3.– Ezein hautatzailek, bere izen-deiturak mahaia osatzen duten zenbatutako hautatzaile-zerrendan ongi erasota utzi diren ikusteko eskubidea izango du.

108. atala.– 1.– Botoa ematea eskubide eta askatasunez egitekoa da. Ez da inor jakineko alde-rako botoa ematera behartzerik izango.

2.– Mahaiko Lehendakariak, eta hori ez badago, mahaipuru dagoen Mahaikideak bakarreango agintea izango du Hauteskunde-Mahaiaren tegiaren barruan bakea zaintzeko, hautatzailearen askatasuna babesteko eta Legea betearazteko. Halaber, boto-askatasuna bermatzeko beharrezko izan daitezen neurriak hartuko ditu. Ertzaintzako indarrek eskatu dakizkien laguntzak emango dizkiote Lehendakariari. Lehendakaria, tegiko atea hurrengo atalean zehazten direnentzat jare eta zabalik egon dadinaz arduratuko da.

3.– Inork ez du Hauteskunde-Sailaren tegian armak edo arma gisa erabili daitezkeen tresnak daramatzala sartzetik izango. Lehendakariak, agindu hori hautsi dezatenak berehala egozteko aginduko du.

4.– Sailen tegietan herri-bakea hautsi dezan ezein gorabehera, eta bai hori sortarazi dutenen izen-deiturak ere, Hauteskunde-aldiko Orotariko Agirian zehaztuko dira.

5.– Inolako agintarik ez du Lehendakariak, Mahaikideak eta Mahaietako Artekariak, hautaketako orduetan, beren egitekoak bete behar dituzten bitartean, orduantzeko eta agiriko lege-haustekoan salbu, atzipetzerik izango.

6.– Eskribauk hauteskundeei datxezkien gorabehera buruzko sendespenak, baita bere barrutitik kanpokoak ere, baina beti kondaira-lurralde baten beraren eremuan, eta berarizko baimen-beharrik gabe egin ahal izango dituzte.

109. artikulua.– Ataletako lokaletan hauek sartuko dira soilik: bertako hautesleak, hautagai-zerrendetako lurralde ordezkariak eta horien kideak, haien ahalduak eta artekariak; notarioak, hauteskundeei buruzko edozein ekintzaren fedea emateko, bozketa sekretuari kontra egin gabe; hauteskunde-batzordeetako kideak eta instrukzioko epaileak eta beraien eskuordetuak, haien kargua betetzeak hala eskatzen duen guztietan; mahaiko lehendakariak eskatutako agintaritzaren agenteak; Euskal Administrazioak izendatutako pertsonak, besteak beste hauteskundeei buruzko informazioa lortzeko; gaixoen, ezinduen eta irakurtzen eta idazten ez dakitenen laguntzaileak; aipatu lokaletako hauteskunde-materiala mantentzeko arduradunak.

110. atala.– Langileek botoa emateko eskubidea egiteratzeko beharrezko izan dadin aldia alor horretan erabili beharreko diren orotariko legegideek agindu dezatenaren arauera araupetuko da.

111. atala.– Boto-emanketako egunean, ez Salletako aretoetan, ez eta horien inguruetan ere, ez da hautagai-zerrenden aldeko inolako zabalkunderik, ez eta boto-emaleei beren botoaz galderarik egiterik ere izango, botoa eman aurretik. Ez da, edozein eratan, aretoetako sarreretan oztopobide gerta daitezkeen taldeak egiterik ere egingo, eta boto-eskubideaz askatasun osoz baliatzeari eragozpenak jarri diezaieketenei nahiz inor behartu dezaketenei ere ez zaie ingurutan ibiltzen utziko. Guzti hauei buruzkoan, Mahaiko Lehendakariak beharrezko eritzitako neurri guztiak hartuko ditu.

112. atala.– 1.– Arratsaldeko zortzietan lehendakariak ozenki esango du «bozketa bukatzera doa» nahiz «se va a concluir la votación», eta ez dio inor gehiagori hauteslekuan sartzen utziko. Lehendakariak bertan dauden hautesleren bat oraindik bere botoa eman gabe dagoen galdetuko du, eta ondoren eman daitezen botoak onartu egingo dira.

2.– Herritarrek botoa emateko aldia bukatu ondoren, Lehendakariak postatikako boto-txartelak dakartzaten eskutitz-azalak atabakan sartuko ditu.

3.– Ondoren, mahaiak osatzen dituztenek, eta eginkizunak betetzen dituzten barrutiko hautesleak diren artekariak bozkatuko dute; eta mahaiko eroldan ez dauden artekarien hauteskunde-mahaia zehaztuko da boto-emaleen zerrenda zenbakidunean.

4.– Azkenik, zenbatutako hautatzaile-zerrendak, orri guztien bazter batean eta idatzitako azken izenaren azpi-azpian izenpetuko dituzte Mahaikideek eta Artekariak.

113. atala.– Mahaiak ondoren esaten direnetan ez du onartuko postatikako botorik:

a) Postatikako boto-emalea hautatzaile-zerrendan sartuta egon ez dadinean.

b) Mahaiari bidalitako eskutitza-azalaren barruan Hauteskunde-Erroldako Idazgu-Ordezkaritzak egindako egiaztapen-irarkia egon ez dadinean.

c) Hautatzaile-zerrendan botoa postaz emateko eskea erasota agertu ez dadinean.

114. atala.– 1.– Postatikako botoei jazartzea botoz-boto banaka egin beharko da, postatikako botoei orohar jazartzea onartzen ez dela. Hauteskunde-Mahaiak gehiengoz erabaki beharko du esandako jazarpen hori onartzen duen ala ez.

2.– Jazarpena onartuko ez balu, Lehendakariak postatikako botoa atabakan sartuko du, Boto-emanaldiaren Orotariko Agirian Mahaiaren erabakia eta jazarpenaren zioa erasoz.

3.– Mahaiak jazarpena onartzen badu, Lehendakariak ez du postatikako botoa atabakan sartuko, eta jazarpena egin zaioneko postatikako boto hori, gainontzeko hauteskunde-agiriekin batean, Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordeari bidaliko zaio.

VII. ATALBURUA

HAUTESKUNDE-MAHAIETAKO BOTO-EMANKETA

115. artikulua.– Honako hauek izango dira boto baliogabeak:

a) Eredu ofizialez besteko gutun-azal edo paperez emandako botoa, eta bai gutun-azalik gabeko txartelez emandakoa edo hautagai-zerrenda berezian boto-txartel bat baino gehiago daramatzen gutun-azalean emandakoa ere. Gutun-azal batean hautagaitza beraren txartel bat baino gehiago egonez gero, boto bakar bat bailitzan kontatuko da.

b) Boto-txarteleko hautagaien izenak aldatuta, gehituta edo zirrimarratuta edo bertako izenen hurrenkera aldatuta dituen paperean emandako botoa. Dena dela, boto baliouduna izango da betiere hauteslearen bozketa-asmoaren inguruko zalantzarik sortzen ez duen seinale edo markaren bat duen paperean emandako botoa.

c) Irainak edo botoaz besteko edozein hitz edo esamolde daramatzen botoa, edo nahita edo asmoren batekin egindako edozein aldaketa duen botoa.

d) Mahaiari ez dagokion beste barrutiko boto-paperez ematen den botoa.

e) Gutun-azalek gainean ezaupideak daramatzatenean.

116. atala.– Boto-txartelik gabeko eskutitz-azalei dagozkien botoak zuritzat, baina baliozkotzat, kontatuko dira.

Eta, era berean, zuritzat baina baliozkotzat joko dira hauteskunde-barrutitik legez erretiratutako hautagai-zerrendari emandako botoak.

117. atala.– 1.– Boto-kontaketa jendaurrekoa izango da eta nahi dezaten guztiek egon ahal izango dute bertan, hori egiten den tegian Lehendakariaren aburuz aski toki baldin badago.

2.– Lehendakariak, bakea boto-kontaketa egitea eragotziko duen edo eragozten duen moduan hausten dela eritziz gero, tegia hustu dadila agindu ahal izango du. Hori gertatuz gero, hautagaien lurralde-ordezkariek, Artekariak eta Ahaldunek, eskribauek, Lehendakariak dei egindako aginte-eskudunek, Hauteskunde-Batzordetako kideek, Lehenengo Epaibidetarako Epailariak edo horien eskudunek baino ez dute bertan egoteko eskubiderik izango, Mahaiko kideez gainera.

118. atala.– 1.– Lehendakaria, boto-emanketa bukatu eta berehala, boto-kontaketa egiteari ekingo zaio, eskutitz-azalak atabakatik banan-bana ateraz. Azalak ireki, eta botoa eman zaion hautagai-zerrendaren izena ozenki irakurriko du. Lehendakariak boto-txartela bertan dauden Mahaikideei, Artekariiei eta Ahaldunei erakutsiko die.

2.– Boto-kontaketa etenik gabe egin beharko da.

Boto-kontaketa egin dadineko tokiak, bertan daudenak inguru guztian ibili ahal izateko moduan antolatuta egon beharko du.

3.– Boto-kontaketa bukatu ondoren, atabakatik ateratako eskutitz-azalen guztizko zenbatekoa eta Hauteskunde-Mahaiaren zenbaki eta guztiko zerrendan erasotako boto-emaileena erkatuko dira.

4.– Boto-kontaketaren ezein unetan, bere egitekotan diharduen eskribaturen, hautagai-zerrenda bateko ordezkari edo kidek Lehendakariak irakurritako boto-txartelak dioenari buruzko zalantzak izanez gero, txartela aztertu ahal izango du.

5.– Boto-kontaketa bukatutakoan, Lehendakariak boto-kontaketarekiko jazarpenik dagoen galdetuko du. Jazarpenak Mahaiaren gehiengoz erabakiko dira.

119. atala.– 1.– Lehendakariak ozenki iragarriko du boto-kontaketak ematen duena, honako xehapen hauek emanaz:

- a) Mahaiko Hautagai-Erroldan dauden hautatzaileen zenbatekoa.
- b) Mahaiko zenbaki eta guztiko Zerrendan erasotako boto-emaileen zenbatekoa.
- c) Baliorik gabeko botoen zenbatekoa.
- d) Baliozko boto guztien zenbatekoa.
- e) Boto zurien zenbatekoa.
- f) Hautagai-zerrenda bakoitzak ateratako botoak.

2.– Hori egin ondoren, eta hurrengo atalen gai direnak egin aurretik, Mahaiak boto-kontaketaren Behin-behingorako Adierazpena egin eta euskal Administrazioak izendatutakoari emango zaio, horrek bere nortasuna egiaztatu ondoren, Eusko Jaurlaritzak hauteskundeetan atera denaren jendearentzako behin-behingo argipideak eman ditzan, ez beste ezertarako.

Berehala, beste horrelakoxe Adierazpena tegiko atean jarriko da eta, azkenean, eskatu dezaten Artekari, Eskudun edo hautagaiei beste bana emango zaie. Hautagai-zerrenda bakoitzeko ez da adierazpen bakar bat baizik emango.

120. atala.– 1.– Lehen esandakoak egin ondoren Mahaiko Lehendakariak, Mahaikidek eta Artekariak Boto-emanketako Agiria izenpetuko dute, horretan honako alderdi hauek zehazki adieraziz:

- a) Mahaiko Hautagai-Erroldan dauden hautatzaileen zenbatekoa.
- b) Mahaiko zenbaki eta guztiko Zerrendan erasotako boto-emaileen zenbatekoa.
- c) Baliorik gabeko botoen zenbatekoa.
- d) Balioz emandako boto guztien zenbatekoa.
- e) Boto zurien zenbatekoa.

- f) Hautagai-zerrenda bakoitzak ateratako botoak.
- g) Saileko zerrendan azaldu ez arren botoa eman duten Artekarien zenbatekoa.
- h) Egin diren jazarpen eta zuzenketa-eskeen adierazpen laburra, nork egin dituen zehaztuz.
- i) Egindako jazarpen eta zuzenketa-eskeei eta boto bereziei buruz, egon baldin badaude, Mahaia hartutako zio eta guztiko erabakiak.
- j) Atabakatik ateratako eskutitz-azalen eta erasota boto-emaileen kopuru-adierazpena, biak bat ez datozenean.
- k) Interesgarri izan dadin ezein gorabehera edo gertakariren adierazpena.
- l) Ekarrirako eta hauteskunde-errolan alta diren errolda-ziurtagiri berezien zenbatekoa.
- m) Ekarrirako epai judizialen zenbatekoa.

2.– Hautagai-zerrenden ordezkari eta horietako kide guztiek, eta bai Ahaldunek eta Artekariak ere, Boto-emanketaren Bilkurako nahiz horko ezein alderdiri buruzko egiaztatutako Agiria doan eta berehala eman dakieneko eskubidea izango dute, eta Mahaiek ez dute eginbehar hori ez betetzeko aitzakirik jartzerik izango.

3.– Balioa ukatu zaien edo jazarpen edo zalantza-bide izandako boto-txartelak agiriari erantsiko zaizkio, Mahaiko kideek izenpetuta, eta agiriarekin batera gordeko dira. Gainontzeko boto-txartelak bertan daudenen aurrean eta nahi den moduan ezabatu egingo dira.

4.– Halaber, Lehendakariak hartutako Artekarien izendapen-agiriak, hondodun orriak eta, hauen ezean, Artekariak ekarrirako izendapen-agiriak ere Boto-emanketako Agiriari eratzikiko zaizkio.

121. atala.– 1.– Ondoren, Mahaia, hauteskundeetako agirisorta gertatu eta lau eskutitz-azal berezitan sartuko du, honela:

- a) Bat zenbakizko eskutitz-azalean honako agiri hauek sartuko dira:
 - Mahaia eratzearen Agiriaren jatorrizko alea.
 - Boto-emanketako Agiriaren jatorrizko alea.
 - Sendetsitako Hautagai-Erolda.
 - Boto-emaileen zenbatutako zerrenda.
 - 120.3 atalean agindutakoaren arauera bereizitako boto-txartelak.
- b) Bi, hiru eta lau zenbakizko eskutitz-azalean honako agiri hauek egongo dira:
 - Mahaia Eratzeko Agiriaren hitzez-hitzezko aldakia.
 - Boto-emanketako Agiriaren hitzez-hitzezko aldakia. Bi aldakiak Lehendakariak eta Mahaikideek eta bertan diren Artekariak izenpetuko dituzte.
- c) Eskutitz-azal guztiak itxi ondoren, Lehendakariak, Mahaikideek eta bertan diren Artekariak horietan jarriko dute izenpea, itxituraren aldenik-alden.

122. atala.– 1.– Esandako agirisorta hori osatu ondoren, Lehendakaria eta Mahaikideak eta nahi dezaten Artekariak, berehala Lehen-Auzipidetarako edo Udal-Epaitegiaren Egoitzara joango dira lau zorroak haren esku uztera.

2.– Lehen-Auzipidetarako edo Udal-Epailariak Lehen dakariaren, Mahaikideen eta Artekarien nortasuna egiaztatuko du horien Erresumako Nortasun-Txartelak eta Mahaiko kide direla erakutsi dezaten agiriak ikuskatuz. Egiteko hori bete ondoren Epailariak eskutitz-azaletan bere izenpeak jarriko ditu, itxituraren aldenik-alden.

Epailariak eskuratu dioten agirisorta hartu duelako egiaztagiria emango dio Mahaiko Lehendakariari, zein egunetan eta ordutan eskuratu dioten bertan adieraziz.

123. atala.– 1.– Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordeak, boto-emanketakoa baino zortzi egun lehenago, horretarako bilduta, Epai-Arduralaritzako bost herrilanari gutxienez izendatuko ditu, atal honetan ematen zaizkien egitekoak betetzeko.

2.– Herrilanari horiek, Ertzaintzako bi kide lagun dituztela, eta Ertzaintzaren zaingo-auto baten, eta Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordeak zehaztu dezan irizpidez eskualdeka banatuta, hauteskunde-barrutiko udal guztietara joango dira, horietako Epailariak euki ditzaten eskutitz-azalak jasoaz.

Epai-arduralaritzako herrilanariak, kanpo aldetik behar bezala dagoela egiaztatu ondoren, ematen zaion agirisorta hartu duelako egiaztagiria emango dio Epailariari.

3.– Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordeak zehaztuko ditu, antolakidetzak egiteko Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo-Saileko arduradunarekin edo arduradunekin bildu ondoren, ertzain-araldeak zenbatekoa, horiei eratzikitako herrilanariak, eta hauteskunde-agirisorta biltzeko egin behar duten bidea.

4.– Hauteskunde-agirisorta biltzea, hauteskundeak egin eta biharamoneko goizeko bederatzietan hasita egingo da.

5.– Hauteskunde-agirisorta Epailariari eskuratzen zaionetik Batzordearen izenekoek jaso arteainoko aldirian, Epailaria izango da hura gordetzearen eta bila doazkionei emateko arduradun.

6.– Lehen-Auzipidetarako edo Udal-Epailariak Epai-Arduralaritzako herrilanariari bat, bi eta hiru zenbakizko eskutitz-azalak emango dizkio, lau zenbakizkoa dagokion Lehen-Auzipidetarako edo Udal-Epaitegian gordeta gelditzen dela.

7.– Eskutitz-azalak bildu ondoren, Epai-Arduralaritzako herrilanariak, Ertzaintzako bi kide betiere lagun dituela, Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordearentegira joan eta hartu duen agirisorta bertan utziko du.

8.– Bat eta bi zenbakizko eskutitz-azalak Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordean galdituko dira eta horrek, berehala, eta egoki deritzen neurriak hartuz, hiru zenbakizkoa Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo-Sailera bidaliko du, boto-emanketa nola izan den jakin eta horretazko argipideak izan ditzan.

VIII. ATALBURUA

GUZTIZKO BOTO-KONTAKETA

124. atala.– 1.– Guztizko boto-kontaketa egitea Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordeak boto-emanketaren ondorengo boskarren lan-egunean egin eta hauteskundeak izan ondorengo bederatzi egun igaro baino lehen bukatu beharko du.

2.– Guztizko boto-kontaketa ekintza bakarra eta jendaurrekoa izango da.

124 bis artikulua.– 1.– Boto-kontaketa orokorreko egunean, eta hori gauzatzen hasi aurretik, lurralde historikoko hauteskunde-batzorde bakoitzak hauteskunde-mahaia osatuko du, goizeko zortzietan, bertaratutako hautagaitzek izendatutako artekariekin.

2.– Jarraian, aipatutako hauteskunde-batzordeko lehendakariak hauteskontzian edo hauteskontzietan sartuko ditu atzerrian bizi diren egoiliarren boto-paperak, ordura arte jasotakoak, eta idazkariak boto-emaielen izenak idatziko ditu horretarako zerrendan.

3.– Ondoren, batzordeak boto horiek kontatuko ditu eta emaitzak kontaketa orokorrera gehituko ditu.

125. atala.– 1.– Lurralde historikoko hauteskunde-batzorde bakoitza idazkariak bere eginkizunak aurrera eramaten dituen egoitzan bilduko da, hautagai-zerrenden ordezkariekin edo haien eskudunekin. Lehendakariak batzordea sortzeko agiria idatziko du eta berak, mahaikideek eta idazkariak izenpetuko dute, eta baita hautagai-zerrenden ordezkariak edo behar bezala egiaztatutako haien eskudunek.

2.– Guztizko boto-kontaketa egin ahal izateko Lehendakariak eta Mahaiko gainontzeko kideen erdiak eta batek gutxienez egon beharko dute bertan.

3.– Nahitaezko gutxienezko zenbateko hori bertan ez izatea gertatuz gero, boto-kontaketa bi ordu atzeratuko da, eta orduan ere ez badago, Lehendakariak hurrengo lehenengo lan-eguneko bilkurarako deia egingo du, hori bertan daudenei eta Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordeari jakinaraziz.

4.– Bilkura berria bertan egon daitezen Batzordekideen zenbatekoa dena dela egingo da.

5.– Bi bilkurok goizeko hamarretan hasiko dira.

126. atala.– 1.– Guztizko boto-kontaketa Mahairik-Mahai egingo da.

2.– Lehenengo, eta Mahaietako bat zenbakizko eskutitz-azalak ireki baino lehen, osorik dauden ikusiko da. Gero eskutitz-azalok Mahairik-Mahai irekiko dira, behar diren agiri guztiak daramatzaten ikuskatuz. Mahairen bateko bat zenbakizko eskutitz-azalik izan ez, edo hor beharrezko agiri guztiak egongo ez balira, horren ordezkari dagokion bi zenbakizko eskutitz-azala hartuko da.

3.– Boto-emanketaren bateko agiria ez egotea gertatuz gero, hautagai-zerrenda bateko kideen batek edo eskudunen batek arauz aurkeztu dezan egiaztatgiriarekin ordezkatu ahal izango da. Ondoren, eta berehala Mahai hori bertan zegoeneko Epailariari idazki ofiziala bidaliko zaio, eskuratu zitzaion agirisortaren lau zenbakizko eskutitz-azala ahalik eta lasterren aurkeztu dezan, horretan dagoen boto-emanketako agiri horren eza zuzentzeko hautagai-zerrendaren bateko ordezkariak aurkeztutakoarekin bat datorren egiaztatzeko. Ordezkari edo ahaldunek elkarren kontrako egiaztatgiriak aurkeztea gertatuz gero, ez da horietako bat ere kontatuko, bakoitzean azaltzen

den boto-kopuru berezia erasota utziz. Nolanahi ere, boto horien kontua behin-behingo izango da, agiri-sorta Legean oharmandakoari datxekola sinestarazte-indarrez egiaztatu dadinerarte.

4.– Idazkariak Mahai bakoitzeko botoen laburpena jakinaraziko du.

5.– Batzordekidetako batek, botoen guztizko kontaketa egiteko eta gero Legebiltzarkide-tokiak emateko beharrezko izan daitezen xehapenak hartuko ditu.

6.– Agiriak aztertu-alan, hautagaien ordezkariak edo hauen eskudunek ez dute inolako jazarpenik, ez eta zuzenketa-eskerik ere, egiterik izango, irakurritako xehetasunen zehaztasunari buruzko unean-uneko oharrak salbu.

7.– Batzordeak ezin izango du agiririk ez botorik baliorik gabe utzi. Dituen eskumenak mahai bakoitzean onartutako botoen kontaketa egiaztatzen mugatuko dira, mahaiak hartutako erabakiak kontuan izanda eta agirietan jasotakoaren arabera (horiek ezean, agiri horien egiaztagirietan esaten dena hartuko da kontuan). Dena den, salbuespena izango dira hurrengo atalean jasotako egoerak, baina akats material soilak, egitezko akatsak eta aritmetikakoak baino ezin izango dira zuzendu.

127. atala.– 1.– Mahai baten elkarren ezberdin izan eta Mahaiko kideek izenpetutako eta ontzat emandako agiri bi egotea gertatuz gero, Batzordeak ez du ez bata ez bestea kontaktuko.

2.– Era berean, batzordeak ez ditu botoak zenbatuko hautesleen erroldak mahaiari izendatutako hautesleak baino gehiago baldin badira boto horiek, aurkeztutako erroldako egiaztagiria edo epaitegietako epaiak direla medio gehitu beharrekoak gehituta gero. Salbuespena izango dira artekariak emandako botoak, eta akats materialak, egitezkoak eta aritmetikakoa izatea, eta kasu horretan zuzendu egingo dira.

3.– Boto-kontakteta ez da hamar ordutan ihardun ondoren baino etengo, eta hori gertatuz gero, une hartan aztertzen ari deneko Saileko botoak kontaktzea bukatu beharko da. Boto-kontaktari biharamonean jarraituko zaio, Lehendakariak esan dezan orduan.

128. atala.– 1.– Botoen batuketa orokorra amaitzen denean, lurralde historikoko hauteskunde-batzordeak kasuan kasuko hauteskunde-barrutiko zenbaketa-egiaztagiria idatziko du, eta ondorengo datuak jaso beharko dira, berariaz, egiaztagiri horretan:

a) Mahaiari zenbat hautesle dagozkion hauteskunde-erroldako zerrendetan esaten denaren arabera.

b) Erroldako zenbat egiaztagiri berezi aurkeztu diren, hauteskunde-erroldan alta direla erakusteko.

c) Epaitegietako zenbat epai aurkeztu diren.

d) Zenbatek eman duten botoa.

e) Zenbat boto izan diren baliorik gabekoak.

f) Zenbat boto izan diren zuriak.

g) Hautagai-zerrenda bakoitzak zenbat boto eskuratu dituen.

1 bis.– Hauteskunde-barrutiko boto-kontaktetaren akta euskarri digitalean emango zaie hauteskunde-zerrenden ordezkariak dagokion lurralde historikoko hauteskunde-batzordearen aurrean.

2.– Aurreko pausoa eman ondoren, bilkura-agiria ere idatziko da, bertan jasotzeko bozketa orokorra egitean izandako gorabehera guztiak. Bilkura-agiria eta zenbaketa-egiaztagiria lehendakariak, mahaikideek eta hauteskunde-batzordeko idazkariak izenpetuko dute, eta baita hautagai-zerrenden ordezkariak edo behar bezala egiaztatutako haien eskudunek.

3.– Boto-bilketa amaitzen denean, ordezkariak eta haien eskudunek egun bateko epea izango dute erreklamazioak eta kexuak adierazteko. Erreklamazio eta kexu horiek hauteskunde-mahaien bilkura-agirietan edo hauteskunde-batzordearen zenbaketa orokorraren bilkura-agirian jasotako gorabehera buruzkoak baino ezin izango dira izan. Lurralde historikoko hauteskunde-batzordeak bi egun izango ditu horietaz erabakitzeko.

4.– Aurreko lerroaldean aipatzen den erabakiaren aurka hautagai-zerrenden ordezkariak edo haien eskudunek errekurtsua aurkeztu ahal izango dute lurralde historikoko hauteskunde-batzordearen aurrean egun bateko epean. Errekurtsua aurkeztu eta biharamunean, hauteskundebatzordeak espedientea –txosten eta guzti– Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordera bidaliko du. Bidaltze hori agintzen duen erabakia, bidalketa egin eta gero, barrutian parte hartu duten hautagai-zerrenden ordezkariak jakinaraziko zaie, eta baita dei egin ere Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordearen aurrean agertzeko hurrengo egunean. Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak, aldeak diotena gehienez ere bi eguneko epearen barruan entzun ondoren, errekurtsuak buruzko erabakia hartuko du hurrengo egunean. Gero, erabaki horren berri emango dio kasuan kasuko lurralde historikoko hauteskunde-batzordeari, hautatutakoak izendatzeko.

129. atala.– 1.– Aurreko ataleko hirugarren eta laugarren lerroaldeetan aurreikusitako epeak igaro eta ez bada erreklamaziorik edo kexurik agertu botozenbaketa orokorragatik, edo aurkeztutakoei buruz Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak erabakia hartuta baldin badu, lurralde historikoko hauteskunde-batzordeek hautetsiak izendatuko dituzte hauteskundearen egunetik hogeita egun igaro baino lehen. Horretarako, hautagai-zerrendeak dagozkien aulkiak banatuko dira, lege honetako 11. eta 12. ataletan aurreikusitako banaketa-arauek bat.

2.– Gorago aipatutako eginkizun guztiak amaitu ondoren, lurralde historikoko hauteskunde-batzordeak izendapenen agiria idatziko du, bi kopiatan, eta lehendakariak, idazkariak eta une horretan bertan diren hautagai-zerrenden ordezkariak edo haien eskudunek izenpetuko dituzte.

3.– Agiri horren aleetako bat hauteskundebatzordean geratuko da artxibatuta, horretarako irekitako espedientean, eta jatorrizkoa, berriz, Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordera bidaliko da.

4.– Izendapenen agirian datu hauek idatzi beharko dira:

- a) Hautesleak zenbat izan diren.
- b) Botoa zenbat pertsonak eman duen.
- c) Baliarik gabeko zenbat boto izan diren.
- d) Balio duten zenbat boto izan diren.
- e) Zenbat boto zuri izan diren.
- f) Hautagai-zerrendek zenbat boto eskuratu dituzten.
- g) Hautagai-zerrenda bakoitzak zenbat boto eta aulki eskuratu dituen.

h) Izendatutako hautetsien izenen zerrenda.

5.– Izendapenen agirian, izandako erreklamazioak nahiz kexuak eta horiei buruz hartutako erabakiak jasoko dira, eta baita Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordearen aurrean aurkeztutako errekurtsioa (halakorik egon bada) eta horretaz hartutako erabakia.

6.– Aldarrikapen-aktaren kopia emango zaizkie, paperean eta formatu digitalean, hautagai-zerrenden ordezkariari edo beraien ahaladun edo artekariari, eskatzen badute. Ezingo da egin akta edo ziurtagiri bat baino gehiago hautagai-zerrendako.

7.– Halaber, aldarrikatutako hautagaiei ere aldarrikapenaren egiaztagiria emango zaie, Legebiltzarrerara aurkezteko erabili dezaten.

8.– Hauteskunde-Batzordeak, egiaztagiri eta izendapen-agiri horiek doazkienei, hautagai-zerrendaren ordezkariaren bidez, boto-kontaketa egin eta hurrengo berrogeita zortzi orduen barruan bidali dakizkiela erabaki ahal izango du.

9.– Era berean, batzordeak aktaren kopia emango dio bertan dagoen Euskal Administrazioaren ordezkariari, ezagutzeko, informatzeko eta herritarrei zabaltzeko xede hutsez.

130. artikulua.– Berehala, Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeko lehendakariak Legebiltzarrari bidaliko dio Autonomia Erkidegoko hauteskunde-barrutietan aldarrikatutako legebiltzarkideen zerrenda.

131. artikulua.– 1.– Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko ditu, hautetsien aldarrikapena egin ondorengo zazpi eguneko epean, hautagai-zerrenda bakoitzaren emaitzak lurralde historikoen arabera, zerrenda bakoitzari, hala badagokio, esleitutako eserlekuekin batera. Era berean, aldizkari ofizial horretan argitaratu beharko dira hautagai-zerrenda bakoitzak Autonomia Erkidego osoan lortutako emaitza orokorrak, bai eta zerrenda horietako bakoitzari, hala badagokio, esleitutako eserlekuen guztizkoa, hori guztia eragotzi gabe hautetsien aldarrikapenaren aurka jar daitezkeen hauteskundeekiko auzi-errekurtsioak.

2.– Lurralde historikoko hauteskunde batzorde bakoitzak bere lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratu beharko ditu, hautetsien aldarrikapena egin ondorengo zazpi eguneko epean, hautagai-zerrenda bakoitzaren emaitzak udalerrien eta lurralde historikoen arabera, zerrenda bakoitzari, hala badagokio, esleitutako eserlekuekin batera, hori guztia eragotzi gabe hautetsien aldarrikapenaren aurka jar daitezkeen hauteskundeekiko auzi-errekurtsioak.

IX. ATALBURUA

HAUTESKUNDE-HAUSPENAK

132. artikulua.– Aginduzko eta debekuzko hauteskunde-arauak haustea, delitua ez denean, eskumena duen hauteskunde-batzordeak zigortuko du, lege honen 29.j eta 30.1.d artikuluetan aurreikusitakoaren arabera. Isuna 300 eta 3.000 euro artekoa izango da agintariak edo funtzionarioak badira, eta partikularrak badira 100 eta 1.000 euro artekoa, salbu eta lege honetan kopuru handiagoa ezartzen bada.

X. ATALBURUA

BOZKETA ELEKTRONIKOARI DAGOKION JARDUNBIDEA

132. atala. Bigarrena.– Boto elektronikoari dagozkion elementuak, Biltzar Nagusien eta Eusko Jaurilaritzaren eskurantzak eta alderdi, federazio, koalizio eta taldeen partaidetza.

I.– Honako elementu hauek sartzen dira boto elektronikoaren sisteman:

- a) Banda magnetikoa duen bozketa-txartela.
- b) Hautestontzi elektronikoa.
- c) Botoa emateko pantaila.
- d) Hauteskunde-kabina.
- e) Softwarea edo hauteskundeetako programa informatikoa.

II.– 1.– Hautestontzi elektronikoen eta botoa emateko pantailaren hauteskunde-softwarea honako hau da: programa informatikoaren multzoa hautestontzia ireki eta ixteko, mahaiak balioztatutako banda magnetikoa duten txartelen bidez botatzeko, hautestontzian erregistratutako banda magnetikoa duten txartel-kopurua kontrolatzeko, botoak zenbatzeko eta mahaiko hauteskunde-emaitzak jakinarazteko; eta hori guztia lege honen arabera egiteko aukera eman behar dute.

2.– Horrezaz gain, hauteskundeetako softwareak ondoren adierazten diren datu hauek eduki beharko ditu hauteskunde-barruti bakoitzeko:

- a) Hauteskunde-prozesuaren eguna.
- b) Aldarrikatutako hautagai-zerrenda bakoitzaren izena eta, hala egokituz gero, sigla eta sinboloa; baita boto zuria emateko aukera eta boto baliogabea emateko ere, lege honetako 132. Laugarren I.2 atalean azaltzen den modura.
- c) Hautagaien izenak, aldarrikatutako hautagai-zerrendan azaltzen diren hurrenkeran; ez dira ordeko hautagaiak sartuko.

3.– Halaber, hauteskunde-mahaietarako, mahai bakoitzaren identifikazioa eta kokapena edukiko du. Honako datu hauek azalduko dira: lurralde historikoa, udala, barrutia, sekzioa eta mahaia; bai eta hautesleen kopurua, boto emaileen kopurua, boto baliogabeen kopurua, boto zurien kopurua eta hautagai-zerrenda bakoitzak eskuratutako boto-kopurua ere, aldarrikatutako hurrenkeraren arabera. Hautagai-zerrenda bakoitzaren izena eta siglak adieraziko dira.

III.– 1.– Boto elektronikoaren hauteskunde-softwarean hauteskunde-mahai bakoitzeko bozketaren eta boto-zenbaketaren gardentasuna eta objektibotasuna ziurtatu ahal izateko, Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak honako hauek egin beharko ditu:

- a) Lege honetako 132. Zazpigarren I.a) atalean aipatutako hauteskunde-softwarearen funtzionamendu-baliozkotasuna onartu, aurreko 132. Bigarren II.1 eta 3 ataletan zehaztutakoei dagokienez.
- b) Onartutako hauteskunde-softwarea, aurreko atalean aipatutakoa, hauteskunde-mahai bakoitzerako egokitu.

c) Aipatutako hauteskunde-software egokitua egon egongo dela eta eskualdeko hauteskunde-batzorde-tara eta mahaietara banatuko dela ziurtatu, euskarri magnetikoan eta behar adina kopia, lege honetako 132. Hirugarren. II.1 atalean aurreikusten dena bete dadin.

d) Hauteskundeen ondoren hauteskunde-softwarearen euskarri magnetikoak jaso, eta amaieran euskarri horiek hautsi egingo direla ziurtatu.

e) Legeak edo bestelako xedapenek hauteskunde-softwareaz agindutako beste edozein egiteko.

2.– Lurralde historikoko hauteskunde-batzordeek onartuko dute beren barrutiei dagokien hauteskunde-softwarearen baliozkotasuna, lege honetako 132. Bigarren II.2 atalean aurreikusten diren xehetasunei dagokienean. Lurralde historikoko hauteskunde-batzordeek onartuko dute, halaber, banda magnetikoa duen bozketa-txartelaren eredu ofiziala, IV. azpiatalean adierazten den dekretuko irizpideetan ezarritakoaren arabera.

3.– Hauteskunde-batzordeek Eusko Legebiltzarreko informatika-zerbitzuaren laguntza izango dute 1. eta 2. puntuetan azaldutako egitekoak gauzatu ahal izateko, informatika-zerbitzu hori baita laguntzeko eta aholkuak emateko organoa.

Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeko bileretan parte hartuko du Eusko Legebiltzarreko Informatika Zerbitzuko arduradunak; arduradunak hitza izango du, baina botorik ez. Lurralde historikoko hauteskunde-batzordeek, halaber, eskatu ahal izango dute aipatu berri dugun zerbitzuko arduradunak beren bileretan parte hartzea, hitzarekin baino botorik gabe, egoki irizten dutenean. Arduraduna joatea ezinezkoa bada ordezkoren bat bidaliko da.

4.– Aldarrikatutako hautagai-zerrenda bakoitzeko ordezkari nagusiak edo berak izendatutako informatikako aditu batek eskuratu ahal izango du Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordetik, behin betiko onartu baino lehen, lege honetako 132. Bigarren II. atalean araututako hauteskunde-softwarearen funtzionamendu onari buruzko informazioa. Hauteskunde Batzorde horrek zehaztuko du horretarako prozedura egokia zein den.

IV.– 1.– Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez zehaztuko ditu bozketa elektronikorako eredu ofiziala, eta atal honen I. zenbakian aipatutako elementuek eta ekipamendu-gailuek –hauteskunde-mahai bakoitzak izan beharrekoak finkatuz– izan beharreko ezaugarri teknikoak eta homologatzeko baldintza orokorrak ezarriko ditu, era horretan lege honek bozketarako ezarritako fidagarritasun, segurtasun eta isilpekotasun eskakizunak bete ditzaten.

Dekretuan ezarriko dira, halaber, hauteskunde-kabinen ezaugarriak eta lege honetan aurreikusten diren hauteskunde-agiriak nolakoak izango diren, eta nola inprimatu, prestatu eta banatuko diren.

2.– Eusko Jaurlaritzaren egitekoa izango da, Herrizaingo Sailaren bitartez, hauteskunde-mahai bakoitzerako hautestontzi elektronikoa, botoa emateko pantaila eta hauteskunde-kabina izango direla eta bozketa hasi baino gutxienez ordubete lehenago banatuko direla ziurtatzea.

3.– Herrizaingo Sailak, ez beste inork, prestatu eta banatuko ditu banda magnetikoa duten bozketa-txartelak, hauteskunde-agi-riak eta beharrezkoak izan daitezkeen gainerako elementuak, hauteskundeetako softwarea izan ezik, 1. puntuari aipatu den dekretuan ezarritako moduan eta mementoan. Ziurtatu behar du elementu horiek guztiak eskualdeko hauteskunde-batzorde-deei emango zaizkiela, gero hauteskunde-mahaietara bidali ahal izateko.

V.– Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan azalduko dira hauteskunde-mahai bakoitzeko hautestontzi elektronikoko softwarean eta botoa emateko pantailetan dauden mezuak, eta bai hauteskunde-agirietako testua ere.

132. atala. Hirugarrena.– Mahaietako baliabideak eta bozketa elektronikoen aurretik egin beharreko eragiketak.

I.– 1.– Hautesleak jotzen da hauteskunde-mahai bakarrik kokatzen den hautategi batean dagoen esparrua, agindu honetan eta Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetarako buruzko 5/1990 Legearen 38.1, 132. Laugarren eta 132. Bosgarren ataletan aurreikusten den eraginetarako.

2.– Hauteskunde-mahai bakoitzak hautestontzi elektronikoa bi izango du, bata elektronikoa eta bestea posta bidezko botorakoa bozketa paper eta kartazalekin, hauteskunde-kabina bat, gutxienez, edo, kabinarik izan ezean, hautesleari isolatzeko aukera emango dion lekuren bat, botoa emateko pantaila batekin.

3.– Bozketa elektronikoa egin ahal izateko elementu eta ekipamendu-gailu guztiez gain, hauteskunde-mahaiak agiriak eta beharrezkoa den gainerako dokumentazioa eduki beharko ditu, eta bai hautesle-eroldaren zerrenda ziurtatua ere.

4.– Hauteskunde-mahaiak eratzeko unean edo eratu ondoren hautalekuan elementu horietakoren bat ez badago, mahaiburuak berehala jakinaraziko dio eskualdeko hauteskunde-batzordeari, falta diren gauzak ekar ditzan.

5.– Hautategi bakoitzak dagokion hauteskunde-barrutian aldarrikatutako hautagaien eta hautagai-zerrenden izenak jasotzen dituen boletin ofizialaren ale bat edukiko du, hautesleek ikusteko moduan. Horren xedea informazioa ematea besterik ez da.

II.– 1.– Bozketa hasi aurretik, hauteskunde-mahai bakoitzeko mahaiburuak hauteskunde-softwarea eta bozketa elektronikoa egiteko beharrezkoak diren elementuak eskuratuko ditu, kartazal prezintatu batean. Kartazal horretan dagokion mahaiaren identifikazioa idatzita egongo da eta mahaiburuari emango zaio. Mahaiburuak jaso izanaren agiria izenpetu beharko du.

Elementuren bat ez egon arren, bozketa hasi baldin badaiteke, mahaiburuak bozketari hasiera emango dio, baina gora-behera horren berri eman beharko dio eskualdeko hauteskunde-batzordeari, falta diren elementuak ekar ditzaten.

2.– Hori eta gero, mahaiburuak hautestontzi elektronikoa irekiko du eta banda magnetikoa duten txartelak gorde behar dituen kutxa hutsik dagoela egiaztatuko du. Ondoren, hautestontzia prezintatu edo irekitzeko gailua blokeatu egingo du.

3.– Horren ostean, mahaiburuak bozketa elektronikoa hasi ahal izateko eragiketak gauzatu ditu: hautestontzi elektronikoa eta botoa emateko pantailak aktibatuko ditu, eta guztia prest egongo da bozketa hasteko.

132. atala. Laugarrena.– Bozketa elektronikoa.

I.– 1.– Hautesleak banan-banan inguratuko dira dagokien mahaira eta mahaikideetako batek banda magnetikoa duen bozketa-txartel balioztatu bana emango die.

2.– Hori eta gero, hauteslea kabinara sartuko da eta botoa emateko pantailan banda magnetikoa duen bozketa-txartela sartuko du, nahi duen aukera egin dezan. Horretarako, dagokion hauteskunde-barrutiko hautagai-zerrenden izenak, siglak eta sinboloak azalduko dira pantailan.

Lerroka ipiniko dira, ezkerretik eskuinera, aldarrikatu diren hurrenkerari jarraituta. Boto zuria eta baliogabea emateko aukerak ere azalduko dira, azken lerroetan.

3.– Aukera egin ondoren, botoa emateko pantailan hautatutako hautagai-zerrenda azalduko da, bertan aldarrikatutako hautagaiekin. Hautesleak egindako aukera baieztatu beharko du. Baieztatu nahi ez badu, hautesleak beste aukeraren bat egin ahal izango du.

Aukera baieztatu ondoren, hautatu den botoa banda magnetikoa duen txartelean grabatuko da. Botoa emateko pantailak txartel hori itzuli egingo du hautesleak eskura dezan.

4.– Ondoren, hauteslea hautestontzi elektronikoa dagoen tokira joango da eta bere izen-abizenak esango dizkio mahaiburuari. Mahaikideek eta artekariak erroldako zerrendaren ale egiaztatua edo aurkeztutako errolda-egiaztagiria ikusi ahal izango dute, boto-emaiaren izen-abizenak badauden eta nortasuna zein duen egiaztatzeko. Nortasun Agiri Nazionala edo Eusko Legebiltzar-rerako Hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen 105. atalean adierazten diren agiritakoren bat aurkeztuta justifikatzen da nortasuna.

5.– Hori eta gero, hautesleak banda magnetikoa duen txartela mahaiburuari eskura emango dio eta mahaiburuak guztien begi-bistan «botoa eman du» edo «vota» esango du eta banda magnetikoa duen txartela hautestontzi elektronikoa sartuko du, hantxe geratuko delarik behin hauteskunde-softwarean daraman informazioa euskarri magnetikoa erregistratu eta gero. Erregistro horien segida zoriaren araberako prozedura baten bidez zehazten da.

6.– Banda magnetikoa duen txartela hautestontzian sartu ondoren, hautesleak botoa eman duela ipiniko dute mahaikideek mahaiko hautesle-erroldaren zerrenda egiaztatuan. Hautesle guztiek izango dute eskubidea botoa eman dutela behar bezala ipini duten ikusteko, aipatutako zerrenda egiaztatuan.

7.– Mahaiko erroldaren zerrenda egiaztatuaren eranskin batean idatziko dira mahaiko erroldan inskribatuta egon ez arren bertan botoa eman duten hautesleen izena, hala egokituz gero. Inskribatu gabe botoa eman ahal izateko errolda-egiaztagiri berezia edo epai-agiria aurkeztu behar da.

8.– Hautesleek ezin izango dute hauteskunde-mahaia dagoen hautategitik irten banda magnetikoa duen bozketa-txartela hartuta, mahaiko baimenik gabe behintzat.

II.– Hautesleren batek banda magnetikoa duen bozketa-txartelean botoa grabatzeko edo txartela mahaiburuari emateko eragozpenik badu, bere konfiantzako pertsonaren batek lagun diezaioke, honako kasu hauetan:

a) Irakurtzen ez badaki.

b) Muga fisikoren bat badu eta horrek boto elektronikoa eragiketaren bat egitea galarazten badio.

c) Hirurogeita hamar urte baino gehiago baldin baditu.

Hala ere, hautesle bati laguntzen dion konfiantzako pertsonak ezingo dio beste inori lagundu hauteskunde-mahai berean edo beste mahai batean, salbu eta lerro zuzeneko lehen mailako odol-ahaidetasuna edo bigarren mailako kolateralak dutenei.

III.– 1.– Mahaiburua konturatzen denean banda magnetikoa duten bozketa-txartelak falta direla edo ez dutela funtzionatzen, edo lege honetako 132. Bigarren I. atalean bozketa elektronikorako adierazitako elementu edo tresnaren bat ondo ez dabilela, boto elektronikorako materialaren arduradunari esango dio. Egoera aztertu eta boto elektronikorako materialaren arduradunari entzun

ondoren, mahaiburuak erabakiko du arazoa konpontzen den bitartean bozketarekin jarraitu daitekeen edo, aitzitik, bozketa eten egin behar den. Bozketa eteten bada, eskualdeko hauteskunde-batzor-deari jakinarazi beharko zaio, batzorde horrek falta diren elementuak ekarri edo gaizki dabiltzanak konpondu ditzan. Ondoren, bozketarekin jarraituko da eta etenaren iraupenaren arabera luzatuko da. Mahaiburuak eraba-kiko du zenbat denboraz luzatu, gainon-tzeko mahaikideekin hitz egin ondoren. Nolanahi ere, jendeari jakinarazi egingo zaio bozketa luzatu egin dela, hautategiko sarreran.

2.– Irregularitasuna hauteskontzian euskarri magnetikoan sartutako hauteskunde-softwarea ez dabilelako gertatzen bada, eta hauteskontzia berriro martxan jartzea beharrezkoa bada, hauteskontzia hustu egingo da eta bertan dauden banda magnetikoa duten bozketa-txartelak atera egingo dira. Gero, berriro sartu eta erregistratuko dira hauteskontzian. Azkenik, mahaiburuak bozketa berriro hasteko agindua emango du, aurreko zenbakian adierazitakoaren arabera.

IV.– Bozketa bertan behera uzten bada, mahaiburuak ezin egin izango du boto-zenbaketa. Ostera, banda magnetikoa duten txartel guztiak apurtu egingo ditu, hauteskontzian sartuta egon ala ez, eta euskarri magnetikoan dagoen hauteskunde-softwarea atera egingo du hauteskontzitik. Hauteskunde-softwarea eta gainerako materiala eta agiriak dagokion lurralde historikoko hauteskunde-batzordera bidaliko dira.

V.– Edozein arrazoi dela-eta hautesleren bati ezinezkoa baldin bazaio banda magnetikoa duen bozketa-txartela erregistratzea botoa emateko pantailan edo hauteskontzi elektronikoan, mahaiaik txartela une horretantxe apurtuko du, eta hautesleari beste txartel balioztatu bat emango dio botoa eman ahal izateko.

VI.– 1.– Bozketa-tramitean mahaikideek hauteslea fede txarrez dabilela ikusten badute, hau da, behin eta berriro banda magnetikoa duten bozketa-txartel balioztatuak eskuratu arren ez duela botoa emateko eskubidea gauzatzen, mahaiburuak egoki irizten dituen neurriak hartuko ditu bozketaren ohiko jarduera eragotzi edo oztopatu nahian burutzen diren ekintzak ekiditeko. Nolanahi ere, hautesleak eskuratu arren erabili ez dituen banda magnetikodun bozketa-txartel balioztatuak apurtu egingo ditu mahaiaik.

2.– Hautesle batek, mahaikideengandik banda magnetikoa duen bozketa-txartela eskuratu ondoren, bere kabuz erabakitzen badu ez duela botoa emateko eskubideaz baliatu nahi, mahaiburuari jakinaraziko dio. Mahaiburuak aipatutako txartela itzultzeko eskatu dio eta mahaiaik une horretantxe apurtuko du.

VII.– 1.– Jendaurreko bozketa amaitu ondoren, mahaiburuak bozketa-paperak gordetzen dituzten kartazalak sartuko ditu posta bidezko botoentzat jarritako hauteskontzian.

2.– Behin bozketa-kartazalak sartu eta gero, mahaiburuak hauteskontzitik banan-banan aterako ditu kartazal horiek. Haiak zabaldu ondoren, ahots goraz irakurriko du botaturiko hautagai-zerrendaren deitura, boto-papera bertan diren mahaikideei, artekariari eta eskudunei erakusten diela.

3.– Horren ondoren, mahaiburuak ahots goraz jakinaraziko du denetara zenbat bozketa-kartazal atera diren hauteskontzitik, mahaikideetako batek, mahaiburuari, lehen adierazitako zenbatekoa bezainbat banda magnetikodun bozketa-txartel balioztatu entrega diezazkion.

4.– Hurrena, mahaiburuak, parte hartzen duten mahaikideak, artekariak eta eskudunak bertan daudela, botoa emateko pantailan banda magnetikoa duen bozketa-txartela grabatuko du bozketa-paper bakoitzean jasotako aukerarekin. Horren ondoren, esaniko txartel grabatua hauteskontzi elektronikoaren barruan sartuko du, eta dagokion bozketa-papera suntsituko du segidan,

hurrengo 5. zenbakiaren arabera baliogabetzat jotzen direnak izan ezik. Eragiketa hauek bata bestearen ondoren egingo dira txartel bakoitzarekin eta posta bidezko boto-paper bakoitzarekin.

5.– Mahaiak baliogabetzat jotako boto-paperak, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen 5/1990 Legearen 115. atalean agindutakoari jarraiki, mahaikideek sinatu beharko dituzte eta bilkura-agirian arxibatu beharko dira mahaiaik daukan gainerako hauteskunde-dokumentazioarekin batean.

VIII.– Behin aurreko eragiketak eginik, artekariak botoa eman ahal izango dute, bai izen-deiturak bai artekari direla hautesle-eroldaren zerrenda egiaztatuaren eranskin batean zehaztuz, beti ere mahaiaren eroldan hautesle gisa inskribaturik agertzen ez badira. Horren ondoren mahaia osatzen duten kideek botoa eman ahal izango dute, eta mahaiburuak emango du botoa azkena. Mahaiburuaren bozketa-txartel banda magnetikoduna mahaikideetako batek sartuko du hautestontzi barruan.

132. atala. Bosgarrena.– Hauteskunde-mahaietako boto-zenbaketa elektronikoa eta boto-zenbaketa orokorra.

I.– Boto baliogabea izango da:

- a) Banda magnetikoa duen txartelean grabatutako aukera boto baliogabea izan bada.
- b) Banda magnetikoa duen bozketa-txar-telean inolako aukerarik grabatu ez bada, txartela ez delako botoa emateko pantailan erabili.

II.– 1.– Boto zuria izango da:

- a) Banda magnetikoa duen txartelean grabatutako aukera boto zuria izan bada.
- b) Banda magnetikoa duen txartelean grabatutako aukera dagokion hauteskunde-barrutian legez erretiratu den hautagai-zerrendaren bat izan bada.

2.– Mahaiko boto-zenbaketan legez erretiratutako hautagai-zerrenda bati emandako botoak erretiratutako hautagai-zerrenda horri zenbatuko zaizkio, eta hala azalduko da mahaiko zenbaketa-egiaztagirian. Ondoren, zenbaketa orokorrean, dagokion lurralde historikoko hauteskunde-batzordeak boto horiek boto zurizat joko ditu.

III.– 1.– Mahaikideek botoa eman orduko, mahaiburuak bozketa amaitutzat emango du eta hautestontzi elektronikoaren zirrikitua prezintatu egingo du. Horrela, gero boto gehiago sartuta ere ez da operatiboa izango.

2.– Ondoren, mahaiburuak ixteko eragiketak eta hautestontzi elektronikoan erregistratutako boto guztien zenbaketa egingo ditu, etenik gabe, mahaiko boto-zenbaketa lortu ahal izateko.

3.– Mahaiburuak ozenki irakurriko ditu hautestontzi elektronikoaren pantailan azaltzen diren bozketa-zenbaketa emaitzak, eta honako datu hauek emango ditu:

- a) Mahaiko hautesle-eroldan dauden hautesleen zenbatekoa, Hautesleen Errolda Bulegoaren Ordezkaritzaren arabera.
- b) Hautestontzi elektronikoan erregistratutako hautesle-kopurua.
- c) Boto baliogabeen kopurua.
- d) Boto zurien kopurua.

e) Hautagai-zerrenda bakoitzaren botoak.

4.– Horren ostean, mahaiburuak mahaiko zenbaketa-egiaztagiriari dagokion inprimakia beteko du. Horretarako, pantailatik kopiatuko ditu aipatu berri ditugun datuak. Kopiatutako datuak behar bezala transkribatu direla ziurtatuko da.

5.– Datu horiek Eusko Jaurlaritzari bidaliko zaizkio, hauteskunderen emaitzei buruzko behin-behineko informazioa emateko, beste eraginik gabe. Sekula ere ezingo dira datuak bidali hauteskunde-mahaitik ordenadore nagusira kontaketa bukatu baino lehen. Era berean, datu horiek Legebiltzarrean ordezkariak duten alderdi, federazio, koalizio eta hauteskunde-taldeen esku jarriko dira ahalik eta lasterren eta gardentasunik handienaz. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak terminalak jarriko ditu aipatutakoen egoitzetan.

6.– Hori eta gero, mahaiburuak boto-zenbake-taren aurkako kexarik edo erreklamaziorik dagoen galdetuko du eta bilkura-agirian idatziko dira. Azkenik, mahaiburuak, mahaikideek eta artekariak zenbaketa-egiaztagiria izenpetuko dute.

7.– Eragiketa hori egin eta berehala, denborarik galdu gabe, zenbaketa-egiaztagiriaren kopia ipiniko da hautategiaren sarreran. Zenbaketa-egiaztagiriaren beste kopia bat EAEko Administrazioak izendatutako pertsonari emango zaio, hauteskunderen emaitzei buruzko informazioa emateko, beste eraginik gabe. Hala eskatzen duten artekariak, eskudunak eta hautagaiek ere kopia bana emango zaie. Hautagai-zerrenda bakoitzeko kopia bat baino ez da emango.

IV.– 1.– Hautestontzi elektronikoaren zirriketua prezintatu eta lehenago aipatu diren zenbaketa-eragiketak hasi ondoren, hauteskunde-mahaiko zenbaketa-egiaztagiria betetzea eragozten duen gora-beherarik izanez gero, dagokion lurralde historikoko hauteskunde-batzordeari eman behar zaio gora-behera horren berri eta hautestontzi elektroniko prezintatua bertara eraman beharko dute mahaiburuak, mahaikideek eta, nahi izanez gero, artekariak eta eskudunak, gainerako agiriekin batera. Gora-behera hori bilkura-agirian adierazi beharko da. Kasu horretan, mahaiburuak Ertzaintzaren laguntza eskatu ahal izango du, bidaia egiteko erraztasunak eman di-tzan, eta hautestontzia eta hauteskunde-agiriak babestu ditzan, hauteskunde-batzordera heldu bitartean.

2.– Lurralde historikoko hauteskunde-batzordeak hautestontzi elektronikoa eta hauteskunde-agiriak jasoko ditu eta ahalik eta azkarren hasiko da mahaiko boto-zenbaketa jakiteko eragiketak egiten, mahaikideen eta, hala nahi badute, artekariak eta eskudunen aurrean. Ondoren, mahaiko zenbaketa-egiaztagiria beteko da, lege honetako 132. Bosgarren III.3 atalean eta hurrengoetan ezartzen denaren arabera.

V.– 1.– Lehenago adierazitako zenbaketa-eragiketak amaitu ondoren, mahaiburuak, mahaikideek eta artekariak bilkura-agiria bete eta izenpetuko dute. Bilkura-agirian zehatz-mehatz jarriko dira datu eta gora-behera hauek:

a) Aurkeztutako errolda-egiaztagiri berezien zenbatekoa, erroldan alta ematekoak direnak.

b) Aurkeztutako epai-agiriak zenbatekoa.

c) Mahai horretan erroldatuta egon ez arren, botoa eman duten artekariak zenbatekoa.

d) Izandako kexen eta erreklamazioen azalpen laburra, kexa edo erreklamazioa egin duen pertsona ere adieraziko delarik.

e) Egindako kexei eta erreklamazioei buruz mahaiak hartu dituen erabakiak eta boto partikularak, egon baldin badaude.

f) Jakin beharrekoa dela irizten den beste edozein gora-behera edo gertakari.

2.– Azkenik, boto elektronikorako materiala zaintzeko arduradunak banda magnetikoa duten bozketa-txartel guztiak bilduko ditu, hautestontzian egon ala ez. Gero, txartel horiek ezabatu eta, ahal izanez gero, berriro erabiliko dira, Herrizaingo Sailaren ardurapean eta Eusko Legebiltzarreko Informatika Zerbitzuaren ikuskapenarekin.

VI.– 1.– Hauteskunde-agirien lehenengo kartazalak honako hauek edukiko ditu:

- Mahaiaren eratze-agiriaren jatorrizko alea.
- Zenbaketa-egiaztagiriaren jatorrizko alea.
- Bilkura-agiriaren jatorrizko alea.
- Hauteskunde-mahaiko hauteskunde-softwarearen euskarri magnetikoak.
- Hautesle-eroldaren zerrenda egiaztatua.
- Aurkeztutako errolda-egiaztagiriak eta epai-agiriak.
- Balioa ukatu zaien nahiz erreklamazio edo dudarik sorrarazi duten posta bidezko boto-paperak.
- Hauteskunde-mahaiko beste edozein agiri.

2.– Bigarren, hirugarren eta laugarren kartazalek honako agiri hauek edukiko dituzte:

- Mahaiaren eratze-agiriaren hitzez hitzeko kopia.
- Zenbaketa-egiaztagiriaren hitzez hitzeko kopia.

Mahaiburuak, mahaikideek eta bertan dauden artekariak izenpetuko dituzte kopia biak.

VII.– Lurralde historikoko hauteskunde-batzordeak Eusko Legebiltzarreko Informatika Zerbitzura, EAEko Hauteskunde Batzordearen laguntzako organora hain zuzen, bidali beharko ditu hauteskunde-mahai bakoitzeko euskarri magnetikoak, agirien lehenengo kartazalean daudenak, lege honetako 132. Bigarren III.1.d) atalean aurreikusitako eraginetarako. Gauza bera egingo dute eskualdeko hauteskunde-batzordeek hauteskunde egunean erabili ez diren hauteskunde-softwarearen kopiekin.

VIII.– Mahai bakoitzeko hauteskunde-agirien lehenengo kartazala aztertu ondoren, mahaiaren bateko zenbaketa-egiaztagiria falta dela ikusten bada, hautagai-zerrenden ordezkariaren batek edo haren eskudunak aurkeztutako zenbaketa-egiaztagiarekin ordeztu ahal izango da. Ondoren, mahaiari dagokion epaileari ofizioa bidaliko zaio eta epaileak ahalik eta azkarren aurkeztu beharko du agirien laugarren kartazala, berak eskuratu duena hain zuzen. Kartazal horretan dagoen zenbaketa-egiaztagiria hautagaiak aurkeztutakoarekin bat datorren ikusiko da eta, bat ez badator, epailearen zenbaketa-egiaztagiria hartuko da aintzat. Ordezkariek edo eskudunek kontraesanetan dauden kopiak aurkezten badituzte, ez da bat bera ere kontuan hartuko eta zenbaketa orokorraren bilkura-agirian bakoitzaren bozketa ezberdinak jasoko dira. Nolanahi ere, boto horien zenbaketa behin-behinekoa izango da, agiriak legeak ezarritakora egokitzen direla adierazten duen ziurtapen fede-emangarria ematen den arte.

132. atala. Seigarrena.– Hauteskundeei buruzko arau-hausteak boto elektronikoari dagokionez.

Hauteskunde-batzorde eskudunak 20.000 pezetatik 200.000 pezeta bitarteko isunak jarriko ditu, agintarien edo funtzionarioen kasuan, eta 5.000 pezetatik 100.000 pezeta bitartekoak, partikularren kasuan, boto elektronikoaren jardunbidea dela-eta honako arau-hauste hauetakoren bat

egiten dutenei, nahiz eta ez diren hauteskunde-delituak. Hala ere, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderi buruzko 5/1990 Legean isunetarako zenbateko handiagoak ezartzen badira, legeak dioena izango da aintzat hartuko dena.

a) Nahita aldatzea, manipulatzeko edo erabilgaitz uztea, fisikoki nahiz mekanikoki, boto sistema elektronikoaren erabilerarako eta jardunbiderako beharrezkoak diren elementu teknikoak eta tresna elektronikoak.

b) Banda magnetikoa duten bozketa-txartelak zenbatzeko programa elektronikoak aldatzeko asmoz jardutea hauteskunde-mahaian.

c) Banda magnetikoa duten bozketa-txartelak fabrikatzea, banatzea, merkaturatzea eta desegoki erabiltzea, lege honek beren beregi baimentzen dituen jardueretatik kanpo.

d) Banda magnetikoa duten txartelak apurtzea bozketaren edo mahaiko boto-zenbaketa edozein unetan, lege honetako 132. Laugarren atalaren IV., V. eta VI. lerroaldeetan aurreikusten den kasuetan izan ezik.

e) Mahaiburuak emandako banda magnetikoa duen bozketa-txartel balioztatua beste txartel batekin ordeztzea.

f) Banda magnetikoa duen bozketa-txartel dagoeneko balioztatua manipulatzeko eta, horren ondorioz, hautesleari txartel horrekin botatzea ezinezkoa gertatzea.

g) Banda magnetikoa duen bozketa-txartel balioztatua hartuta hauteskunde-mahaia dagoen hautategitik irtetea mahaiaren baimenik gabe, lege honetako 132. Laugarren 1.8 atalean xedatutakoaren arabera.

h) Bozketa etenez gero hauteskunde-mahaiko boto-zenbaketa egitea, lege honetako 132. Laugarren IV. atalean aurreikusitakoaren arabera; baita boto-zenbaketa bozketa-eguneko arratsaldeko zortziak baino lehenago egitea ere.

132. atala. Zazpigarrena.– Amaierako xedapenak.

I.– Herrizaingo Sailak, hauteskunde-gaietan Euskadiko Autonomia Erkidegoko organo eskuduna baita, laguntzako betebeharrak hauek izango ditu:

a) Hauteskunde-barruti bakoitzeko boto elektronikoaren softwarea lantzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeari ematea, hauteskunde mahai bakoitzerako egokitu gabe. Hori hautagai-zerrendak aldarrikatu eta gero egingo da.

b) Botatzeko jardunbide automatiko berriak herritarrei jakinaraztea eta azaltzea, hauteskunderarako deialdia egin baino lehen.

c) Hauteskunde-mahaietako kideei bozketa elektronikoaren jardunbideari buruzko prestakuntza ematea. Horretarako, kide horiek informazioa emateko antolatzen den bilerara joan beharko dute.

II.– Hautagaien aldarrikapenaren aurkako errekurtsorik jartzen bada, I.a) atalean adierazi den hauteskunde-softwarea beranduago banatuko da errekurtsioak izan diren hauteskunde-barrutietan, errekurtsioak erabakitzen direnean hain zuzen, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderi buruzko 5/1990 Legearen 67. atalean ezarritakoaren arabera.

ERANSKINA, BOTO ELEKTRONIKOARI DAGOZKION DEFINIZIOEI BURUZKOA

Lege honen eraginetarako jakin beharreko kontzeptuak:

a) Hauteskunde-kabina: Esparru itxia da eta bertan botatzeko-pantaila ipiniko da, hautesleak bere aukera inork ikusi gabe egin ahal izateko.

b) Hauteskunde-softwarearen kopia euskarri magnetikoan: Segurtasun-disketea da, hauteskunde-softwarearen jatorrizkoa (glosario honetako d) hizkian definitua) hondatzen denean edo behar bezala ez dabilenean ordeztzeko.

c) Boto-zenbaketa elektronikoa: Hautestontzi elektronikoa egin behar den eragiketa-multzoa, hauteskunde-mahai bakoitzeko hautestontzi elektronikoa erregistratutako banda magnetikoa duten txartel balioztatuak zenbatzeko eta txartel horien edukia ikusteko.

d) Hauteskunde-softwarearen jatorrizkoa euskarri magnetikoan: Diskete bat da; mahaiburuak hautestontzi elektronikoa eta botoa emateko pantailak aktibatzeko balio du, hautestontzia eta bozketa-elektronikoa ixteko, eta bai mahaiko botoak zenbatzeko ere, bozketaren amaieran.

e) Botoa emateko pantaila: Hautesleak botoa emateko pantailan sartuko du banda magnetikoa duen bozketa-txartela, zer botatu aukeratzeko pantailan, lapitz elektronikoa bitartez. Horrela, hautesleak egindako aukera grabatu egingo da sartutako txartelean. Txartelak aurretik balioztatu egin behar dira makinan edo mahaiburuaren hautestontzian.

f) Boto elektronikorako materiala zaintzeko arduraduna: Boto elektronikoa gaitako aholkulari teknikoa da eta mahaiburuaren agindupean jarduten du. Pertsona fisikoa da eta beraren arduradun da hautategi bakoitzean boto elektronikorako falta diren elementuen eta tresnen horniketa eta gerta daitezkeen akatsen konponketa, mahaiburuaren eta mahaikideen aginduei jarraituz. Halaber, hauteskunde-mahaietako boto-zenbaketa amaitzean banda magnetikoa duten txartel guztiak jaso behar ditu, mahaiko hautestontzi elektronikoa egon ala ez.

g) Hauteskunde-mahaiko hautestontzi elektronikoa eta botoa emateko pantailaren hauteskunde-softwarea: Boto elektronikorako sistemaren egitekoak biltzen dituen aplikazio informatikoa. Honako egiteko hauek biltzen ditu funtsean: hautestontzi elektronikoa irekitzea eta ixtea, mahaia balioztatutako banda magnetikoa duten txartelen bidez botatzea, hautestontzian erregistratutako txartel-kopurua kontrolatzea, botoak zenbatzea eta mahaiko hauteskunde-emaitzak jakinaraztea.

h) Banda magnetikoa duen bozketa-txartel balioztatua: Hautestontziaren balioztatze-aparatuan aktibatutako euskarria da. Mahaikide batek emango dio hautesle bakoitzari, botoa emateko pantailan sartu ahal izateko. Txartel hori ez da norberarena. Hautesleak boto aukera erregistratzeko euskarria da.

i) Banda magnetikoa duen bozketa-txartel balioztatugabea: Hauteskunde-mahaia hautestontzi elektronikoa dagoen balioztatze-aparatuan aktibatu beharreko euskarria da.

j) Hautestontzi elektronikoa: Mahaiburuaren esku dagoen makina da. Honako osagai hauek ditu: balioztatze-aparatua, banda magnetikoa duten txartelak gordetzeko ontzia, botoen erregistratutakoa eta irakurgailua duen ordenadorea, irudikatzen duen pantaila eta teklatura.

Makina horrek aukera ematen du banda magnetikoa duten mahaiko txartelak balioztatzeko, hartzeko, erregistratzeko eta botoa emateko pantailan grabatu den aukera kontuan hartzeko; aukera ematen du, halaber, boto-zenbaketarako eragiketa automatikoa egiteko, bozketa amaitu ondoren.

k) Boto elektronikoa: Hautesleak gauzatzen duen eragiketa-multzoa botoa modu automatikoa emateko, kartazalik eta paperezko boto-txartelak erabili gabe.

XI. KAPITULUA

POSTA BIDEZKO BOTOA ETA ATZERRIAN BIZI DIREN EGOILIARRENA

132 octies artikulua.– 1.– Bozketa-egunean hautesleek aurreikusiz gero boto eskubidez baliatzea dagokien herrian ez direla egongo edo ezingo direla bertaratu, postaz eman dezakete botoa, Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 72. eta 73. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

2.– Hauteskundeen deialdia egin eta haiek izan arte atzerrian aldi baterako daudenek posta bidezko botoa eman dezakete, berme guztiekin, aipaturiko lege organikoaren 74. artikuluan ezarritakoaren arabera eta hori garatzen duen indarreko hauteskunde-araudian ezarritako prozeduraren arabera.

132 nonies artikulua.– Egoiliar absenteen hauteskunde-eroldan inskribatuta egonik, atzerrian bizi diren hautesleek aldeztu aurretik eta modu presentzian erabili ahal izango dute botoa emateko eskubidea, kontsuletara joan eta hango bulego edo sailetan hartarako jarritako hautes-tontzian botoa eta beharrezkoa dokumentazioa utziz, edo posta bidez bozkaturik, Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 75. artikuluan ezarritakoaren arabera.

VI. IDAZPURUA

HAUTESKUNDEEI ETA HAUTESKUNDE-AUZIPIDEETATIKAKO JAZARPENEI BURUZKO IHARDUNBIDERAKO ARAU NAGUSIAK

I. ATALBURUA

HAUTESKUNDEETAKO AGIRIPAPEREN JAZARPENEN AURKEZPENA

133. atala.– 1.– Honako hauek guztiak, agiri-bidezko lege-egiketari buruzko zergapidetatik jare geldituzkoak izanik, paper arruntean egin eta doangoak izango dira:

a) Egiteari, birraztertzeari eta Hautatzaile-Eroldan sartzeari buruzko eske-idazki, bilkura-agiri, egiaztagiri eta biderapen-agiri guztiak.

b) Hautatzaileak bere gaitasuna, edo artez doakionetan beste hautatzaile batzuren gaitasuna edo gaitasunik eza egiaztatzeko behar ditzan agiripaper guztiak. Agiri-paper horiek ez da beste ezertarako erabiltzerik izango, eta hori egin dezatenak dagokien zergaren ebasletzat joko dira.

c) Jazarpenak, kexuak, egiaztagiriak, eske-idazkiak, eskabideak, zuzenketa-eskeak eta goradeiak eta hauteskunde-alorreko beste ezein egipide eta agiri, eta bai horiei darizkien zehaztapidetza eta ekintzak eta horiei edozein agintaritza-mailatan bere bideak eginaraztea ere, eskribau-agiriak barne.

2.– Beste herrilanari bategandik agiripaperen bat edo adierazpenen bat hartu behar, eta eraman behar lioketen bezain laister eskuratzen ez badiote, horretarako erantzun-beharra bere gain hartu eta horretarako berariz gaitutako batek bidali behar zukeenaren pentzutan jaso dezala aginduko du.

3.– Eman behar diren hauteskunde-agiriaren aldakiek, mekanikazko ezein aldakigintza-bidez egin daitezkeen izenpeak eta ikurratzak daramatzatenean baino ez dute eragite-indarrik izango.

II. ATALBURUA

ADMINISTRAZIO-BIDEETAKO BIDERAPENA

134. artikulua.– 1.– Lege honetan errekurtsua edo aurka egiteko bide judiziala ezartzen ez den bitartean eta lege honen 44.1 artikuluan aurreikusitakoa salbu, hauteskunde-batzordeen erabakien kontra errekurtsua jartzeko aukera egongo da goragoko kategoriako batzordearen aurrean. Batzordeak bost eguneko epean eman beharko du ebazpena hauteskunde-aldian, eta hamar eguneko epean aldi horretatik kanpo, bi kasuetan errekurtsua jartzen denetik kontatzen hasita.

2.– Erabakia jakinarazi eta hurrengo hogeita lau orduren buruan aurkeztuko da errekurtsua, hura eman duen batzordearen aurrean; honek, bere txostenarekin batera, erabakia eman behar duen batzordeari bidali beharko dio espedientea berrogeita zortzi orduko epean. Azken honen erabakiaren aurka ezin da administrazio-errekurtsorik aurkeztu.

135. atala.– Arduralaritzabide-Legea ordezkio izango da hautaskunde-ihardunbideari buruzko arauetik.

136. atala.– 1.– Hauteskunde-Batzordeek, goradei bat ebaztean, ez dute jazarritako erabakietan jarritako zigorrak gehituz izango.

2.– Lege honen 30.1.d) atalean agindutakoa aurreko zatian oharmandakotik kanpo gelditzen da, eta bai 152. eta 153. ataletan oharmandakoa hausteagatik jarritako zigorren aurkako goradeia ere, adierazi gabeko dirueskuraketa berriak edo izkutatutako gastu-atal berriak agertzen direnean.

III. ATALBURUA

HAUTESKUNDE-AUZIPIDETATIKAKO ESKABIDEA

137. atala.– Euskal Herriko Epaitegi Nagusiaren Arduralaritzza-Auzipidetarako Saila izango da hauteskunde-auzipideetatikako eskeez lehenengo eta besterik gabeko auzialdian arduratzeko gai.

VII. IDAZPURUA

HAUTESKUNDEETAKO DIRUSARRERAK, GASTUAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

I. ATALBURUA

HAUTESKUNDE-ADMINISTRARIAK

138. atala.– 1.– Eusko Legebiltzarrerako aurkeztutako hautagai-zerrenda guztiek, kondaira-lurralde mailan, hautagai-zerrendaren lurralde-mailako administraria eta Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-batzordearen aurrean zerrenda horren diru-sarrera, gastu eta hauteskunde-kontaduritzaren ardura izango duen eskuduna izan beharko dituzte.

2.– Hautagai-zerrenda kondaira-lurralde baten baino gehiagotan aurkez dezaten alderdi, bate-rakunde edo bazkunek guzti horietarako hauteskunde-administrari nagusia eta eskudun bat izan beharko dituzte.

3.– Administrari nagusia, aldi berean, alderdi, baterakunde edo bazkunak kondaira-lurralde baten edo gehiagotan aurkez ditzan hautagai-zerrenden lurralde-administrari ere izan daiteke.

4.– Hauteskundeetan eskuhartu, kondaira-lurralde bakar baten eskuhar dezan hauteskunde-batasun edo politika-alderdi, baterakunde nahiz bazkuneko lurralde-administrariak, aldi berean, hauteskunde-administrari nagusi izan beharko du.

5.– Administratzaile orokorrak argibideak eman beharko ditu Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordean, alderdi, federazio, koalizio edo taldeek eta horien hautagai-zerrendek izandako diru-sarrerak eta egindako gastu guztiak direla eta. Era berean, aurrekoen kontularitzari buruzko erantzukizuna ere izango du; kontularitza horretan, gutxienez, lege honetako 140. ataleko 1. lerroaldean aurreikusitako zehaztasun guztiak jaso beharko dira.

6.– Kondaira-lurralde ezberdinetan eskuhartzeko duen alderdi, baterakunde edo bazkun bereko hautagai-zerrenden lurralde-administrariak administrari nagusiaren ardurapean jokatuko dute.

7.– Hauteskunde-administrariaren ordezkoei ihardun, esandako administrariak kargua utzi, kanpoan izan, hil, edo ezinean gelditu izanagatik baino ez dute iharduterik izango.

139. atala.– 1.– Gara adineko izan eta herri eta politika-eskubideak erabat indarrean dituen ezin herritar hautatu ahal izango da hauteskudetako administrari.

2.– Hautagai-zerrenden lurralde-ordezkariek eta alderdi, baterakunde, bazkun edo batasunen ordezkari nagusiak aldi berean administrari nagusi ere izan daitezke.

3.– Hautagaiek ez dute hauteskunde-administrari izaterik.

4.– Administrari nagusiek eta hauen ordezkoei bakoitzaren politika-alderdi, baterakunde, bazkun edo batasunak emandako behar hainbateko agintearen jabe izan beharko dute, eta horien hautaketaren berri, horietako bakoitzaren ordezkari nagusiak, Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordeari, hauteskudetarako deia egin ondorengo hamaikagarren eguna baino lehen idatziz eman beharko diote. Idazki horretan, hautatutako onarpena berariz adierazi beharko da.

5.– Hauteskudetako lurralde-administrariaren eta hauen ordezkoren hautaketaren berri, horietako bakoitzaren hautagai-zerrendetako lurralde-mailako ordezkariak edo ordezkari nagusiek, dago-kion Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordeari, hautagai-zerrendak aurkeztearekin batera, idatziz eman beharko diote. Idazki horretan, hautatutako onarpena berariz adierazi beharko da. Kondaira-Lurralde bakoitzeko Hauteskunde-Batzordeak Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordeari, bakoitzaren barrutian hautatutako lurralde-mailako hauteskunde-administrariaren eta hauen onarpena berariz adierazi beharko dio.

II. ATALBURUA

HAUTESKUNDEETAKO KONTUAK

140. atala.– 1.– Aurkeztutako hautagai-zerrenda guztiek, euren izendapena egiten den egunetik aurrera, euren administrari nagusiaren bidez, kontaduritzak zehatza egin beharko dute eta kontaduritzak hori indarrean dagoen Kontaduritzako Plan Orokorrean jasotako printzipio orokorren arabera izango da kasu guztietan, eta hor, nahitaez, honako alderdi hauek erasota utzi beharko dituzte:

a) Hautagai-zerrendaren izena eta zein barrutian edo barrutietan eskuhartzeko duen.

b) Dirueskuraketak eta diru-iturriak, banaka zehaztuta.

c) Lege honetako 146. atalean oharmandakoaren arauera egindako gastuak, zertakoa eta egin zireneko eguna zehaztuz.

2.– Administrari nagusiek behar bezala adieraziko dituzte hautagaiak hauteskudetarako deia egitetik hautetsiak izendatu arte izandako ekintzetako diruzko egiketa eta gorabehera guztiak.

3.– Dirueskuraketei eta diru-iturrii buruzkoan, kontaduritzan honako zehaztasun hauek jarri beharko dira gutxienez:

a) Hurrenkera-zenbakia: dirueskuraketa eta diru-iturritarako bide emanezko egiketa guztiak, eskuratu direneko tokia dena dela, izan-alango hurrenkera adieraziko dira. Zenbaketa hau liburuan jasotako oharren irizkai eta zuripidetarako izanezko agiritakoarekin baterakoa izango da.

b) Eguna: dirueskuraketei eta eta dirubide-iturrii bide emanezko egiketak zein egunetakoak diren adieraziko da, horiek aurrezki kutxa edo bankuko kontu-bidez egindakoak izatea berdin dela.

c) Zenbatekoa: dagokion egiketaren zenbatekoa zehatz-mehatz adieraziko da.

d) Zertakoa: egiketa bakoitzaren azalpen laburra, ekintza hori nori leporatu behar zaion, hori egin-egin duena dena dela, eta aurrezki kutxa edo bankuko kontu-bidez egin den adieraziko da: aurrezki kutxaren bidez egina izanez gero, hau non dagoen eta horko arduradunak nortzuk diren adieraziko da eta, bankuko kontu-bidez egina izanez gero, kontu-zenbakia edo hori zein den jakiteko beste osagaiak, hori erabiltzeko baimena dutenen izenak, bankuaren izena eta honek dituen etxeetatik hain zuzen zeinetan egin den adieraziko da.

4.– Gastuei buruzkoan, kontaduritzan, aurreko zatian eskuraketetarako esandako zehaztasun berak jarri beharko dira, hori bai, dirueskuraketetakoetatik erabat bereizirik.

5.– Kontaduritzan amaitzean, kontaduritzako aldaroen eta banketxetako laburpenen arauerako aldaroen arteko aldeak agirian utzizko azalpen-agiria, egindako diru-kontaktetaren zuripide-agiria eta aldaro bakoitza osatzen duten kontu-garbiketako zordunen eta hartzekodunen izenak emanezko zerrenda aurkeztuko da.

141. atala.– 1.– Hautagai-zerrenden administrari nagusiek eta lurralde-mailakoek, diruak biltzeko ireki edo gauzatutako kontuen berri, bakoitzak dagokion Autonomi Elkarteko edo Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordeari, horiek ireki edo gauzatu ondorengo hogeita lau orduren barruan eman beharko diete.

2.– Politika-alderdi, baterakunde, bazkun edo batasunei gagozkiela, hauek beren bazkide eta jarraitzailei ezagun zaizkien kontu-zenbakiak dituztelako, diru-bilketarako lehendik irekitako kontuak gauzatu nahi izango balituzte, aurreko zatian esandako adierazpena egin baino lehen, kontu horietako aldaroen ez du dirurik izan beharko.

3.– Kontuak ireki, hauteskudetako administrariak izendatzeko egunetik aurrera, ezein banketxe edo aurrezki kutxatan iriki ahal izango dira.

4.– Aurkeztutako hautagaiak aldarrikatu gabe geratuz gero edo hauteskundeetan eskuhartzeari utziko baliote, kontu horietan inork jarritako diruak, ekarketa horiek egitera bultzatu zuten alderdi, baterakunde, bazkun edo batasunek, jarri zituztenei atzera itzuli beharko dizkiete.

142. atala.– 1.– Hauteskudetako gastuak ordaintzeko izendatutako diru guztiak, horien nondikakoa dena dela, esandako kontu horietan sartu beharko dira, baita gastu guztiak kontu horien pentzutuan ordaindu ere.

2.– Hauteskundetako administrarietara eta, kontuetako diruak erabiltzeko, horiek emandako baimena izan dezaten lagunek izango dute sartutako diruen eta horiek esandako helburuetako erabiltzeko ardura.

3.– Hauteskunde-aldia amaitutakoan, kontu horietako aldarroak, aurrez egindako hauteskunde-zorrak, boto-emanketako egunaren ondorengo larogeita hamar egunetan ordaintzeko baino ez da erabiltzerik izango.

4.– Boto-emanketako egunaren ondorengo hirurogei egunetan dagokien hauteskunde-administrarietara aditzera eman gabeko hauteskunde-gastuegatikako jazarpenak baliorik gabeko eta ez ordaintzekotzat joko dira. Horretarako, hauteskundetako administrarietara, jazarpenak egiteko epea amaitu baino hamabost egun lehenago, Lege honetan manu hori dagoela idatziz jakin-arazi beharko diete jazarpen hori egin ez duten hartzekodunei. Bidezko arrazoirik egon dagoenean, Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordeek eta, hala behar izanez gero, Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordeak, arau honekiko salbuespenak onartu ahal izango dituzte.

143. atala.– 1.– Aurreko ataletan esandako hauteskunde-kontuetan dirurik jarri dezatenek, dirua jartzeko unean, beren izena, bizitokia eta Erresumako.

Nortasun-Txarteleko edo Pasaporteko –hau dirua jartzen deneko Erakundeko dagokion langileari erakutsiko zaio– zenbakia erasota utziko dituzte.

2.– Diruak beste norbanako edo legezko nortasundunen baten izenean jarri daitezenean, horren izena erasota utziko da.

3.– Dirua alderdiek jartzen dutenean, jarritako diru hori nondik datorren adierazi beharko da, eta, kasua bada, diru hori eman duen kontuaren finantza-erakundeko kontu-zenbakia zein den ere adierazi beharko da.

III. ATALBURUA

HAUTESKUNDE-ESKURAKETAK ETA ITURBURUAK

144. atala.– 1.– Eusko Jaurlaritzak hauteskundeetako diru-laguntza publikoen bi aurrerakin emango ditu, bata kanpainako lehenengo egunaren aurretik, eta bestea bozketa ondoren.

2.– Eusko Jaurlaritzak hauteskundetarako diru-laguntzak aurrez eman, Eusko Legebiltzarrerako izandako aurreko hauteskundeetan ordezkariak lortu zuten politika-alderdi, baterakunde, hauteskunde-bazkun edo batasunei emango dizkie. Aurrez emandako diruak ez du politika-alderdi, baterakunde, hauteskunde-bazkun edo batasun horrek Eusko Legebiltzarrerako izandako azken hauteskundeetan jasotakoa bino ehuneko 30etik gorakoa izan beharko.

3.– Aurrez emateko diruen eskea, adminitrari nagusi bakoitzak, Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordeari, deia egin ondorengo hogeita batgarren egunetik hogeita hirugarrena bitartean egin ahal izango dio.

4.– Deia egin ondorengo hogeita bederatzigarren egunetik aurrera jarriko ditu Eusko Jaurlaritzako Herriogasuntzaren ardura duen Sailak, Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordeak baimena eman ondoren, adminitrari nagusien esku, bakoitzari dagozkion aurrez emateko diruak.

5.– Aurrez emandako diruak Eusko Jaurlaritzako Herriogasuntzaren ardura duen Sailak kendera ditu politika-alderdi, baterakunde, hauteskunde-bazkun edo batasun bakoitzari azkenean egokitutako hauteskunde-laguntzegatikako dirutatik.

6.– Hauteskundeen ondoren, politika-alderdi, baterakunde, hauteskunde-bazkun edo batasun bakoitzari azkenean egokitu zaion laguntza-kopuruaz gaindiko izan daitezen heinean itzuliko dira atzera aurreratutako diruak.

7.– Hauteskundeak izan ondoren, eta Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordean hauteskundeetako diru-kontuak aurkezteko epea amaitu eta hamabost egun igaro baino lehen (lege honen 149. atalean aipatzen da hori), Ogasuneko ardura duen Sailak administratzaile orokorrei hautagai-zerrendei dagokien diru-laguntzen 100eko 90 ordainduko die, bigarren aurrerakin gisa, beti ere hauteskundeetan izandako emaitzak kontuan izanda. Emaitza horiek Euskal Erico Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuta egon beharko dute eta laguntzei, kasua bada, atal honetako 2. lerroaldean aipatzen den aurrerakina deskontatu egingo zaie.

8.– Bigarren aurrerakina Ogasunean ardura hori duen Sailean eskatu beharko dute kasuan kasuko administratzaile orokorrek, eta hauteskundeetan aurkeztu den alderdi, federazio, koalizio edo taldeari azkenean dagokion diru-laguntzaren zenbatekotik deskontatuko da. Alderdi, koalizio eta federazioek aurrerakin hori eskuratu nahi baldin badute, eskabideaz batera, aurreratuta eskuratutako diru-laguntza osoaren 100eko 10eko bermea aurkeztu beharko dute, finantza-erakundeek emanda. Izan ere, Idazpuru honetako V. atalburuan eta lege honetako 80.3 eta 154. ataletan aurreikusitakoaz bat, beharbada deskontu batzuk izango dituztenez laguntzetan, horiei aurre egiteko gauza izan behar dute.

9.– Artikulu honen 7. paragrafoan aurreikusitako bigarren aurrerakina jaso ahal izateko, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak horrela erabakitzen badu, alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle-elkartek ogasunaren ardura duen sailaren aurrean aurkeztu beharko dute Eusko Legebiltzarreko Mahaiak emandako ziurtagiri bat, zalantzarik gabe egiaztatuko duena antolakunde politiko horietako hautetsia Eusko Legebiltzarreko kide izatera heldu dela eta kargu horretan benetan diharduela, hartarako hautatua izan baita eta hautaketa horrengatik ordaintzen baita aipatutako aurrerakina.

145. atala.– Honako hauek debekatuta gelditzen dira:

1.– Ezein Administrazioak edo herri-bazkunek, ihardutze-erakunde burujabe edo Erresumarenez besteko erakundeak, Erresumaren, Autonomi Elkarteen, probintzien nahiz udalen jabetzapeko herri-alorreko enpresek eta herri eta norbanako-alorreko diruz osatzen diren enpresek eta, indarrean duten akurapen-bidez, zerbitzuak edo zuzkiketak edo lanak Herri-Administrazionetako baterako egiten dituzten enpresek hauteskunde-kontutarako diru-ekarketak egitea.

2.– Atzerritarrak izan edo bere egoitza Autonomi Elkartetik kanpo izan dezaten erakunde edo norbanakoen diru-ekarketak.

3.– Legekontrako ekintzapidetatikako diru-eskuraketak.

4.– Edozein pertsona fisikok 10.000 euro baino gehiagoko ekarpena egitea, deialdiko hauteskundeetarako alderdi, federazio, koalizio edo hautesle-elkarte batek berak dirua biltzeko irekitako kontuetan.

IV. ATALBURUA

HAUTESKUNDEETAKO GASTUAK

146. atala.– Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan eskuhartzen duten alderdi, baterakunde, bazkun edo batasunek, deia egiten den egunetik hasi eta hautetsiak izendatu arte, ondoren ematen diren zertakoen eretzean egin ditzatenak joko dira hauteskunde-gastutzat:

a) Hauteskunde-txartel eta eskutiz-azalak egitea.

b) Jendeari botoa beren hautagai-zerrendeei ematera eragiteko xedezko artezko nahiz zeharkako zabalkunde eta iragarketa-lanak, horretako era eta erabilitako baliapidea dena dela.

c) Hauteskunde-mailako ezein ekintzatarako tegiak alogeratzea.

d) Langile finko izan gabe, hautagai-zerrenden zerbitzura lan egiten dutenei lansariak edo diru-sariak ematea.

e) Garraiabideak eta hautagaien, alderdi, baterakunde, bazkun edo batasunetako buruzagien eta hautagai-zerrendaren zerbitzuko langileen toki-aldaketegatikako gastuak.

f) Eskutitzak eta posta-gastuak.

g) Dagokien diru-laguntza eskuratu artekoan, hauteskunde-ekintzaldirako jasotako maileguen ondorioz sortutako korrituak.

h) Hauteskundeetarako bulegoak eta zerbitzuak antolatzeko eta lan egiteko beharrezko diren guztiak, baita boto-asmoari buruzko inkestak eta zundaketak ere, hauteskundeetarako zerbitzu beharrezkoak diren heinean beste batzuen artean.

147. atala.– 1.– Alderdi, baterakunde, hauteskunde-bazkun edo batasunek ez dute hurrengo zatian ezarritako mugez gaindiko hauteskunde-gasturik egiterik izango.

2.– Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, hauteskunde-gastuen muga izango da alderdi, federazio, koalizio edo hautesle-elkarte bakoitzak hautagai-zerrendak aurkezten dituen barrutietako legezko biztanleriari dagokion biztanleen kopurua 0,42 euroz biderkatuz ateratzen dena. Eragiketa horretatik ateratzen den kopuru horri 202.400 euro gehitu ahal izango zaizkio hautagaiak aurkezten dituzten barruti bakoitzeko.

V. ATALBURUA

HAUTESKUNEETAKO KONTADURITZA-ZAINGOA

148. atala.– 1.– Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak eta lurralde historikoetako hauteskunde-batzordeek idazpuru honetako ataletan jasotako atalak betetzen direla zainduko dute. Gai hori dela eta, Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordearen eginkizuna izango da hauteskundeetako kontularitza kontrolatzea, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren laguntzarekin.

Lurralde historikoko hauteskunde-batzordeek, kasua bada, idazpuru honetan jasotako arauak bete diren edo ez jakinarazi ahal izango diote Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeari, hauteskundeak izan eta hurrengo ehun egunen barruan.

2.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiak proposatuta, hauteskundeetan parte hartuko duten hautagai-zerrendek zein kontrolbide jarraituko duten eta zer-nolako agiriak aurkeztu beharko dituzten jakiteko jarraibideak eman ahal izango ditu Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak. Era berean, kontularitzako zein irizpide jarraitu ere erabaki ahal izango du, Kontularitzako Plan Orokorrean esaten denaz bat.

Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak idatziz erabaki beharko du hautagai-zerrenden administratzaile orokorrek egindako argibide-eskari guztiez.

3.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, kontrolatzea bere eginkizuna denez, hautagai-zerrenden administratzaile orokorrei kontularitzari buruzko informazioa edo hauteskundeetako jardueri buruzko informazioa eskatu ahal izango die, beharrezkoa dela iruditzen bazaio.

4.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatzen dituen datuak eman egin beharko dizkiote erakunde publiko eta pribatuek, kontrol-lana aurrera eramanez ahal izateko, bere eginkizuna baita.

5.– Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak hautagai-zerrenden administratzaile orokorrek aurkeztutako datuak benetakoak diren edo ez jakiteko ikerketak egin ahal izango ditu, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak ere gauza bera egin ahal izango du, Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak horretarako baimena ematen baldin badio.

6.– Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiak hauteskundeetako kontularitza aztertzei aurrera eramandako ikerketak direla-eta hauteskundeetako delituren baten zantzua dagoela uste bada, Ministerio Fiskala jakinaren gainean jarriko dute, egoki irizitako neurriak har ditzan.

149. atala.– 1.– Aulkiren bat eskuratu duen edo hauteskundeetako diru-laguntzen aurrerakinen bat eskatu duen hautagai-zerrendako administratzaile orokorrak, hauteskundeak izan eta hurrengo hirurogei egunak igaro baino lehen, kontularitza zehatz eta agirien bidez frogatutakoa aurkeztu beharko du Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordearen egoitzan.

Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaliko du informazio horren kopia bat.

2.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiak hirurogei eguneko epea izango du aurkeztu dizkieten agiriak aztertzei; horren inguruan, hautagai-zerrenden administratzaile orokorrari edozein agiri eskatu ahal izango dio, kontularitzari buruz emandako datuak agiri bidez justifikatzeko eta baita lege honen 142.3 eta 4. atalean erabakitakoa betetzeko.

Era berean, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak hautagai-zerrendekin harreman ekonomikoak izan dituzten hirugarrenei dei egin ahal izango die, dagoen informazioa benetan hala den baieztatzeko edo informazio hori osatzeko.

3.– Hauteskundeak izan eta hurrengo ehun eta hogeita egunak igaro baino lehen, hauteskundeetako kontularitzei buruzko eta horietan ageri diren diru-sarrerak eta gastuen egiaztapenei buruzko motibatutako irizpena emango du Herri Kontuen Euskal Epaitegiak. Irizpen horretan adieraziko du hauteskundeen kontuetan diru-sarrerak eta gastuen arteko harremana justifikatuta dagoela; edo justifikatu gabeko diru-sarrerak daudela nahiz murriztutako gastu-partidak daudela. Azken horien kasuan, hauteskundeetako arauak hautsi egin direla erabakiko du. Hori dela eta, dena delako alderdi, federazio, koalizio edo taldeak hauteskundeetako diru-laguntzarik ez jasotzeko edo gutxiago jasotzeko proposatu ahal izango du, idazpuru honetako VII. atalburuan aurreikusitakoaz bat.

4.– Aurreko lehen aldian aipatzen den irizpenaren berri hautagai-zerrenda bakoitzeko administratzaile orokorrari jakinaraziko dio Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, eta baita hamabost eguneko epea eman ere alegazioak aurkezteko.

150. atala.– 1.– Goian aipatutako irizpena eta horri dagozkion alegazio eta proposamenak Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordera bidaliko ditu Herri Kontuen Euskal Epaitegiak.

2.– Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak administratzaile orokorrak aurkeztutako alegazioez erabaki eta gero, aulkiren bat lortu duten hautagai-zerrendei hauteskundeetako diru-laguntzetatik zenbat dagokien erabaki eta argitaratuko du, hauteskundeak izan eta ehun eta laurogei egun igaro baino lehen, lege honetako hurrengo atalean erabakitakoaz bat.

3.– Hauteskundeetako diru-laguntzak zenbatekoak diren Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoren, Eusko Jaurlaritzak, Ogasunaren ardura duen Sailaren bidez, diru-laguntza horien zenbatekoa ordainduko die, jasotzeko eskubidea duten hautagai-zerrendetako administratzaile orokorrei, 80.3, 144.5 eta 8 eta 154. ataletan esaten dena kontuan eduki beharko bada ere.

VI. ATALBURUA

HAUTESKUNDE-GASTUTARAKO HERRI-DIRULAGUNTZA

151. artikulua.– 1.– Euskal Autonomia Erkidegoak diru-laguntzak emango ditu alderdi politiko, federazio, hauteskunde-koalizio edo hautesle-elkarteen hauteskunde-gastuei aurre egiteko, arau hauen arabera:

- a) 26.761,89 euro Eusko Legebiltzarrean eskuratutako jarleku bakoitzeko.
- b) 0,90 euro hautagai-zerrenda bakoitzak lortutako boto bakoitzeko, betiere zerrendako horietako batek gutxienez Legebiltzarreko jarlekua lortu badu dagokion hauteskunde-barrutian.
- c) 44.603,13 euro hauteskunde-barruti bakoitzeko, hauteskunde-barrutian gutxienez jarleku bat lortu dutenei.

2.– Aurreko paragrafoan aipaturiko diru-laguntzaz gain, diruz lagunduko dira propaganda, gutun-azalak eta boto-paperak edo bestelako hauteskunde-iragarkiak hautesleei zuzenean eta banan-banan bidaltzeak sortutako hauteskunde-gastuak, hurrengoaren arabera:

- a) 0,23 euro ordainduko dira hautesle bakoitzeko, baldin eta erreferentziako hautagaitzak aurkeztu badu barruti horietako bakoitzean eta jarleku bat lortu badu.
- b) Diru-laguntzaren zenbateko hori ez da egongo sartuta lege honen 147. artikuluan aurreikusitako mugaren barruan, betiere paragrafo honek aipaturiko jarduerarekiko benetako lotura egiaztatu bada.

3.– Artikulu honen 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako hauteskundeetako diru-laguntzen bai sorzapena bai kopurua alderdi politikoei ordaintzeko, Eusko Legebiltzarreko kide oso izatera heldu direla eta hautatutako karguan benetan jarduten dutela erakutsi beharko dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak hala erabakiz gero. Horiek egiaztatzea eta horien ziurtagiria egitea Eusko Legebiltzarreko gobernu-organoari dagokio.

4.– Talde politiko bakoitzari dagozkion diru-laguntzen zenbatekoak ezin izango du gainditu Herri Kontuen Euskal Epaitegiak hauteskunde-gastuei dagokienez justifikatutzat deklaraturako kopurua.

VII. ATALBURUA

ZIGORRAK

152. atala.– 1.– Zigor-legearen aldetikako erantzunbeharraren, edo Lege honetako 145. atalaren gai diren ihardutze-erakunde eta erakundeen iharduna araupetzen duten legegideak erabiliz atera daitezkeen erantzunbeharren kaltetan gabe, debekatutako diruak hartu izanaren egiaztapenak izan zitezkeen dirulaguntzak erabat galtzea ekarriko du, eta hartutako debekatutako dirumoltzo horren hiru halako zigor bat.

2.– Zigor hori aurreko atalean jarritakoaren gainetikakoa izan ahal izango da.

153. atala.– 1.– Zuritu gabeko dirueskuraketak edo izkutatutako gastu-diruatalak egon izana egiaztatu dadinean, zigorrak zuritu gabekoaren edo izkutatutakoaren hiru halakoa izan ahal izango du. Erantzunbeharra politika-alderdi, batasun edo bazkunak izango du, horiek gero hauteskundee-tako kontuen eraentza bere gain izan dutenei eraso ahal izatearen kaltetan gabe.

2.– Arestian esandakoa gertatuz gero, dirulaguntza hartzeko eskubidea baldin badago, dirulaguntzari zigorrak jotzen duena kenduko zaio. Dirulaguntzatarako eskubiderik egon ez, edo zigorra baino gutxiagorako eskubidea izanez gero, diru-zenbateko hori, osorik edo osatzeko falta den zatia, eskudirutan eskuratuko da, legez onartutako ezein bidetatik lakatu daitekeela.

154. atala.– Aurreko ataletan esandakoak eragite-indarra izan dezan, zigorren berri Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordeak edo Kondaira-Lurraldeko Hauteskunde-Batzordeek Eusko Jaurlaritzako Herriogasuntzako ardura duen Sailari jakitera eman beharko diote eta horrek hartu izanaren egiaztagiria egingo du.

ERABAKI GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– 1.– Hauteskunde-egiteraldiak ekarri ditzan gastu guztiak Autonomi Elkartearen Guztizko Diruegitamuen pentzutangoak izango dira, horietarako dirubideak Euskal Herriko Autonomi Elkartearen Ekonomi Itunea onartzezko 12/1981 Legearen II. Atalburuak dioenez egitearen kaltetan gabe. Gastu horietan, Hauteskunde-Batzordeen ihardunarenak, eta Batzordetako Idazkaritzetan zerbitzu egiten dutenez bestekoak izan eta Batzordeak bere egitekoa ahalik eta ondoen betetzeko beharrezko eritzitako lanari teknikari edo laguntzaileek ekar ditzatenak sartuko dira. Ahal dela, eta Batzordeen ihardunaren bereizkeriarik ezarentzat kaltegarri izan ez dadin guztietan, lanari teknikari eta laguntzaile horiek, Autonomi Elkarteko Administaritzaaren zerbitzuan dihardutenak izango dira, Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordearentzat Lege honetan ohar-temandako jaurpidea salbu.

2.– Nolanahi ere, Hauteskunde-Batzordeetako kideei eta hauen zerbitzuko lanariei buruzko bide-sari eta diruzko beste sariak bere gainontzeko irabazpideekin baterakoak izan ahal izango dituzte, eta horien dirubide-zaingoa indarrean dauden legeei atxikizkoa izango da.

3.– 20.3 eta 132 Bigarren III. ataletan jasotakoaren arabera sortutako gastuak Eusko Legebiltzarreko aurrekontu-atalaren gastuen egoeraren kontura finantzatuko dira.

Bigarrena.– Lege honetako 23.1 atalean oharmandakoetarako, Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeen lurralde-eremuak epaikaritzza-barrutienak izango dira.

Hirugarrena.– Hauteskunde-Jaurpide Nagusiei buruzko ekainaren 19ko 5/1989 Oinarrizko Legearen Erabaki Gehigarrietako Lehenengo 2 zenbakian ematen diren manuak bere osoan edo zati baten aldatzen direneko Lege honetako atalak idazki honetan legegintzan taiuz aritzeko arrazoiegatik jarri dira; ondorioz, Oinarrizko Legeko manu horiek aldaketarik izaten duten une berean aldatutakotzat ulertuko dira Lege honetako atal horiek.

Laugarrena.– Lege honetan aurreikusitako zenbatekoak euro konstanteei dagozkie. Eusko Jaurlaritzan ogasunaren ardura duen sailaren aginduz, zenbateko horiek eguneratu egingo dira hauteskundeetarako deia egin eta hurrengo zazpi egunetan.

Boskarrena.– Lege honetan oharmandako elkartuezinekiko jaurpidea, hemen agintzen denari jarraiki, hautatutako legebiltzarkideekin ere erabiltzeko izango da.

ALDI BATERAKO ERABAKIAK

Lehenengoa.– 1.– Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordeko Maikideen lehenengo hautaketa, 18. ataleko ihardunbidearen arauera, Lege hau indarrean jarri ondorengo hirurogei egunen barruan egin beharko da.

2.– Zuzentzako Goren-Epaikaritzako eta Eusko Legebiltzarreko Lehendakariak egindako hautaketen berri emango die Eusko Jaurlaritzari, honek horien izendapena egin eta Autonomi Elkarteko Hauteskunde-Batzordea osatuko dutenen izenak argitara Euskal Herriko Agintaritza-Aldizkarian eman ditzan, eta Batzorde hori ahalik eta azkarren eratuko da.

Bigarrena.– Hauteskunde-Jaurpide Nagusiari buruzko Oinarrizko Legeko 8.6 atalak indarrean dirauen bitartean, Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeen lurralde-eremuak 1979.eko Toki-mailako Hauteskundeetarako jarritakoekin baterakoak izango dira.

AZKEN ERABAKIAK

Lehenengoa.– Lege honetan oharrekin ez denerako hauteskunde-jaurpide nagusiari buruz indarrean dauden arauak erabili beharko dira, eta berariz, Gorteetako Diputatu Nagusien hauteskundeetarako oharrekin, hauteskundeen nolakoaren eta eremuaren ondoriozko egokiketak eginik, noski, eta batean estatu-mailako erakunde direnak, bestean, bere aginpideen eremuan, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Administrazioari dagozkionak izango direla kontutan hartuz.

Bigarrena.– Berariz besterik esaten bada salbu, Lege honetan jartzen diren epeak eta aldi-mugak kontatzeko egunak beti egutegi-egunak izango dira.

Hirugarrena.– Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadin egunaren biharamonean jarriko da indarrean.

Laugarrena.– Eusko Jaurlaritzak ahalmena du lege hau garatzeko egoki iritzi dituen xedapenak emateko.

BALIOGABETZEKO ERABAKIA

Lege hau indarrean jartzean, ekainaren 30eko «eusko Legebiltzarkideen ordezkaketa Araupetzeko» 8/1981 Legea, azaroaren 25eko «Eusko Legebiltzarreko Hauteskundeak Araupetzeko» 28/1983 Legea, abenduaren 19ko «Eusko Legebiltzarreko 1984.eko Hauteskundeetan erabili beharreko boto-atabakak, gelatxoak, boto-txartelak, eskutitz-azalak eta gainontzeko agiripaperak atxikiko zaizkien eredu ofizialak zehazteko» 274/1983 Dekretua; urtarrilaren 16ko «azaroaren 25eko 28/1983 Legearen 5. atala osatuzko» 15/1984 Dekretua; urtarrilaren 23ko «Irrati eta Telebistarako Batzordeari» buruzko 31/1984 Dekretua; urtarrilaren 30eko «Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan eskuhar dezaten hautagai-zerrenden kontaduritzaliburuari» buruzko 42/1984 Dekretua; otsailaren 6ko «Herri-jabetzapeko adierazpideetan doango tokiak uzteari» buruzko 40/1984 Dekretua; otsailaren 13ko «Irrati eta Telebistarako Batzordeari buruzko urtarrilaren 23ko 31/1984 Dekretuaren 3.2 atala idazkeraz adarzteari» buruzko 47/1984 Dekretua; otsailaren 13ko «Herri-jabetzapeko Adierazpideetan doango tokiak uzteari buruzko otsailaren 6ko 40/1984 Dekretuaren 3. atala idazkeraz aldatzteari» buruzko 48/1984 Dekretua; irailaren 25eko «Eusko Legebiltzarreko 1984.eko Hauteskundeetan erabili beharreko boto-atabakak, gelatxoak, boto-txartelak, eskutitz-azalak eta gainontzeko agiripaperak atxikiko zaizkien eredu ofizialak zehazteko» 204/1986 Dekretua eta Lege honen aurkako gainontzeko manu guztiak balio gabetuta geratuko dira.